

207/2007 FORU DEKRETUA, azaroaren 20koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena (BAO Abenduaren 3koa)

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauak erabat aldatu zuen banakako tributazioa; eta aldaketa horren ezaugarriak izan dira, batetik, zerga-zamaren murrizketa orokorra egitea, eta, bestetik, aurrezkoa xede duten produktuen tratamendu fiskal neutrala.

Pertsona fisikoen zerga-ordainketaren aldaketa hori osatu gabe zegoen baina; izan ere, zenbait gai arautzeko arauak garatu behar zirela aipatzen zen Foru Arauan bertan.

Ondorioz, foru dekretu honen eranskin gisa onartuko den Araudiak arauak emateko gaikuntza du bai Foru Arauak berak araudi hori aipatzen duelako beren-beregi, bai Foru Arauko bigarren xedapen gehigarria dela-eta; izan ere, xedapen horrek ahalmena ematen dio Foru Aldundiari Foru Araua garatzeko eta gauzatzeko beharrezkotzat jo daitezkeen xedapen guztiak emateko.

Nolanahi ere, foru dekretu hau onartu aurretik eta atxikipenaketa konturako sarrerak egin behar zituztenek al bait arinen ezagutu zezaten konturako ordainketei dagokienez 2007ko urtarrilaren 1etikurrera indarrean egongo den arautegia, abenduaren 26ko 228/2006 Foru Dekretua onetsi zen, konturako ordainketen arloko zenbait zerga-araudi aldatu zituena.

Foru dekretu honek artikulua bat dauka, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bi eta hiru azken xedapen. Artikulu bakarrak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsiko du.

Araudia foru dekretu honen eranskin gisa dago. Guztira, 133 artikulua dauzka, zazpi titulutan banatuta, eta aurreko araudiak zeukan egitura errespetatzen du, baina 6/2006 Foru Arauak ezarritakoaren arabera beharrezkoak diren berritasunak gehitzen dizkio egitura horri.

Araudiaren egiturak erakusten duen berritasunik handiena I. titulua sartzea da. Titulu horrek ikerketa eta garapen lanak Bizkaiko Lurralde Historikora lekualdatu diren langileei aplikagarria zaien arau-bide berezia garatzen du; izan ere, langileok aukera izango dute zergak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arabera ordaintzeko. Orobat, arestian aipatutako aukera horren edukia, iraupena eta aukera hori mugatzen duten gainerako alderdiak zehazten ditu titulu horrek.

Salbuetsitako errentak direla eta, honako hau aipatu behar da: batetik, artikulua berri bat dagoela, lurraldeko herri-administrazioek emandako laguntza publikoen salbuespena arautzeko, eta laguntza horiek, 6/2006 Foru Arau berria onartu arte, Zerga arautzen zuen 10/1998 Foru Arauan zeuden jasota; bestetik, goi-mailako kirolariei ematen zaizkien laguntzetan salbuetsitako zenbatekoa handitu dela; eta azkenik, urtearen zati batean atzerrian lan egiteagatik jasotzen diren lan etekinen kasuan, salbuetsitako zenbatekoa zehazteko erregelak erantsi direla.

Lanaren etekinei dagokienez, gehitu egin da joan-etorri gastuetarako sari eta esleipenetan kargapetik salbuetsita dagoen zenbatekoa: orain 0.29 euro da kilometro bakoitzeko; aldaketa hori 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzea aurrez ikusten da. Horrekin batera, akzioen gaineko aukerak erabiltzen diren kasurako, eguneratu egin da salbuetsitako kopurua zein den kalkulatu ahal izateko etekina lortzeko beharrezkoa den urteen kopuruarekin biderkatu behar den zenbatekoa.

Ekonomi jardueren etekina zehazteari dagokionez, egokitu egin da Araudia, aurreko araudian zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuak zituen prozedurak kendu egin baitira.

Kapital higiezinaren etekinei dagokionez, ohiko etxebizitzaren errentamenduari aplikatzen zaion zerga-ordainketarako araubidea «Etxebizitza Hutsaren Programa»ri edo etxebizitzaren errentamenduko araubide berezia aplikatzen zaien entitateei lagatako etxebizitzari ere aplikatuko zaie.

Kapital higigarriaren etekinei dagokionez, arauketa egokitu da, etekin horiei ez baitzaie integrazio-portzentajerik aplikatuko, ez etekinon sorrera-aldia bi urte baino luzeagoa denean, ez eta denboran era nabarmen irregularrean lortzen diren etekinak direnean ere, baldin eta etekin horiek guztiak aurrezkiaren errentaren parte badira.

Ondare-irabazi eta -galerei dagokionez, ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik salbuespena 65 urtetik gorakoei edo menpekotasun larria edo handia dutenei aplikatzeko, bai eta ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik salbuespena aplikatzeko ere, bada, horretarako guztirako, ohiko etxebizitza izango da saldu aurreko unera arte ohiko etxebizitza izan dena edo eskualdaketa egunaren aurreko urte bietako edozein egunera arte ohiko etxebizitza izan dena, eta etxebizitza saltzeko epe osagarria emango zaio eskualdatzaileari, baina horrek ez du ekarriko etxebizitza hori salbuespenari dagokionez ohiko etxebizitzatzat ez hartzea.

Etekinak jotzen ez diren gauzako ordainketei dagokionez, enpresako jantokien kasuan eguneko 7,81 eurotik 9 eurora gehitu da horien zenbatekoa, eta, horrekin batera, zerbitzua emateko zeharkako formulak erabiltzen direnerako txartelak eta ordaintzeko gainerako bitarteko elektronikoak sartu dira; 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko dira. Orobat, gauzako errentak direla eta, heriotza edo elbarritasunerako arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboaren primak daukaten salbuespena muga arautzen da eta ez dira ordainsaritzat hartuko langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen diren kopuruak.

Oinarri likidagarri orokorreko murrizketei dagokionez, aurreikuspen plan aseguratuetako hornidura matematikoa plan batetik bestera aldatzeko prozedura berria, zerga-kosturik ez duena, arautu dela nabarmendu behar da. Horrez gain, aurrez ikusten diren zerga-mugak gaintzearen ondorioz zerga-oinarria murrizteko erabili ez diren gizarte-aurreikuspeneko sistemetak gaintzeak aplikatzeko prozedura arautu da.

Kenkariari dagokionez, 6/2006 Foru Arauak ezartzen duen sistemari egokitzeak erroten errazten du ohiko etxebizitza erostegatik kenkaria. Halaber, zergadunaren jabetzako lokalak ohiko etxebizitza gisa gaitzeari buruzko aipamenak ere jasotzen dira. Kasu horretan, zergadunak hamabi hilabeteko epea izango du etxe horretan bizitzen hasteko, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen zaionetik zenbatzen hasita; lokalak egokitzearen egin dituen lanengatik kenkaria egiteko eskubidea ere izango du, baldin eta lan horiek babesteko moduko jarduketatzat jo badira.

Zergaren kudeaketaz denaz bezainbatean, araudi honetan sartu dira bai aurrezki-aurreikuspeneko produktu berriak merkaturatzen dituzten entitateek daukaten betebeharrak formalak, bai eta sindikatuek, alderdi politikoek eta pertsona ezgaituen ondare babestuen titularrek informazioa emateko daukaten betebeharrak ere. Gainera, sindikatuen eta alderdi politikoaren kasuan, zergadunak, kenkaria benetan erabili ahal izateko, sindikatu eta alderdiek aurkeztu behar duten aitortze informatiboan sartuta egon behar du.

Azkenik, azpimarratu behar da ez direla aldatu atxikipenen eta konturako sarreraren portzentajeak, ez eta abenduaren 26ko 228/2006 Foru Dekretuak -urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak foru dekretu horrek- onartu zituen atxikipenei eta konturako ordainketei dagokien arauketaren egitura ere. Nolanahi ere, zehaztu behar da berritasun bat dagoela lanaren etekinen gaineko atxikipenetan: atxikipen-portzentajea aldatuko da urtean zehar aldatu egiten bada ordainsarien zenbatekoa eta ez bakarrik aldaketa hori izaera orokorreko arau baten edo hitzarmen kolektiboaren ondoriozkoa denean. Halaber, azpimarratu behar da aldaketa egin dela hiri higiezinaren errentamendutik edo azpierreantamendutik datozen etekinen kasuan atxikipena egiteko betebeharraren salbuespenetan, eta aldaketa horri ezker errentatzaileek ez dute

atxikipenik egin beharko, baldin eta errentatzailearen jarduera Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifen lehen atalaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, jarduera hori egiteko ahalbidetzen duen beste edozein epigrafetan sailkatuta badago, salbu eta errentan edo azpierrentan ematen diren ondasun higiezinaren katastroko balioari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko erregelak aplikatuz zero kuota ateratzen denean; kasu horretan, ez du ondorioz izango atxikitzeko betebeharraren salbuespenak.

Hori dela eta, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2007ko azaroaren 20ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi da; foru dekretu honi batu zaio eranskin gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuko 56. artikuluko i) zatia aldatuko da, eta honela geratuko da:

«i) Hiri higiezinaren errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen etekinak, honelakorik gertatuz gero:

- Etxebizitza enpresek beren enplegatuentzat alokatzea.

- Errentariak errentatzaileari ordaindutako errentak urteko 900 euro baino gehiago ez izatea.

- Errentatzailearen jarduera apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergako Tarifak onartzen dituenak, jasotako tarifen lehen atalaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrentan ematen diren ondasun higiezinaren katastroko balioari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko erregelak aplikatuz zero kuota ateratzen ez denean.

Ondore horietarako, errentatzaileak betekizun hori betetzen duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen bezala.

- Etekinak Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 116. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren finantza-errentamenduko kontratuen ondoriozkoak izatea, kontratuon xedea hiri ondasun higiezinak badira.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehena. Indargabetzea.

Foru dekretu hau indarrean jartzearekin batera, indargabetu egingo dira Foru Dekretuan ezartzen denaren aurkakoak diren maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta indargabetu egingo da, bereziki, uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuena. Hala ere, uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuko 6. eta 48. artikuluek indarrean jarraituko dute 2007ko abenduaren 31ra arte.

Bigarrena. Erregelamenduzko beste arau batzuen indarraldia.

Indargabetu egin den uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretua garatzeko eman ziren erregelamenduzko arauak indarrean jarraituko dute, foru dekretu honen bidez onetsi den Araudian ezartzen denaren aurkakoak ez diren heinean, harik eta onetsi den Araudia garatzeko eman litezkeen erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

1. Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean. Dena den, foru dekretu honen bidez onetsi den Araudiko 13, 54, 64.3 eta 103.h) artikuluetan xedatzen dena 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.
2. Foru dekretu honen bidez onetsi den Araudian jasotzen diren xedapenak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ezarriko dira, foru dekretu honetako 13, 54, 64.3 eta 103.h) artikuluetan eta azken xedapen bakarrean xedatzen dena izan ezik; alabaina, azken horietan xedatutakoak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.

Uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiari dagokionez foru arautegian egiten diren erreferentzia guztiak foru dekretu honi dagozkion manuei buruz egindakotzat joko dira.

Hirugarrena. Gaikuntza.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

ERANSKINA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ARAUDIA ONETSI DUEN FORU DEKRETUA

I. TITULUA

LEKUALDATUTAKO LANGILEEI APLIKAGARRIA ZAIEN ARAUBIDE BEREZIA

1. artikulua. Zergak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ordaintzeko araubide bereziaren edukia

1. Zergak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ordaintzeko araubide berezia ezartzearen ondorioz, Espainiako lurraldean lortzen diren errentak bakarrik hartuko dira kontuan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-zorra erabakitzeko, hain zuzen ere, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testuategina onetsi zuen martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuan establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe lortutako errentei dagokienez ezartzen diren arauen arabera, baina testuategin horretako I. kapituluko 5, 6, 8, 9, 10 eta 11. artikuluetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.
2. Bereziki, honako erregela hauek ezarriko dira:
 - a) Araubide berezi hau aukeratzen duten zergadunek kargapean dagoen zergaren sortzapen oso edo partzial bakoitzarengatik ordaindu behar dituzte zergak, eta ezin dute zerga horien arteko inolako konpentsaziorik egin.
 - b) Errenta bakoitzaren oinarri likidagarria errenta bakoitzerako kalkulatu da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 23. artikuluan ezartzen denaren arabera.
 - c) Kuota osoa lortzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 1. paragrafoan zehazten diren karga tasak ezarri behar zaizkio oinarri likidagarriari.

- d) Kuota diferentziala lortzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan aipatutako kuotaren kenkariak egin behar zaizkio zergaren kuota osoari. 25. artikuluko horretako b) zatian xedatzen denaren ondorioetarako, jarraian datorren 3. paragrafoan aipatzen diren konturako ordainketez gain, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kontura ordaindutako kuotak ere kengarriak izango dira.
3. Araubide berezi hau dela-eta egin behar diren atxikpenak eta konturako sarrerak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian ezartzen denaren arabera egingo dira. Dena dela, araudi honetako 104. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian biltzen diren inguruabarrak gertatuz gero, atxikitzen behartuta egongo dira zergadunen zerbitzuak hartzen dituzten entitate egoiliarrek edo establezimendu iraunkorrek, zergadunok Espainiako lurraldean lortzen dituzten errentei dagokienez.
- Aurreko lerroaldean aipatzen diren atxikpenak eta konturako sarrerak direla-eta araudi honetako 127. artikuluan ezartzen diren betebeharrak formalak betetzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren establezimendu iraunkor baten bitartekaritza gabe lortzen diren errententzat ezartzen diren aitorten-ereduak erabili behar dira.
4. Araubide berezi hau aplikatzen zaien zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortena aurkeztu eta izenpetu behar dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsitako ereduaren arabera. Izan ere, foru diputatuak ezarriko du zein diren aitortena aurkezteko era, leku eta epeak. Gainera, aitortenaren edukiak bat etorri behar du Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarako zehazten diren aitorten-ereduekin.
- Zergadunek, aitortena aurkezten dutenean, zehaztu egin beharko dute zein den euren zerga-zorra, bai eta sartu ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen leku, era eta epeetan. Zergadunari itzulketa egin behar izanez gero, Zergari buruzko Foru Arauko 113. artikuluan zehazten denaren arabera egingo da itzulketa hori.
5. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek araubide berezi hau ezartzea erabakitzen badute, zergadunok Espainiako lurraldean dauden ondare higiezinekin egiten dituzten eskualdaketei Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 2. paragrafoan zehazten dena aplikatuko zaie.

2. artikulua. Iraupena.

Zergadunak zerga egoitza Espainian kokatzen duen zergaldian eta hurrengo bost zergaldietan aplikatuko da araubide berezi hau; nolahi ere, aintzat hartu behar da araudi honetako 4. eta 5. artikuluetan zehazten dena.

3. artikulua. Aukera erabiltzea.

1. Zergak araubide berezi honetan ordaintzeko aukera erabili ahal izateko, jakinarazpena bidali behar zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, gehienez ere Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian aipatzen diren jarduerak hasten diren egunetik sei hilabeteko epearen barruan. Jardueren hasiera-eguna Espainiako Gizarte Segurantzaren emandako altan egon behar da jasota edo, hala denean, zergadunari jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legedia mantentzea ahalbidetzen dioten agirietan.
2. Aukera erabiltzeko, araudi honetako 6. artikuluan aipatzen den jakinarazpena aurkeztu behar da.
3. Zergadunek ezingo dute aukera hori erabili, baldin eta aurretik lanaren etekinen gaineko atxikpenak eta konturako sarrerak zehazteko araudi honetako 129. artikuluan jasotzen den prozedura berezia ezartzea aukeratu badute.
4. Bizkaiko Foru Aldundiak, araudi honetako 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen denaren arabera, onartu egingo die aukera hori erabiltzea beste lurralde batetik, foraletik edo erkidetik, Bizkaira datozen eta zerga egoitza Bizkaian kokatzen duten zergadunei, baldin

eta egoitza Bizkaira aldatzen duten aurre-aurreko ekitaldian titulu honetan ezartzen den araubidearen baliokidea den araubide bat aplikatzen bazitzaien eta tituluaren bertan ezartzen diren gainerako betekizun guztiak betetzen badituzte.

Araubide berezia aplikatuko den aldia zenbatzeari buruz araudi honetako 2. artikuluan zehazten denari dagokionez, titulu honetan arautzen den araubidearen baliokidea den araubide berezi bat aplikatu den zergaldi guztiak hartu behar dira kontuan, araubidea aplikatu den lurraldea edozein dela ere: forala ala erkidea.

4. artikulua. Araubideari uko egitea.

1. Araubide berezi hau aukeratu duten zergadunak uko egin diezaiokete araubidea aplikatzeari, hain zuzen ere, ukoak ondorioak izan behar dituen egutegiko urtearen aurreko azaroan eta abenduan.
2. Ukoa egiteko, honako prozedura hau jarraitu behar da:
 - a) Lehenengo, araudi honetako 128. artikuluan zehazten den datuen jakinarazpena eman behar dio zergadunak bere atxikitzaileari, eta hark jakinarazpenaren kopia zigilatua itzuli behar dio.
 - b) Bigarrenik, araudi honetako 6. artikuluan zehazten den jakinarazpena aurkeztu behar dio zergadunak Zerga Administrazioari, eta aurreko idatz-zatian aipatzen den jakinarazpenaren kopia zigilatua erantsi behar dio.
3. Araubide bereziari uko egiten dioten zergadunek ezin dute berriro eskatu araubide hori ezartzerik.

5. artikulua. Araubidetik kanpo uztea.

1. Araubide berezi hau ezartzea aukeratu duten zergadunak araubidetik kanpo utziko dira, baldin eta aukera erabili duten ekitaldiaren ondoren araubidea ezartzeko nahitaezkoak diren baldintzetako bat betetzen ez badute. Ez-betetzea egiten den zergaldian bertan izango ditu ondorioak kanpo uzte horrek.
2. Araubidetik kanpo utzi diren zergadunek araubidetik kanpo daudela jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari, araubidea aplikatzea ekarri zuten baldintzak betetzen ez dituztenetik zenbatzen hasita hilabeteko epean; horretarako guztirako, araudi honetako 6. artikuluan zehazten den jakinarazpena erabili behar dute.
3. Atxikpenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauen arabera egingo dira, zergadunak bere atxikitzaileari araubide berezia ezartzeko baldintzak ez dituela bete jakinarazten dion unetik bertatik; gainera, aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpenaren kopia erantsi behar dio. Horrekin batera, araudi honetako 128. artikuluan zehazten den datuen jakinarazpena aurkeztu behar dio zergadunak bere atxikitzaileari.

Dena dela, atxikitzaileak baldin badaki Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 3. paragrafoko d), e) edo f) idatz-zatietako baldintzak betetzen ez direla, atxikitzaileak ez-betetzearen berri daukan unetik bertatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauen arabera egingo dira atxikpenak eta konturako sarrerak.

Atxikpen-tasa berria araudi honetako 109. artikuluko 2. paragrafoko 3. erregelaren arabera kalkulatu da.

4. Araubide berezitik kanpo utzi diren zergadunek ezin dute berriro eskatu araubide hori ezartzerik.

6. artikulua. Zerga Administrazioarentzako jakinarazpena, eta araubidea egiaztatzea.

1. Araubidea aplikatzea aukeratu nahi bada, horretarako jakinarazpena aurkeztu behar zaio Ogasun eta Finantza Sailari.

Jakinarazpenean, beste batzuen artean, honako datu hauek jaso behar dira: langilearen identifikazioa, enplegatzailearena eta, hala denean, zergadunaren zerbitzuak hartzen dituen Espainiako entitate egoilarraren edo establezimendu iraunkorraren identifikazioa; zergaduna Espainiako lurraldean sartu den eguna; jardueraren hasiera-eguna, eta egun hori izango da edo Espainiako Gizarte Segurantzaren alta eman zen eguna edo, hala denean, zergadunari jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legedia mantentzea ahalbidetzen dioten agirietan jasota dagoena; aurreko guztiarekin batera, egingo den jardunaren azalpen zehatza ere jaso behar da.

Orobat, honako agiri hauek erantsi behar zaizkio arestian aipatutako jakinarazpenari:

- a) Espainiako enplegatzaile batekin lan harremana, arrunta edo berezia, edo estatutupeko harremana hasten denean, enplegatzaileak emandako ziurtagiria. Haren bidez, enplegatzaileak honako hauek adieraziko ditu: zergadunarekin lan harremana edo estatutupekoa duela; zergadunak Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian zehazten diren betekizunak betetzen dituela; jardueraren hasiera-eguna, Espainiako Gizarte Segurantzako altan jasota dagoena; lantokia eta haren helbidea; lan-kontratuaren iraupena eta lana benetan Espainian egingo dela.
 - b) Lekualdatzea gertatu bada zergadunaren enplegatzaileak zergadunari agindu diolako Espainiako entitate egoiliar bati edo Espainian kokatuta dagoen establezimendu iraunkor bati zerbitzuak ematera joan behar duela, orduan, entitate edo establezimendu iraunkor horrek emandako ziurtagiria erantsi behar da. Ziurtagiriaren bidez, entitateak edo establezimenduak honako hauek adieraziko ditu: zerbitzuak benetan ematen zaizkiola; zerbitzuok ematerakoan zergadunak Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian zehazten diren betekizunak betetzen dituela (enplegatzaileak lekualdatzerako emandako gutunaren kopia erantsi behar zaio horri); jardueraren hasiera-eguna, eta egun hori izango da edo Espainiako Gizarte Segurantzaren alta eman zen eguna edo, hala denean, zergadunari jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legedia mantentzea ahalbidetzen dioten agirietan jasota dagoena; lantokia eta haren helbidea; lekualdatzeko aginduaren iraupena eta lana benetan Espainian egingo dela.
2. Zerga Administrazioak, aurkeztutako jakinarazpena aztertu ondoren, eta hala badagokio, zergadunak araubide berezi hau aplikatzea aukeratu duela egiaztatzen duen agiria bidaliko dio zergadunari, jakinarazpena aurkeztu eta gehienez ere hurrengo hamar astegunetan barruan.

Egiaztagiriak balioko dio zergadunari, hain zuzen ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar dioten pertsoneri eta entitatei araubide berezi horretan dagoela justifikatzeko; horretarako, egiaztagiriaren kopia bana eman behar die.

3. Beste lurralde batetik, foraletik edo erkidetik, Bizkaira datozen eta zerga egoitza Bizkaian kokatzen duten zergadunek, araudi honetako 3. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen direnek, honako hauek egiaztatu behar dituzte: egoitza Bizkaira aldatzen duten aurre-aurreko ekitaldian titulu honetan ezartzen den araubidearen baliokidea den araubide bat aplikatzen zitzaiela; tituluan bertan ezartzen diren gainerako betekizun guztiak betetzen dituztela; eta egoitza zein lurraldetan, foral edo erkidetan, zeukaten zerga egoitza Bizkaian kokatu aurretik.

II. TITULUA SALBUETSITAKO ERRENTAK

7. artikulua. Langileak kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak.

Zergari buruzko Foru Arauko 9.4. artikuluko ezarrita dagoen kenkaria izateko, langileak benebenetan inolako loturarik ez izatea enpresarekin. Aurkako frogarik izan ezean, langileak oraindik ere lotura duela uste izango da, baldin eta kaleratu edo lana utzi eta ondorengo hiru urteetan langileak berriro zerbitzuak egiten badizkio enpresa berari edo enpresa horri loturiko beste enpresa bati, betiere, enpresa hau hari lotuta dagoenean Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, lotura definitzen bada bazkide-sozietatearen arteko harremanen arabera, partaidetza %25 edo handiagoa denean, eta %5 edo handiagoa denean, baldin eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean finantza-tresnen merkatuei buruz emandako 2004/39/EE Zuzentarauko III. tituluaren definitzen diren baloreen merkatu arautuetan negoziatzen diren baloreak badira.

8. artikulua. Literatur, arte edo zientzia sari garrantzitsuak edo giza eskubideen defentsari eta sustapenari lotutako sari garrantzitsuak salbuestea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9.8. artikuluan ezarritako salbuespenari dagokionez, sariok honako hauek izango dira:

- a) Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin lotutako sari garrantzitsua: Bizkaiko Lurralde Historikoko herri-erakundeek ondasun edo eskubideak ematea pertsona bati edo gehiagori, giza eskubideen defentsa eta sustapenaren alde egindako lana saritu edo aitortzeko, Bizkaia zuzenago eta kohesionatuago bat eraikitzen laguntzeko bada.
- b) Literatur, arte eta zientzia sari garrantzitsua: pertsona bati edo batzuei inolako kontraprestaziorik gabe ondasunak edo eskubideak ematea literatur, arte eta zientzia obren balioa edo arlo horietan oro har egindako jarduera edo lanaren meritua saritzeko edo aitortzeko.

2. Sari-emaileak ezin izango ditu saripeko lanaren edo lanen ustiaketa ekonomikoa egin, ez eta ustiaketa horretan interesatuta egon ere.

Bereziki, sariak ezin du ekarri edo exijitu saripeko lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideak lagatzea edo mugatzea, jabetza intelektualaren eta industrialaren ondoriozkoak barne.

Saritutako lanaren zabalkunde publiko hutsak ez du baldintza hori urratuko, irabazi asmorik gabe egiten bada eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

3. Nolanahi ere, deialdia egin aurretik egindako lanei edo gauzatu diren jardueri eman beharko zaie saria.

Beka eta laguntzak ez dira salbuetsitako sariak izango, ez eta, oro har, artikuluko honetako 1. paragrafoan aipaturiko arloei buruzko obra edota lanak aurretik edo aldi berean finantzatzeko diren kopuruak ere.

4. Deialdiak honako betekizun hauek bete behar ditu:

- a) Partaideei inolako mugarik ez jartzea sariaren berezko funtsarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik.
- b) Iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean», deialdi egiten duen autonomia-erkidegoaren aldizkari ofizialean edo lurralde historikoetako baten aldizkari ofizialean argitaratzea.

Salbuespena lortzeko, atzerrian deitzen diren literatur, arte eta zientzia sari garrantzitsuek edo nazioarteko erakundeek deitutakoek paragrafo honetako a) idatz-

zatian araututako betekizuna bakarrik bete beharko dute, eta, horrez gain, sariaren garrantzia eta publizitatea egiaztatu beharko dituzte.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak adierazi beharko du. Adierazpen hori, baina, eskatu egin behar da, eta horretarako, aurreko paragrafoetan zehazten diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte honako hauek:

- a) Sariaren deialdia egiten duen pertsonak edo erakundeak, oro har.
- b) Saria jasotzen duen pertsonak, baldin eta Lurralde Historikotik kanpoko deitzen diren artikuluko honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren sariak bada.

Eskabidea saria eman aurretik egin beharko da, edo, aurreko b) idatz-zatiko balizkoa bada, saria lortzen den ekitaldiko autolikidazioa egiteko araubidezko epea hasi aurretik.

Espedientea ebazteko, egokitzat jotzen diren txostenak eskatu ahal izango dira.

Gehienez ere sei hilabete egongo dira prozeduraren ebazpena jakinarazteko. Epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, eskaera ezetsizat jo daiteke.

Adierazpenak ondorengo deialdietarako balioko du, baldin eta deialdiotan salbuespena emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen ez bada.

Hurrengo deialdietan aldatu egiten bada baldintza horiek edo salbuespena aplikatzeko eskatzen diren betekizunetako bat betetzen ez bada, aldaketa edo ez-betetzea gertatzen den unetik bertatik salbuespena aplikatzeko eskubidea galdu dela adieraziko du Zerga Administrazioak.

Aurreko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren sarien kasuan, salbuespenaren adierazpena beste Zerga Administrazio batek egin badu, salbuespen horrek ondorioak izango ditu Lurralde Historikoan.

6. Zerga Administrazioak adierazten duenean saria salbuetsita dagoela, aurreko 5. paragrafoko a) idatz-zatiko pertsona eta entitateek honako hau jakinarazi beharko diote Zerga Administrazioari, saria eman den hilaren hurrengo hilaren barruan: saria zein egunetan eman den, zein den saria eta zein diren sariaren onuradun gertatu direnen identifikazio datuak.

Dagoeneko salbuetsizat jo diren sariaren salbuespena hurrengo deialdietan ere aplikatu ahal izateko, nahikoa izango da aurreko lerroaldean aipatu den jakinarazpena egitea. Jakinarazpen horrekin batera, sariaren deialdiaren oinarrien ale bat erantsi behar da, bai eta, beharrezkoa denean, artikuluko honetako 4. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den betekizuna betetzen dela egiaztatzeko agiriak ere.

9. artikulua. Kirolarientzako diru-laguntzen salbuespena .

Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 15. zenbakian ezarritakoari dagokionez, kirolarientzako diru-laguntzak salbuetsita egongo dira, urteko 60.100 euroko mugarekin, baldin eta diru-laguntza horiek baldintza bi betetzen dituzten prestakuntza-programetara doitu badaude. Bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

- a) Onuradunek aitortuta izan behar dute goi-mailako kirolariak direla, aplikatu behar den legeriaren arabera.
- b) Kirolaren arloan eskumenak dituzten erakundeek finantzatu behar dituzte, zuzenean edo zeharbidez.

10. artikulua. Nazioarteko bake misio edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotako aparteko haborokin eta prestazio publikoen salbuespena.

Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 16. zenbakian ezarritakoari dagokionez, nazioarteko bake misio edo misio humanitarioetan diharduten kideei ordaindutako izaera publikoko kopuruak salbuetsita egongo dira, baldin eta ordaindu zaizkin kopuru honelakoak badira:

- a) Nazioarteko bake misioetan edo nazioarteko giza laguntzako misioetan parte hartzeagatik ordaindu zaizkien aparteko haborokin guztiak.
- b) Nazioarteko bake misio edo misio humanitarioan jasan dituzten kalte pertsonalengatik ordaindu zaizkien kalte-ordainak edo prestazioak.

11. artikulua. Salbuespena, atzerrian egindako lanen zioz hartutako lan etekinatarako.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 17. zenbakian ezarritakoaren arabera, atzerrian egindako lanaren etekinak Zergatik salbuetsita daude, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badira:

- 1.a. Lan horiek Espainian egoiliarra ez den enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian egoitza duen establezimendu iraunkor batentzat egitea. Bereziki, lanak hartzen dituen entitateak lotura badauka langilearen entitate enplegatzailearekin edo langilearen zerbitzuak hartzen dituen entitatearekin, lanak entitate ez-egoiliarrantzat egindakotzat joko dira, baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluko 5. paragrafoan ezartzen denaren arabera, entitate ez-egoiliarrari talde barneko zerbitzu bat eman zaiola ulertu badaiteke, zerbitzu horrek entitate hartzaileari abantaila edo onuraren bat dakarkiolako edo ekar diezaiokeelako.
- 2.a. Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzerako izaera edo izaera berdina duen zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat jota ez egotea. Betekizun hori betetzat joko da, baldin eta lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena badauka sinatuta Espainiarekin eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badu.
2. Salbuespenaren gehieneko kopurua urteko 60.100 euro izango da. Atzerrian egindako lanei dagozkien ordainsariak kalkulatzeko, kontuan hartu behar da langileak benetan zenbat egun eman dituen atzerrian, bai eta atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak zein diren ere. Atzerrian egindako lanengatik egunean sortu diren etekinen zenbatekoa kalkulatzeko, lan horiei dagozkien berariazko ordainsari berezietatik aparte, banaketarako irizpide proportzionala erabiliko da, urtearen egun kopuru osoa kontuan hartuz.
3. Atzerrian ari diren zergadunek ezin dute bateratu salbuespen hau zerga-ordainketatik baztertuta dauden gaindikinen araubidearekin (araudi honetako 13.A.3.b) artikuluan ezarri da), haien zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak gaindikinen araubidea aplikatzea aukeratu ahal izango du salbuespen honen ordean.

12. artikulua. Lurraldeko herri-administrazioek emandako laguntza publikoen salbuespena

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9.28 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira lurraldeko administrazio publikoek ematen dituzten laguntza publikoak, jarraian aipatutako araudietan eta laguntza programa edo planetan edo horien ordekoetan araupetzen direnak:
 - a) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa.
 - b) 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa.

- c) 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duena.
- d) 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.
- e) 118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituena, IV. kapituluaren ezartzen diren laguntzak izan ezik, laguntzen onuradunak zuzeneko zenbatespen metodoa erabiltzen badu bere ekonomi jardueraren etekin garbia zehazteko.
- f) 262/2003 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, gizarteratze zentroetan sartzeko sistema eta banakako diru-laguntzak araupetu dituena.
- g) 316/2002 Dekretua , abenduaren 30ekoa, «Etxebizitza. Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, errentariei dagokienez.
- h) Agindua, 2007ko otsailaren 15ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzetarako deia egin eta diru-laguntzak ematea arautzen duena.
- i) Agindua, 2010eko abenduaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza-neurriari buruzkoa.
- j) Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriari buruzkoa.
- k) 238/2006 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, ezinduentzako 2007. urteko diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi duena.
- l) Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 23ko 64/2000 Foru Dekretua , gizarteratzeko laguntza bereziak araupetzen dituena.
- m) Gazteen emantzipaziorako oinarritzako errenta, hau da, ohiko etxebizitza iraunkorraren alogera ordaintzeko errenta, azaroaren 2ko 1.472/2007 Errege Dekretuaren itzalpean.
- n) ...
- o) Abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua, inoren menpeko adinekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunpeko eguneko zentroetan sartzeko sistema; inoren menpeko adinekoak eguneko zentroetako plaza itunduetan nahiz hitzartuetan sartzeko sistema; eta inoren menpeko adinekoak eguneko zentroetako plaza ez-itunduetan edo ez-hitzartuetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen duena.
- p) 63/2001 Foru Dekretua, apirilaren 3koa, adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itunduetan sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman araupetu dituena.
- q) Abenduaren 7ko 196/2005 Foru Dekretua, emakumearen abegi-zentroan sartzeko baldintzak eta norbanakoaren dirulaguntzak arautzen dituena.
- r) Bizkaiko Foru Aldundiaren 92/2007 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, 2007an zehar etorkizun handiko kirolarientzako diru-laguntzak nola eman arautzen duena.
- s) Ibilgailu berriak erosten laguntzeko 2000 E eta MOTO E Planak, 2000 Euskadi Plana eta xede berarekin ezartzen dituztenak gainerako autonomia erakundeek edo xede berarekin ordeztzen dituztenak.

- t) + Euskadi 09' Plana, bertan jasotako Renove planei dagokienez, eta xede berarekin ordeztzen dituztenak.
 - u) Lurralde administrazio publikoek ondasun berriak eskuratzeko edo instalazioak berritzeko ematen dituzten gainerako laguntza publiko guztiak, aurreko s) eta t) letretan adierazitako xede bera dutenak.
 - v) 159/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 15ekoa, bide azpiegituren sareko atal batzuetako bidesarien zenbatekoak finkatu dituena.
 - w) 160/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 15ekoa; honen bitartez Herri Lan Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren AP-8 autobidearen Bizkaiko tartearen erabiltzaileei (pertsona fisikoak) lehia askearen araubidean dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi ziren.
 - x) Agindua, 2010eko azaroaren 3koa, Kulturako sailburuarena, «Kultura Bonoa» garatzeari eta sustatzeari buruzkoa.
 - y) 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria- egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.
2. Orobat, salbuetsita egongo dira beste lurralde historikoek salbuetsita uzten dituzten antzeko laguntza guztiak.

III. TITULUA ERRENTAREN ZEHAZTAPENA

I. KAPITULUA LANAREN ETEKINAK

13. artikulua. Joan-etorri gastuetarako eta mantenu eta egonaldi gastu arruntetarako sariak eta esleipenak.

A) Erregela orokorrak:

1. Lanaren etekintzat hartuko dira, bidaiari-gastuetarako sari eta esleipenak, salbu eta joan-etorrikoak, eta ostalaritzako establezimenduetako mantenu eta egonaldiako arruntak direnak, baldin eta artikulua honetan adierazten diren betekizun eta mugak betetzen badituzte.
2. Joan-etorri gastuetarako esleipena. Enpresak edo enplegatzaileak lantegi, lantoki, bulego edo laneko zentrotik kanpora joan behar duen enpleguaren edo langilearen joan-etorri gastuak konpentsatzeko erabiltzen dituen diru-kopuruak kargatik salbuetsiko dira, baldin eta joan-etorri hori lana beste toki baten egiteko egiten bada eta honako baldintza eta zenbateko hauek ere betetzen badira:
 - a) Enpleguak edo langileak herri garraiobideak erabiltzen baditu, gastuaren zenbatekoa faktura baten bidez edo antzeko agiri batez frogatu behar da.
 - b) Bestelakoetan, honako kopuru hau izango da: 0,29 euro zenbatuko da egindako kilometro bakoitzeko, baldin eta joan-etorria egin dela frogatzen bada, gehi justifikatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.
3. Mantenu eta egonaldiako gastuetarako esleipenak. Enpresak edo enplegatzaileak jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntak konpentsatzeko erabiltzen dituen diru-kopuruak kargatik salbuetsiko dira,

baldin eta diru-kopuru horiek hartzailearen ohiko lanlekutik eta haren egoitzatik kanpoko beste udalerrri baten egindako gastuengatik sortu badira.

Jarraiko b) letran ezarriko diren kasuetan izan ezik, bederatzi hilabete baino gehiagoko epealdi jarraituan zehar egindako lekualdaketa eta egonaldia denean, orduan esleipen horiek ez dira kargatik salbuetsiko. Horretarako, ez da deskontatuko oporretan, gaixorik edo destinoa aldatzea ez dakarten bestelako abarretan emandako denbora.

a) Honako hauek bakar-bakarrik joko dira hotel, jatetxe eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntetarako esleipentzat:

1.a. Gaua ematen denean ohiko lanlekua eta hartzailearen egoitzakoa ez beste udalerrri baten, orduan ondokoak izango dira:

- Egonaldi gastuengatik, frogatzen diren kopuruak. Errepide bidezko merkatugaien garraioan ari diren gidariek ez dute zertan frogatu eguneko 15 eurotik beherako egonaldi gastuak, Espainiako lurraldearen barruan, edo eguneko 25 eurotik beherakoak, bidaiak atzerrira direnean.
- Mantenu gastuengatik, 53,34 euro egunean, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo 91,35 euro egunean, bidaia atzerrira egin bada.

2.a. Hartzaileak ez badu gaua igaro lan egin ohi duen udalerritik eta bizi ohi den udalerritik kanpo, eguneko 26,67 eurotik gorakoak ez diren mantenu gastuetarako esleipenak, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo eguneko 48,08 eurotik gorakoak ez direnak, bidaia atzerrira egin bada.

Hegazkin konpainietako hegazkin-langileen kasuan, mantenerako gastu arruntetarako esleipen gisa hartuko dira eguneko 36,06 euro arteko zenbatekoak, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo eguneko 66,11 euro artekoak, bidaia atzerrira egin bada. Egun berean inguruabar biak gertatzen badira, egindako hegaldi kopuru handienari dagokion zenbatekoa aplikatuko da.

Aurreko lerroaldeetan adierazitakoari dagokionez, ordaintzaileak bidaiaren egun eta tokia egiaztatu beharko ditu, bai eta bidaia horren arrazoi edo zioa ere.

b) Honako kopuru hauek kargatik salbuetsitako saritzat joko dira:

1.a. Espainiako funtzionario publikoek, destinoa atzerrian dutenek, indarrean dirauen legeria ezartzearen ondorioz eta zerbitzuaren ziozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuko 25. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako kalte-ordaina dela eta destinoa Espainian izanez gero lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean jasotzen duten gaindikina.

2.a. Herri Administrazioaren zerbitzupeko langileek, destinoa atzerrian dutelarik, destinoa Espainian izanez gero soldata, hiru urteko, osagarri edota pizgarrien zioz lotuko lituzketen ordainsari guztien gainean hartzen duten gaindikina. Horretarako, ordainsarien arloan eskumena duen organoak erabakiko ditu langile horiek destinoa Espainian izanik jasoko lituzketen ordainsarien parekatzeak.

3.a. Beste herri administrazio batzuen zerbitzupeko funtzionarioek eta langileek hartzen duten gaindikina, baldin eta haren helburua destinoa atzerrian duten funtzionarioen ordainsarien araubidea arautzen duen urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuko 4, 5 eta 6. artikuluetan araututakoa bada, edo ordainsarien parekatzea baino gehiago ez bada, hurrenez hurren.

Modu berean tratatuko dira Euskadiren atzerriko ordezkarietzan ari diren euskal administrazio publikoaren zerbitzupeko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen gaindikinak..

- 4.a. Enpresetako enplegatuek, destinoa atzerrian dutenek, destinoa Espainian izanez gero lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean hartzen duten gaindikina, betiere, ordainsari horiek honako hauek direla-eta jaso behar dituzte: soldatak, lansariak, antzintasuna, aparteko ordainketak —mozkinenei dagokiena barne—, familia laguntza edo beste edozein kontzeptu.

Letra honetan ezarritakoa ezin da bateratu atzerrian egindako lanen zioz hartutako lan etekinatarako araudi honetako 11. artikulua ezartzen duen salbuespenarekin.

4. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako erregimena aplikagarria izango zaie, orobat, lan zentro mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan lan egiteko kontratatzen diren langileen joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako esleipenei, beti ere langilea bizi ohi den udalerrira ez beste batera joateko ematen baldin badira.
5. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak artikulua honetan Zergaren kargatik salbuetsi diren zenbatekoak berrikus ditzake.
6. Artikulu honetan ezarritako mugen gaineko joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruak kargapean izango dira lanaren etekin gisa.

B) Erregela bereziak:

1. Enpresek beren-beregi medeatzen ez badizkiete joan-etorri eta mantenu gastuak zerbitzuak egiten dizkietenei, orduan menpeko lan harreman berezien ondorioz lanaren etekinak lortzen dituzten zergadunek sarrerak gutxitu ahal izango dituzte euren etekin garbiak zehaztean, baldin eta joan-etorriak egin dituztela frogatzen badute. Hona kopuruak:

a) Joan-etorri gastuen zioz:

- Garraio publikoa erabiltzen denean, faktura baten bidez edo agiri baliokide baten bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.
- Bestelakoetan, 0,29 euro egindako kilometro bakoitzeko, gehi frogatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.

b) Mantenu gastuen zioz, 26,67 edo 48,08 euro egunean, joan-etorria Espainiako lurraldearen barruan edo atzerrira egin den kontuan hartuta.

Horretarako, egonaldi gastuak nahitaez medeatu behar ditu enpresak, eta artikulua honetako A letrako 3. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritakoak eraenduko ditu.

2. Kargatik salbuetsita egongo dira zergadunari lanpostua beste udalerrira batera aldatzearen zioz ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin eta, batetik, lekualdaketa horrek egoitza aldatzea badakar eta, bestetik, kopuruok zergadunak eta beraren senideak lekualdaketa egin beharreko joan-etorrietarako eta mantenu gastuetarako eta altzari eta tresnak lekutik aldatzeko badira.
3. Hauteskunde-mahaietako kideek jasotzen dituzten kopuruak kargatik salbuetsita daude, aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera.

14. artikulua. Denboran zehar nabarmen modu irregularrean lortzen diren lan etekinak; zatika hartutako etekinak, eta sorrera-aldiaren zehaztapena .

1. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritako %50eko integrazio-portzentajea ezartzeko, jarraian adieraziko direnak soilik hartuko dira denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako lanaren etekintzat, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

- a) Enpresak enplegatuei, beste lanpostu batera aldatzeagatik, ordaindutako kopuruak, baldin eta kopuruok araudi honetako 13. artikuluan ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte.
- b) Gizarte Segurantzaren edota klase pasiboen araubide publikoen ondoriozko kalte-ordainak, bai eta zurtzen erakundeek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak ere, elbarritasunik ez dakarten lesioen kasuan ematen direnean.
- c) Elbarritasunik edo ezgaitasun iraunkorrik, gradu guztietan, ez dakarten lesioen zioz enpresek eta herri izakiek ordaintzen dituzten prestazioak.
- d) Langile edo funtzionarioen heriotzaren eta ehorzketa gastuen ziozko prestazioak, hala publikoak nola zurtzen erakundeek edo antzeko beste erakunde batzuek, enpresek eta herri izakiek ordaintzen dituztenak, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 23. zenbakian xedatutakoaren arabera salbuespenaren gehieneko muga gainditzen dutenak.
- e) Soldaten osagarriak, pentsioak edo iraupen mugagabeko urtealdiak konpentsatu edo zuzentzeko, nahiz lan baldintzak aldatzeagatik ordaintzen diren zenbatekoak.
- f) Enpresak langileei lan-harremanak elkarren adostasunez suntsiarazteagatik ordaintzen dizkien kopuruak.
- g) Literatur, arte edo zientzia sariak, baldin eta ez badute salbuespenik zerga honetan. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkioak ere.

Halaber, dauzkaten baldintza objektiboak direla-eta integrazio hori behar duten jarduerak egitearen ondorioz lanaren etekinak lortzen badira, paragrafo honetan ezartzen den portzentajea aplikatuko da, ezartzen diren zehaztapen eta baldintzetan.

- 2. Lanaren etekinen sorrera-aldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekin horiek zatika jasotzen badira, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiko lehenengo lerroaldean ageri diren %60 edo %50eko integrazio-portzentajeak bakarrik aplikatu ahal izango dira, baldin eta sortzapen-urteen kopurua, datatik datara zenbatuta, zergaldien kopuruaz zatitzean lortzen den emaitza bi edo bost baino handiagoa bada, hurrenez hurren.
- 3. Sorrera-aldia bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren, epealdia zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela ulertuko da.

15. artikulua. Lanaren etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio-portzentajeak.

- 1. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluen 2. paragrafoko b) idatz-zatian ezarritako %60ko integrazio-portzentajea Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letran ezartzen diren honako kapital-prestazio hauei aplikatuko zaizkie (foru arau horretako 6. zenbakian ezartzen direnak aparte utzita):
 - Kontingentzia bakoitzarengatik jasotzen den lehenengo prestazioari, baldin eta lehenengo ekarpena egin zenetik bi urte baino gehiago igaro badira. Elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik prestazioetan ez da eskatuko bi urteko epe hori.
 - Kontingentzia beragatik prestazioa jaso denetik bost urte igaro ondoren jasotzen diren prestazioei, baldin eta ekarpenak aldian aldikoak izan badira, hain zuzen ere, hurrengo 4. paragrafoan ezarri bezala.

Horretarako, lehenengo prestaziotzat hartuko da kontingentzia bategatik zergaldi bakarrean kapital gisa jasotako kopuru guztien batura. Erregela bera aplikatuko zaie aurreko lerroaldean aipatzen diren egoeretan jasotzen diren hurrengo prestazioei.

Orobat, paragrafo honetan ezartzen den tratamendu bera emango zaie gaixotasun larriagatik eta iraupen luzeko langabeziagatik jasotzen diren kopuruei ere.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikulua a) letran ezarritako prestazio mistoak direnean, hau da, mota guztietako errentak eta kapital kobrantzak bateratzen dituztenak, 19. artikuluko 2. paragrafo b) eta c) idatz-zatietan ezarritako portzentajeak kapital modura kobratzen diren kopuruei bakarrik aplikatuko zaizkie.

Bereziki, prestazioak errenta gisa kobratzen hasita, errenta aurreraturik berreskuratzen bada, orduan, lortzen den etekina kasu bakoitzean aplikatu beharreko integrazio-portzentajea aplikatzearen ondorioz lortuko da; portzentajeok prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratu zenean zeukan antzintasunaren arabera dira.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafo b) idatz-zatian jasotzen den %60ko integrazio-portzentajea berdin aplikatuko zaio kontigentzia horiengatik baino beste zio batengatik jasotzen den lehenengo kopuruari, bai eta bost urte igarotakoan jasotzen diren kopuruei ere, baldin eta ordaindutako ekarpenak aldian aldikoak izan badira, hain zuzen ere, artikuluko 4. paragrafoan ezarri bezala.

Horri dagokionez, zergaldi bakarrean kapital gisa jasotako zenbateko guztien batura hartuko da jasotako lehenengo kopurutzat. Erregela bera aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aipatutakoaren arabera jasotzen diren kopuruei.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafo b) idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, ordaindutako ekarpenak aldian-aldian eta erregulartasunarekin egin edo ekarri direla pentsatuko da batez besteko iraupena lehen ekarpena egin denetik lehen kopurua hartu arte igarotako urte kopuruaren erdia baino handiagoa bada.

Ekarpenen iraunaldiaren batez besteko epealdia lortzeko honako eragiketa hau egin behar da: ekarpen bakoitza bere iraunaldiko urteen kopuruaz biderkatu ondoren, biderketa horien guztien batukaria zati ordaindutako ekarpenen batura osoa egin behar da.

5. Prestazioei lotuta dauden pertsonen egotzi zaizkien aseguru kolektiboetarako ekarpenak egiten badira, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafo c) idatz-zatiko a) eta b') letran ezarritako %25eko portzentajea aplikatzeko, kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primak aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoarekin ordaindu direla ulertuko da, baldin eta lehenengo prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro badira eta primen batez besteko lau urte baino gehiago iraun badute.

Primen iraunaldiaren batez besteko epealdia lortzeko honako eragiketa hau egin behar da: prima bakoitza bere iraunaldiko urteen kopuruaz biderkatu ondoren, biderketa horien guztien batukaria zati ordaindutako primen batura osoa egin behar da.

6. Prestazioei lotuta dauden pertsonen egotzi zaizkien aseguru kolektiboetarako ekarpenak egiten badira, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafo c) idatz-zatiko b) letran ezarritako %25eko integrazio-portzentajea aplikatu ahal izango zaie edozein lanen ondorioz ematen diren balia ezintasun erabatekoaren eta iraunkorraren zein balia ezintasun handiaren ziozko kalte-ordainei aplikatu ahal izango zaie, eta bi kasuetan pentsio planei eta fondoei buruzko arautegia bete beharko da.

7. Prestazioak kapital gisa kobratzen direnetan, baldin eta prestazio horiek Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian jasotzen diren bizitza aseguruetatik badatoz, eta aseguruaren primak aldizkakoak edo apartekoak badira, orduan, lortu den etekin osoan prima bakoitzari zein zati dagokion zehazteko, etekin osoa honako zatiketa hau egitetik ateratzen den haztapan koefizienteaz biderkatuko da:

- Zenbakitzailan, biderketa bat, hain zuzen ere, prima bakoitza eta prima hori ordaindu zenetik pertzepzioa kobratzen den arte igarotako urte kopuruaren arteko biderketa.

- Izendatzailean, batuketa bat, hain zuzen ere, prima bakoitza prima hori ordaindu zenetik pertzepzioa kobratzen den arte igarotako urte kopuruaz biderkatzean lortzen diren emaitzen batuketa.

8. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoari dagokionez, aseguru-entitateak banakatuko ditu ordaindutako kopuruetan zein zati dagokion ordaindutako prima bakoitzari.

16. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio-portzentajeak aplikatzeko mugak.

Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren akzioen gaineko aukerak baliatzeagatik lanaren etekinak sortzen badira, %60ko edo %50eko integrazio-portzentajeak ez zaizkio aplikatuko 20.000 euro eta etekina sortu den epealdiko urteen kopurua biderkatzean lortzen den emaitza gainditzen duen etekinaren zatiari.

Aurreko lerroaldean aipatzen den zenbatekoa gaindituz gero, gaindikina osorik zenbatuko da

Horretarako, ulertuko da lanaren etekin horien sorreraaldia bi edo bost urte baino handiagoa dela eta etekinok ez direla aldizka edo noizean behin lortzen, baldin eta eskubideak bakarrik erabiltzen badira haiek eman ziren egunetik aurrera bi edo bost urte igaro ondoren, hurrenez hurren, eta, gainera, eskubideok ez badira urtero ematen.

II. KAPITULUA EKONOMI JARDUEREN ETEKINAK

LEHENENGO ATALA ARAU OROKORRAK

17. artikulua. Ekonomi jarduera bati lotutako ondare-elementuak.

1. Jarraian adieraziko diren elementuak zergadunak egiten duen ekonomia jarduera bati lotutako elementutzat joko dira, elementuon titularrak, hala denean, ezkontide biak edo izatezko bikoteko kide biak diren aintzat hartu gabe; elementu horiek honako hauek dira:
 - a) Zergadunaren jarduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.
 - b) Jardueraren zerbitzupeko pertsonalaren zerbitzu ekonomiko eta soziokulturaletarako dauden ondasunak; ez dira lotutzat joko, ordea, aisia eta jolaserako ondasunak edo, oro har, ekonomi jardueraren titularraren bakarreko erabilerakoak.
 - c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare-elementu guztiak. Ez dira inoiz ere horrelakotzat joko entitate baten fondo propioetako partaidetza eta gainerakoiei egindako kapital-lagapena ordezkatzan duten aktiboak.
2. Subjektu pasiboak haren xedeetarako erabiltzen dituenak bakarrik hartuko dira ekonomi jarduera bati afektatutako ondare-elementutzat. Ez dira afektatutzat hartuko:
 1. Aldi berean ekonomi jardueretarako eta behar pribatuetarako erabiltzen direnak, beharrezkotarako egiten den erabilera osagarria eta guztiz garrantzigea denean izan ezik, artikuluko honetako 4. zenbakian zehazten denaren arabera.
 2. Zergadunaren titulartasunekoak direlarik, zergadunak eraman egin behar dituen ekonomi jardueraren kontabilitate edo erregistro ofizialetan agertzen ez direnak, kontrakoaren frogarik ezean.
 3. Jardueraren xederako zati baten bakarrik erabiltzen diren ondare-elementuak direnean, lotura harako jardueran benetan erabiltzen den zatiari mugatzen zaiola ulertzen da. Honetara, aparteko aprobetxamendurako eta gainerakoetatik independentea den aprobetxamendurako erabil daitezkeen ondare-elementuen zatiak bakarrik hartuko dira afektatutzat. Ondare-elementu zatiezkin ezin dira inoiz zati batez afektatu.

4. Behar pribatuetarako modu osagarrian eta garrantzizabeen erabilitzat hartuko dira, eskuratuak izan eta ekonomi jarduera egiteko erabiltzen diren ibilgetuko ondasunak, baldin eta, lanegun edo lanorduez beste, zergadunaren beraren erabilerarako erabiltzen badira, bitartean jarduera horren erabilera geldiarazita dagoenean.

Zenbaki honetako 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko automobilei eta haien erremolkei, motorrei eta motozikletei, Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko 6. erregelari ezarritakoaren mende geratzen baitira, ez eta laketontzietan edo itsas kiroletako ontzietan ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan era horretako ondare-elementuentzat ezarritakoaren mende geratzen baitira.

18. artikulua. Amortizazio askatasuna.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 50. artikuluan araupetzen den amortizazio askatasunaren onurari heldu ahal izango dion zenbatekoa, foru arau hori indarrean sartu eta gero eskuratuak diren ibilgetu materialeko elementuei dagokienez, eskuraketa prezioaren eta gutxieneko amortizazio kuoten arteko diferentzia izango da edo, hala denean, benetan egindako amortizazio kuoten arteko diferentzia.

Ekitaldiren batean edo batzuetan, etekin garbia zehazteko, amortizazio kuoten kengarritasuna beren-beregi onartzen ez duten metodoak edo modalitateak erabiltzen badira, benetan amortizaturiko kuotatzat hartuko dira epealdi horietan dagozkien gutxienezko amortizazioak.

Horretarako, gutxieneko amortizazio kuotak izango dira kasuan kasuko ondare-elementuentzat Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudian adierazten den gehieneko epealdiari dagokion koefizientea ondare-elementu horri aplikatuz lortzen direnak.

19. artikulua. Eragiketa bolumena.

Araudi honetan zehazten denaren ondorioetarako, eragiketa bolumena izango da zergadunak bere jardunean egindako ondasun- eta zerbitzu-emateengatik lortutako kontraprestazioen gutzirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarua bazter utzita, halakorik egonez gero.

20. artikulua. Ekonomi jarduerari loturiko ondare-elementuen eskualdaketan agerian jartzen diren ondare-irabazien kalkulua.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak burutzen dituzten ekonomi jarduerari loturiko ondare-elementuen eskualdaketan agerian jartzen diren ondare-irabaziei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 15. artikuluko 11. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaienean, honako erregelak hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ondare-elementu bat ekonomi jarduera bati lotzen bazaio elementua eskuratu baino geroagoko uneren batean, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 15. artikuluko 11. paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, elementua jarduerari lotzen zaion unean hartuko dira eskuraketa unetzat.
- b) Zergadunak jardueraren etekin garbia zehazteko amortizazioaren berriazko kenkarirako eskubidea ematen ez duen metodo edo modalitatearen arabera kalkulatu duten zergaldietan, dena delako ondare-elementuari Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudiak aipatutako gehieneko amortizazio epearen koefizientea aplikatuz ateratzen dena hartuko da amortizaziotzat, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 15. artikuluko 11. paragrafoa a) idatz-zatian xedatzen duena aplikatzeko.

21. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan jasotzen den aparteko mozkinen berrinbertsioa aplikagarria gertatzen denean, berrinbertitu diren ondare-elementuek bost urtez egon beharko dute ondarean, berrinbertsioa egiten denetik aurrera, eta hiru urtez ondasun higigarrien kasuan, non eta haien erabilgarritasun aldia, Sozietateen

gaineko Zergari buruzko Araudiak jasotzen duen gehieneko amortizazio epea aplikatuz kalkulatua, txikiagoa ez den. Beharrezkoa izango da, dena den, ondare-elementu horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek garatutako ekonomi jardueri lotuta egotea eta zergadun horiek etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen duten metodo edo modalitateak aukerarik ez ematea amortizazioen berariazko kenkaria egiteko.

2. Baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan aipatutako berrinbertsiorako epean subjektu pasiboak eskualdaketaren zenbatekoaren besteko kopurua ez berrinbertitzea erabakitzen bada, integratu gabe utzi duen errentaren zatia errenta hori lortu zuen zergaldiari egotzi behar dio.

Aurreko lerroaldean adierazitakoaren arabera, zerga-oinarrian sartu behar den errentari dagokion kuota osoaren zatia sortzen diren berandutza interesekin sartuko da, halakorik sortuz gero, erabakia hartzen den zergaldiari dagokion kuotarekin batera.

3. Berrinbertsioa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan zehaztutako epean egiten ez bada, zergadunak errenta hori lortu den zergaldiari egotzi beharko dio integratu gabeko errenta-zatia.

Aurreko lerroaldean adierazitakoaren arabera, zerga-oinarrian sartu behar den errentari dagokion kuota osoaren zatia sortzen diren berandutza interesekin sartuko da, halakorik sortuz gero, berrinbertitzeko epea amaitzen den zergaldiari dagokion kuotarekin batera.

22. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak enpresa txiki eta ertaintzat hartzea.

1. Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek ekonomi jarduera bat egiten bada, jarduera horri dagozkion etekinak ekonomi jardueraren etekin izango dira jarduerari loturiko produkzio bideak edo giza baliabideak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean bere kabuz antolatzen esku hartzen duten bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideentzat.

Dena den, esleitutako etekinak kapital etekintzat hartuko dira bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ez badute antolaketa horretan esku hartzen eta entitatean duten partaidetza kapitala jartzera bakarrik mugatzen bada. Kasu horretan, eta kontrakoa frogatzen ez den bitartean, ulertuko da gehienez ere jarritako kapitalaren %15 esleiri daitekeela.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VIII. tituluaren II. kapituluaren enpresa txiki eta ertainen araubide bereziaz xedatzen dena aplikatzearen ondorioetarako, eta haren 49. artikuluan ezarritako betekizunak betetze aldera, bakar-bakarrik entitate horiek egindako ekonomi jardueren multzoa hartuko da kontuan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko etekin garbia kalkulatzeko aurreikusten dituen modalitate bakoitzeko erregela bereziekin bat etorri gero.

23. artikulua. Denboran era nabarmen irregularrean lortutako ekonomi jardueren etekinak, eta zatika jasotako etekinak

1. Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 7. paragrafoan ezarritako %50eko integrazio-portzentajea aplikatzeko, jarraian adieraziko direnak baizik ez dira hartuko denboran era nabarmen irregularrean lortutako ekonomi jardueren etekintzat, baldin eta zergaldi bakarrari egozten bazaizkio:

- a) Ibilgetuaren elementu amortiza ezinak eskuratzeko diru-laguntzak.
- b) Ekonomi jardueri uzteagatik jasotako kalte-ordainak eta laguntzak.
- c) Zerga honetan salbuespenik ez duten literatur, arte edo zientzia sariak. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkioak ere.
- d) Iraunaldi mugagabeko ekonomi eskubideen ordezkio jasotako kalte-ordainak.

2. Bi urtetik gorako sorrera-aldia duten ekonomi jardueren etekinak zatika jasotzen badira, bakar-bakarrik aplikatu ahal izango dira Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 7. paragrafoan ezarritako %60 edo 50eko integrazio-portzentajeak, baldin eta sorrera-aldiko urte kopurua, datatik datara zenbatuta, zatikapen-zergaldi kopuruaren artean zatitzearen ondoriozko zatidura bi edo bost urtetik gorakoa bada, hurrenez hurren.
3. Sorrera-aldia bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren epealdia zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela ulertuko da.

24. artikulua. Ekonomi jardueren etekinak zehazteko metodoak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekonomi jardueren etekinak zehazteko honako metodo hauek daude:
 - 1.a. Zuzeneko zenbatespena. Honako modalitate hauek ditu:
 - Arrunta.
 - Erraztua.
 - 2.a. Zenbatespen objektiboa. Honako modalitate hauek ditu:
 - Zeinuak, indizeak edo moduluak.
 - Hitzarmenak.
2. Zergadunek aurreko metodoak aplikatzean kontuan hartu behar dituzte aplikatzeko dauden mugak, bateraezintasunari eta uko egiteari buruzko erregelak, eta hurrengo artikuluetan ageri diren xedapenak.

BIGARREN ATALA

ZUZENEKO ZENBATESPENAREN METODOKO MODALITATE ERRAZTUA APLIKATZEA

25. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuaren arau orokorrak.

1. Ekonomi jarduerak burutzen dituzten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikatu ahal izango dute beren jardueren etekin garbia zehazteko, baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badituzte:
 - a) Zergadunak egindako ekonomi jarduera guztietako, etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez zehaztu behar den jardueretakoa kontuan hartu gabe, eragiketen kopuru osoa urtean 600.000 mila euro izatea, gehienez.
 - b) Zergadunak bere jarduera guztien etekin garbia zehazteko beren-beregi aukeratu behar du modalitate hau aplikatzea, araudi honetako 29. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
2. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikatzeko muga gisa ezartzen den eragiketa-kopurua modalitate hau aplikatu behar den urtearen aurre-aurreko urteko eragiketa-kopurua da.

Aurre-aurreko urtean jarduerarik burutu ez bazen, modalitate honen arabera zehaztuko da etekin garbia, baldin eta zergadunak modalitatea hori aplikatzea aukeratzen badu hurrengo artikuluan ezartzen denaren arabera.

Aurre-aurreko urtean jarduera bat hasi bazen, eragiketa-kopurua urtearekin parekatuko da.

26. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuaren aukera.

1. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikatzeko aukera egin behar da aukera horrek ondorioak izan behar dituen urteko apirilaren 25a baino lehen. Jarduera hasten bada, aukera hori zentsuan alta hartzeko aitorpenean adierazi behar da.
2. Artikulu honetako 1. paragrafoko aukerak modalitate hau aplikatu daitekeen hurrengo urteetan izango du indarra, salbu eta zergadunak, 1. paragrafo horretan ezarritako epean, beren-beregi ezeztatzen badu zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua ezartzeko aukera.
3. Aurreko paragrafoetan aipatu diren zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuaren aukera eta aukeraren ezeztapena egiteko, zentsu-aitorpenerako 036 eredia erabili behar da.

27. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.

1. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikagarria izango da Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan aipatzen diren entitateek egiten dituzten ekonomi jardueren etekin garbia zehazteko, baldin eta:
 - 1.a. Entitateko bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak zerga honen zergadunak diren pertsonak fisikoak badira.
 - 2.a. Entitateak araudi honetako 25. artikuluan ezartzen diren eskakizunak betetzen baditu.
2. Modalitate erraztua aplikatzeko aukera eta modalitate hori aplikatzeko aukera ezeztatzea bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek egin beharko dute, araudi honetako 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.
3. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzaren inguruabarrak edozein direla ere aplikatuko da modalitate erraztua.
4. Kasu bakoitzean aplika daitezkeen arau edo itunen arabera esleitzeko zaie etekin garbia bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei, eta Administrazioak, modu sinesgarrian, arau edo itun horien berririk ez badu, hainbana esleitzeko zaie.

28. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren arteko bateraezintasuna.

1. Jardueraren baten etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntaren bidez zehazten duten zergadunek gainerako jarduera guztien etekin garbia ere modalitate arruntaren bidez zehaztu behar dute.

Alabaina, urtean zehar ekonomi jardueraren bat hasten bada, aurreko lerroaldean ezartzen den erregelak ez du urte horretarako eraginik izango aipatu jarduerari dagokionez.

2. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikatzeko eskakizunak bete eta beren jardueretakoren baten etekin garbia aipatu modalitatearen arabera zehaztu nahi duten zergadunek modalitate hori aplikatzea aukeratu beharko dute beren jarduera guztietarako.

HIRUGARREN ATALA
ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN METODOKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUEN
MODALITATEA

1. AZPIATALA
ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN METODOKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUEN
MODALITATEA APLIKATZEA

29. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen arau orokorrak.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen ekonomi jardueretako bakoitzari aplikatuko zaio.
2. Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea berariaz onesten den foru aginduan ageri diren ekonomi jardueretako bakoitzari aplikatuko zaio, jarduera hori bakarrean hartuta.

30. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitaterako aukera.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitaterako aukera egin behar da aukera horrek ondorioak izan behar dituen urteko apirilaren 25a baino lehen. Jarduera hasten bada, aukera hori zentsuan alta hartzeko aitortpenean adierazi behar da.
2. Artikulu honetako 1. paragrafoko aukerak modalitatea aplikatu daitekeen hurrengo urteetan izango du indarra, salbu eta zergadunak, 1. paragrafo horretan ezarritako epean, berenberegiz ezeztatzen badu zeinu, indize edo moduluen modalitaterako aukera.
3. Aurreko paragrafoetan aipatutako zeinu, indize edo moduluen modalitatearen aukera zein aukeraren ezeztapena egiteko, zentsu-aitortpenerako 036 eredia erabili behar da.

31. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatetik baztertzea.

1. Zeinu, indize edo moduluak urtero onesten dituen foru aginduan ezarritako magnitudeen mugak gainditu izana zeinu, indize edo moduluen modalitatetik baztertzeko zioa izango da.

Baztertzeak inguruabar hori gertatzen den urtearen ondo-ondoko urtean izango du eragina.

2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatetik baztertzeak ekonomi jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntaren bitartez zehaztu beharra ekarriko du, salbu eta zergadunak modalitate erraztuaren aukera hartzen badu, araudi honetako 27. artikuluan xedatu denaren arabera.

32. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatearen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arteko koordinazioa.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztu bereziari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko eginez gero, zergadunak ezin izango du, burutzen dituen ekonomi jarduera guztietarako, zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzea aukeratu edo, hala denean, aukera hori ezeztatu.
2. Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bere ekonomi jardueren etekin garbia zehazteko erabiltzen duen metodoak edo modalitateak ez du eraginik izango zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zerga zehazteko araubideei dagokienez egin ditzakeen aukeretan.

33. artikulua. Kontabilitate eta erregistroko betebeharrak

Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko 4. paragrafoan xedatzen denak ez du eragotziko Balio Erantsiaren gaineko Zergarako ezarrita dauden zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko bide ematen duten frogagiriak edo erregistroak egin, gorde edo eramatea.

34. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri izango da Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan aipatutako entitateek burutzen dituzten ekonomi jardueren etekina zehazteko, baldin eta entitateon bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak zerga honen zergadunak diren pertsona fisikoak badira.
2. Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeko aukera, nahiz modalitate hori aplikatzeko aukeraren ezeztapena, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak egin beharko dute araudi honetako 30. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Aukera edo aukeraren ezeztapena ez badute bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak egiten, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntaren bitartez zehaztuko da.

3. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideetako bakoitzaren inguruabarrak edozein direla ere aplikatuko da zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea.
4. Kasu bakoitzean aplika daitezkeen arau edo itunen arabera esleitu zaie etekin garbia bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei, eta Administrazioak, modu sinesgarrian, arau edo itun horien berririk ez badu, hainbana esleitu zaie.

35. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatearen eta zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arteko bateragarritasuna

Ekonomi jarduera batzuk egiten dituzten zergadunek jarduera horietako batzuen etekina zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bitartez zehaztu badezakete, modalitate hori aplikatzea aukeratu behar izango dute jarduera horietarako guztietarako, nahiz eta zergadunak burutzen dituen gainerako jardueren etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabili.

Alabaina, urtean ekonomi jardueraren bat hasten bada, aurreko lerroaldean ezarritako erregelak ez du urte horretarako eraginik izango.

36. artikulua. Jarduera lokabeak.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeari dagokionez, jarduera lokabetzat hartuko dira berariaz onesten den foru aginduan ageri diren guztiak.
2. Jarduera bakoitzean sartzan diren ekonomi eragiketak zehazteko, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko arauak erabiliko dira, aplikagarri diren neurrian.

2. AZPIATALA

ETEKIN GARBIA ZEHAZTEA ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN METODOKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUEN MODALITATEAN

37. artikulua. Etekin garbia zehaztea zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatean.

1. Zergadunek modalitate hau aplikatu ahal zaion jarduera bakoitzaren etekin garbia zehaztuko dute.

2. Zergadunak berak zehaztuko du artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen den etekin garbia. Horretarako, zeinu, indize edo moduluak egotziko dizkio jarduera bakoitzari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez ekitaldi bakoitzerako onesten diren jarraibideak aplikatuko ditu.
3. Modalitate honi heldutako jarduera bat urtarrilaren 1az gero hasi edo abenduaren 31 baino lehen amaituz gero, zergadunak egutegiko urtean jarduera hori burutu duen denboraldiaren heinean aplikatuko ditu zeinu, indize edo moduluak. Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez zaie aplikatuko sasoiko jardueri.
4. Nolanahi ere, modalitate honen erregelak aplikatuzetik geratzen den etekin garbiari ekonomi jardueri loturiko elementuak besterentzearen ondoriozko irabaziak edo galerak batu edo kendu behar zaizkio, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 5. paragrafoan xedatzen denaren arabera.
5. Zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeak inoiz ez ditu zergapetu gabe utziko ekonomi jardueraren etekin errealak.

Ekonomi jardueraren etekin errealaren eta etekin garbia zehazteko modalitate hau zuzen aplikatuzetik ateratakoaren arteko diferentziarik gertatzekotan, lortzen den kuotaren sarrera edo itzulketa egingo da, eta ez da egongo sarrera epez kanpo egitearen ziozko errekararik, berandutza interesik edo zigorrik ezartzerik.

38. artikulua Zeinu, indize edo moduluak murriztea eta etekin garbia gutxitzea, aparteko gorabeheren zioz.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri zaien ekonomi jardueretan suteak, uholdeak edo sektore edo alde zehatz bati eragiten dioten bestelako aparteko gorabeherak gertatzen badira, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, salbuespenez, zeinu, indize edo moduluak murriztea baimendu ahal izango du.
2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri zaien ekonomi jardueretan suteen, uholdeen, amiltzeen edo industri ekipamenduko matxura handien zioz gorabehera larriak gertatzen badira, gorabehera horiek direla-eta zeinu, indize edo moduluak murriztu nahi dituzten interesatuek gorabehera horiek gertatu izanaren berri ematen duen idazkia aurkeztu beharko diote Ogasun eta Finantza Saileko Ogasun Zuzendaritza Nagusiari, bidezko iritzitako frogekin batera, eta, hala badagokio, aparteko gorabehera horien zioz jaso beharko lituzketen kalte-ordainak adierazi beharko dituzte.

Hori guztia aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da, gorabeherak gertatu diren egunetik kontatzen hasita.

Gorabeherak benetan gertatu direla egiaztatu ondoren, zeinu, indize edo moduluak murriztea erabakiko da, eta murrizketa zein epealdira aplikatu behar zaion adieraziko da.

Ebazpena emateko bi hilabeteko epea egongo da, idazkia aurkeztu zen egunetik zenbatuta, eta epe horri dagokionez ez dira kontuan hartuko zergadunari egozgarri zaizkion luzapenak.

Murrizketa horrek txikipenerako baimena emanez gero egin beharreko zatikako ordainketetan, aldaketak gertatu diren urtekoak direnean, izango ditu ondorioak.

3. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatu ahal zaien ekonomi jardueretan suteak, uholdeak, amiltzeak edo bestelako aparteko gorabeheren zioz jardueraren prozesu arruntekoak ez diren aparteko gastuak gertatzen badira, interesatuek aukera izango dute lortu duten etekin garbia gastu horien zenbatekoan gutxitzeko. Horretarako, zergadunak aparteko gorabehera horiek gertatu izanaren berri ematen duen idazkia aurkeztu beharko diote Ogasun eta Finantza Saileko Ogasun Zuzendaritza Nagusiari, bidezko iritzitako frogekin batera, eta, hala badagokio, aparteko gorabehera horien zioz jaso beharko lituzketen kalte-ordainak adierazi beharko dituzte.

Hori aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da, aparteko gorabeherak gertatu diren egunetik kontatzen hasita. Zerga Administrazioak etekina gutxitzea eragin duen kausa eta gutxitzeari dagokion zenbatekoa egiaztatuko ditu.

Zenbaki honetan aurreikusi den gutxipena bateraezina izango da, ondare-elementu berberetarako, aurreko 2. paragrafoan adierazitako murrizketarekin.

III. KAPITULUA KAPITALAREN ETEKINAK

LEHENENGO ATALA KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK

39. artikulua. Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekintzat hartzea.

Zerga honen ondorioetarako, Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 1. paragrafoan jasotzen denaren arabera etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak sartuta daude etxebizitzaren edo horien gozamen eskubide errealen titularrek lortutako etekinen artean, baldin eta arestian aipatutako titularrak 2002ko abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak, «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzekoak, jasotako xedapenetara biltzen badira edo titularrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudiak jasotako etxebizitza errentamenduan aritzen diren entitateen araubide berezira bildutako sozietateei laga edo alokatzen badizkiete etxebizitzak.

40. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 2. paragrafoan zehazten diren kapital higiezinaren etekineta kengarriak diren gastuak.

Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 2. paragrafoan araututako balizkoetan, gastu kengarritzat hartu ahal izango dira, etekin garbia zehazteko, etekin hori lortzeko behar diren gastu guztiak, bai eta erabilera dela bide edota denboraren igaroa dela medio etekinak sortzen dituzten ondasun edo eskubideetan jasandako narriaduraren zenbatekoa ere. Dena den, gastu kengarrien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik. Bereziki, honako hauek hartuko dira aurreko paragrafoan aipaturiko gastutzat:

- a) Etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz luperketa ahalmenak erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen interesak, eta gainerako finantzaketa gastuak.
- b) Estatuarenak ez diren zerga eta errekarquak, bai eta estatuaren tasak eta errekarquak, haien izena edozein dela ere, baldin eta zenbatutako etekinen edo etekinok sortzen dituzten ondasun edo eskubideen gainekoak badira, eta zehatzekoak ez badira edo zerga-betebeharrak betetzean izandako atzerapenaren ondoriozkoak ez badira.
- c) Hirugarrenek zuzeneko edo zeharkako kontraprestazio gisa, edo zerbitzu pertsonalengatik, hala nola administrazio, zaintza, atezaintza edo antzekoengatik, sortzen dituzten zenbatekoak.
- d) Eskubideak errentan edo azpierrean emateagatik, eskubideok lagatzeagatik edo eskubideok eratzegatik sortutako gastuak, eta ondasun, eskubide edo etekinen defentsa juridikoari dagozkionak.
- e) ...
- e) Artapen eta konponketa gastuak. Horri dagokionez, honako hauek hartuko dira horrelako gastutzat:
 - Ondasun materialen erabilera arrunta mantentzearen aldian-aldian egiten direnak, hala nola, instalazioak margotu, entokatu edo konpontzea.

- Elementuak ordeztekoak, barbarako, kalefakzio instalazioak, igogailua, segurtasun ateak edo beste batzuk.

Ondasunak zabaldu edo hobetzeko erabiltzen diren kopuruak ez dira kontzeptu honengatik kengarriak izango.

- f) Etekinak sortzen dituzten ondasun edo eskubideen gaineko aseguru kontratuen primen zenbatekoa; kontratuok izan daitezke erantzukizun zibilekoak, suteen aurkakoak, lapurretakoak, beiren hausturakoak edo antzeko beste batzuk.
- g) Zerbitzu edo horniduretarako erabilitako kopuruak.
- h) Amortizazioetarako erabiltzen diren kopuruak, hurrengo artikuluan ezarriko diren baldintzetan.

41. artikulua. Ondasun higiezinak amortizatzeako gastuak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 2. paragrafoak arautzen dituen balizkoetan, kapital higiezinaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat joko dira higiezina eta horrekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeako erabilitako kopuruak, baldin eta kopuruok ondasunak izan duen benetako balio-galerari badagozkio.
2. Amortizazioek eragingarritasun betekizuna betetzen dute, baldin eta:
 - a) Higiezinak direnean: amortizatutako kopuruak, urtean-urtean, ez badu gainditzen ordaindutako eskuraketa kostuari %3 aplikatuz lortzen den zenbatekoa; eskuraketa kostuan ez da lurraren kostua sartu behar.

Lurzoruaren balioa ezaguna ez denean, ordaindutako eskuraketa balioa lurzoruaren eta eraikuntzaren urtean urteko katastroko balioen artean hainbanatuz kalkulatu da balio hori.
 - b) Ondasun higigarriak direnean, eta ondasun horiek urtebete baino luzeagoa den epean zehar erabili ahal badira, eta higiezinarekin batera lagatzen badira: orduan, amortizatutako kopuruak, urtean-urtean, ez badute gainditzen ordaindutako eskuraketa kostuei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan zehazten diren gehieneko amortizazio epeen ondoriozko gutxieneko koefizienteak aplikatuz lortzen den zenbatekoa.
3. Etekinak erabilera edo luperketako eskubide edo ahalmen errealeen titulartasunetik datozenean, ordaindutako eskuraketa kostua amortizatu egin ahal izango da. Amortizazioa, horrelako kasuan, honako erregela hauen emaitza izango da:
 - a) Eskubide edo ahalmenaren iraunaldia mugatua denean, amortizazioa izango da eskubide edo ahalmenaren eskuraketa prezioa eskubide edo ahalmenaren iraunaldiaren urteen kopuruarekin zatituz lortzen den emaitza.
 - b) Eskubide edo ahalmena biziartekoa denean, ordaindutako eskuraketa kostuari %3ko portzentajea aplikatzearen emaitza izango da.
4. Egiten diren amortizazio guztien baturak ezin du inoiz ondasun edo eskubide bakoitzaren truke ordaindutako eskuraketa balioa gainditu.

42. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 2. paragrafoan zehazten diren kapital higiezinaren etekinen artean denboran era nabarmen irregularrean lortzen diren etekinak, zatika hartutako etekinak eta sorrera-aldiaren zehaztapena.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako %50eko integrazio-portzentajea aplikatzeko, jarraian adieraziko direnak baizik ez dira hartuko denboran era

nabarmen irregularrean lortutako kapital higiezinaren etekintzat, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

- a) Negozio-lokalen errentamendu-kontratua intsuldatu edo lagatzeagatik lortutako zenbatekoak.
 - b) Ondasun higiezinan eragindako kalteak edo andeak direla-eta errentariak, azpierrentariak edo lagapen hartzaileak emandako kalte-ordainak.
2. Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 2. paragrafoan zehazten diren kapital higiezinaren etekin sorrera-aldia bi urte baino gehiagokoa izan eta etekin horiek zatika hartzen badira, orduan Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 3. paragrafoaren lehenengo lerroaldean aipaturiko %60 edo 50eko integrazio-portzentajeak bakarrik aplikatuko dira baldin eta sorrera-aldiaren urte kopurua, datatik datara zenbatuta, zatikapenaren zergaldien kopuruarekin zatituz ateratzen den emaitza bi urtetik edo bost urtetik gorakoa denean, hurrenez hurren.
 3. Sorrera-aldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, aldi hori zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela ulertuko da.

BIGARREN ATALA KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

43. artikulua. Baliatze partziala aseguru kontratuetan.

Baliatze partzialen bat egiten bada aseguru kontratuetan, orduan kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko ulertuko da berreskuratu den kopurua lehenengoz ordaindutako primei dagokiela, haien errentagarritasuna barne.

44. artikulua. Errenta geroratuak eratu arte lortutako etekinen zerga-ordainketa.

Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiko lehenengo lerroaldean ezarritakoari dagokionez, errenta geroratuak eratu arte lortzen diren etekinak kargapean egongo da, honako erregelaren arabera:

- 1.a. Errentagarritasuna izango da eratzen den errentaren finantza-jarduketako egungo balioaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko kendura.
- 2.a. Errentagarritasuna biziarteko errenta kobratzen den lehenbiziko 10 urteetan zehar banatuko da linealki. Aldi baterako errenta bada, linealki banatuko da errentaren iraunaldiaren urteen artean, gehienez 10 urte harturik.

45. artikulua. Errenta moduan jasotzen diren erretiro eta elbarritasun prestazioak dituzten zenbait aseguru kontratuk -Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian zehazten direnek- bete beharreko betekizunak.

Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiko bigarren lerroaldean ezarritakoa aplikatzeko, honako betekizun hauek bete behar dira:

- 1.a. Prestazioak jasotzeko jazo behar duten gertakizunak dira Pentsio plan eta fondoak arautzen dituen Legearen testu bategineko -azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen- 8. artikuluko 6. paragrafoan ezartzen diren gertakizunak, plan eta fondo horietarako ezarritako baldintzetan.
- 2.a. Aseguru kontratuaren horniduretan nolabaiteko mugimenduak egon direla ulertuko da, baldin eta ekonomiaren arloko eskubideak erabiltzeari dagokionez Pentsio plan eta fondoak arautzen dituen Legearen testu bategineko -azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen- lehenengo xedapen gehigarrian eta lege hori garatzeko arautegian enpresek pentsioak direla-eta dituzten konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboak buruz ezartzen diren ezarritako mugak betetzen ez badira.

46. artikulua. Kapital higigarriaren zenbait etekinetan kengarriak diren gastuak.

Laguntza teknikoa ematearen ziozko etekinen eta ondasun higigarrien, negozioen edo meatzeen errentamenduaren eta azpierrentamenduen etekinen (Zergari buruzko Foru Arauko 41.2. artikulua) zenbateko garbia kalkulatzeko, gastu kengarrizat hartuko dira araudi honetako 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoak, eta horiez gainera baita behar bezala frogatzen diren zalantzazko kobrantzako saldoak ere. Horretarako, ez da aplikatuko Araudiko 40. artikuluko lehen paragrafoan ezarritako gastu kengarrien muga.

Zalantzazko kobrantzako saldoak behar bezala frogatzeko ezinbestekoa da:

- Zorduna konkurtsoan egotea.
- Kobrantza egiteko zergadunak egin duen lehenengo kudeaketatik eta zergaldia amaitu arte sei hilabete baino gehiago igarotzea eta kreditua ez berriztatzea.

Zalantzazko saldoa kobratzen bada, behin haren kenkaria egin eta gero, orduan sarrera gisa zenbatuko da kobrantza hori egiten den ekitaldian.

47. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluan zehazten diren kapital higigarriaren etekinen artean denboran era nabarmen irregularrean lortzen diren etekinak, zatika hartutako etekinak eta sorrera-aldiaren zehaztapena .

1. Zergari buruzko Foru Arauko 41. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako %50eko integrazio-portzentajea aplikatzeko, jarraian adieraziko direnak baizik ez dira hartuko denboran era nabarmen irregularrean lortutako kapital higigarriaren etekintzat, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:
 - a) Errentamendu-kontratua intsuldatu edo lagaz lortzen diren zenbatekoak.
 - b) Errentamenduetan, kalteak edo andeak direla-eta errentariak edo azpierrentariak emandako kalte-ordainak.
2. Kapital higigarriaren etekinen sorrera-aldia bi urte baino gehiagokoa izan eta etekin horiek zatika hartzen badira, orduan Zergari buruzko Foru Arauko 41. artikuluko 3. paragrafoko lehenengo lerroaldean aipaturiko %60 edo 50eko integrazio-portzentajeak bakarrik aplikatuko dira baldin eta sorrera-aldiaren urte kopurua, datatik datara zenbatuta, zatikapenaren zergaldien kopuruarekin zatituz ateratzen den emaitza bi urtetik edo bost urtetik gorakoa denean, hurrenez hurren.
3. Sorrera-aldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, aldi hori zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela ulertuko da.

48. artikulua. Norberaren kapitalak, dohainik eskuratutakoak, hirugarrenei lagatzen zaizkienean lortzen diren kapital higigarriaren etekinak.

1. Zergadunaren heriotzaren zioz artikulua honetan aipatutako besteren kapitalak bereganatzea eta erabiltzea adierazten duten aktiboak irabaziz eskualdatzen direnean, kapital higigarriaren etekinik ez dagoela ulertuko da.
2. Irabazizko eskualdaketa komisarioak testamentu-ahalordea edo unean bertan eraginkortasuna duen oinordetza-tituluren bat erabiltzearen ondorioz gertatzen denean ere aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da. Ondorio horietarako, oinordetza-titulua dira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 3. artikuluan ezarritakoak.
3. Aurreko lerroaldean aipatu diren unean bertan eraginkortasuna duten oinordetza-tituluen bidezko irabazizko eskualdaketetan, besteren kapitalen erakartzea eta erabilera ordeztan dituzten aktiboek eskualdatzailearentzat hurrengo eskualdaketetarako izango duten eskuraketa balioa izango da aktibo horiek dohaintza-emaitza hartzaileri

ematen dizkiotenean daukaten eskuraketa balioa, dohaintza-hartzaileak aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta eskuraketa-datei dagokienez, eta aktiboak unean bertan eraginkortasuna duen oinordetza-itunaren aurretik izan dituenak mantenduko ditu.

Aktiboen amortizazioa edo muga eguneratzea dela-eta, aktiboen dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatzen direnean ere, aurreko leerroaldean xedatzen dena aplikatu behar da.

IV. KAPITULUA ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

49. artikulua. Eskuraketa balioaren zehaztapena

1. Ondare-osagaiak eskualdatzen direnean, haien eskuraketa balioa, hala badagokio, gutxitu egingo da, hain zuzen ere zergen ikuspegitik kengarriak diren amortizazioen zenbatekoan, eta beti zenbatuko da gutxieneko amortizazioa, amortizazio hori gastutat jotzen den kontuan hartzeke.

Horri dagokionez, gutxieneko amortizazioa izango da ondare-osagai bakoitzari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan aipatutako gehieneko epetik ateratzen den portzentajea aplikatzean lortzen den emaitza, edo, kasuan-kasuan, osagai horri portzentaje finkoa aplikatzean lortzen dena.

2. Ondare-osagaiak osagaiok jarduerarekin duten lotura kendu eta gero -Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikulua aipatzen da hori- eskualdatzen badira, orduan, osagai horien eskuraketa balioa eguneratu egingo da, lotura hori kendu zitzaien datari dagokion eguneratze-koefizientea aplikatuz.
3. Ondarearen galera-irabazien zenbatekoa Zergari buruzko Foru Arauko 49. artikuluan ezarritako balorazio arau bereziak aplikatuz zehazten denean, orduan eguneratze-koefizienteak aplikatuko dira, foru arau horretako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, hain zuzen ere eskuraketa balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar diren zenbateko positibo eta negatiboak gertatzen diren urteei dagozkienak.

50. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik ondare-irabaziak lortzen badira, orduan irabazi horiek kargatik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta eskualdaketa lortzen den zenbateko osoa berriro inbertitzen bada ohiko beste etxebizitza bat eskuratzeko, artikulua honetan ezartzen diren baldintza beretan. Zergadunak besteren finantzaketa erabili badu eskualdatutako etxebizitza eskuratzeko, orduan, horri dagokionez soil-soilik, eskualdaketa balioari eskualdaketa unean amortizatze dagoen maileguaren printzipala kentzean lortzen den emaitza hartuko da lortutako zenbateko osotzat.

Horri dagokionez, berdintzat joko dira etxebizitza eskuratzeko eta etxebizitza birgaitzea, Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Etxebizitza ohikotzat hartzeko, Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 8. paragrafoan eta Araudi honetako 68. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

2. Besterentzean lortzen den zenbateko osoa berriro inbertitu behar da, aldi baten edo batzuetan, baina, edozelan ere, eskualdatze-datatik aurrera urte birainoko epearen barruan.

Berrinbertsioa epearen barruan egintzat hartuko da salmenta epera edo prezioa geroratuarekin egiten denean, baldin eta epeen zenbatekoa helburu horretarako erabiltzen bada epeok hartzen diren zergaldiaren barruan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten besterentzea egiten den urte berean, orduan, ondare-irabazia lortzen duen ekitaldiko zergaren

autolikidazioan berrinbertsioa aurretik adierazitako baldintza eta epeetan egiteko asmoa duela agerrarazi beharko du zergadunak.

Era berean, besterentzean lortzen diren kopuruak berrinbertsioagatiko salbuespenerako eskubidea emango dute, baldin eta kopuruak ohiko beste etxebizitza baten prezioa ordaintzeko erabiltzen badira, eta betiere etxebizitza hori ohiko etxebizitzaren besterentzea egin den urtearen aurre-aurreko urte bietako epean eskuratu behar izan da.

Ikusi 3/2009 Foru Arauan [BIZKAIA], Bizkaiko Lurralde Historikoko 2010 urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, 2. xedapen gehigarria (abenduarien 28ko BAO), ohiko etxebizitza eskualdatze kasuetan berrinbertitzeko epea luzatzeari buruzkoa. Halaber, kontuan hartu behar da otsailaren 23ko Foru Diputatuaren [BIZKAIA] 11/2010 2. xedapen iragankorrak, beraren bidez Zergei buruzko hainbat Araudi aldatzen dira (martxoaren 2ko «B.A.O.»), honakoa xedatzen duela: «2010. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 3/2009 Foru Arauaren bigarren Xedapen Gehigarrian jasotako kasuetan, azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 68. artikulua 4. atalean aurreikusitako ohiko etxebizitzaren kontsiderazioak uneoro aurreko ohiko etxebizitzaren eskualdaketa edo eskualdaketa egunaren aurreko lau urteetako edozein egunari erreferentzia egingo dio »

3. Berrinbertsioaren zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean lortutako osokoa baino, orduan ondare-irabaziaren zati bat bakarrik ez da egongo kargapean, alegia, artikulua honetako baldintzetan benetan inbertituriko kopuruari dagokiona.
4. Artikulu honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada, orduan kargapean jarriko da lortzen den ondare-irabazia.

Hori hala gertatzen bada, salbuetsita ez dagoen ondare-irabazia irabazi hori lortu zuen urteari egotziko dio zergadunak, eta autolikidazio osagarria egingo du; autolikidazio osagarri horretan, dagozkion berandutza interesak sartuko ditu. Autolikidazio osagarria aurkezteko epe jakina dago: ez-betetzea gertatzen den dataren eta ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioaren arauzko epearen amaieraren arteko epea.

51. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen bazkideen kopurua, ondarea eta gehieneko partaidetza portzentajea frogatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 50. artikulua arabera sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeek eduki behar duten gutxieneko akziodunen kopurua honela zehaztuko da:
 - a) Azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araupetutako inbertsio kolektiboko erakundeetan, Zergari buruzko Foru Arauko 50. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoetan, eskualdaketa edo itzulketaren aurretik erakundeak, 1309/2005 Errege Dekretuak onetsitako Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 25. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azkeneko hiruhileko txostenean ageri diren akziodunen kopurua.
 - b) Zergari buruzko Foru Arauko 50. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeetan, eskualdaketa edo itzulketaren aurretik inbertsio kolektiboko erakundeak edo haren gesturak izendatutako entitate merkaturatzaile bakarrik, Espainian egoitza duenak, atal edo azpifondo bakoitzari buruz Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azken urteko jakinarazpenean ageri diren akziodunen kopurua. Aurrekoaren ondorioetarako eta hurrengo paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinarazpen horretan atal edo azpifondo bakoitzeko akziodun guztien kopurua agertu behar da, erakunde, atal edo azpifondoaren ondare osoa, eta datuok zein egunetakoak diren. Gehienez ere urtebete egongo da indarrean egun horretatik aurrera.

Balore Merkatuko Komisio Nazionalak jendaurrean edukiko du informazioa eta idatzizati honetan adierazitako betekizun teknikoak eta prozedurak eskatuko ditu.

2. Sozietate izaera duen inbertsio kolektiboko erakunderen batek esku hartzen duen eragiketei dagokienez Zergari buruzko Foru Arauko 50. artikuluan jasotako geroratze

arabidiera bildu nahi duen zergadunak agiri bidez honako hau jakinarazi beharko die, eragiketa agintzerakoan, eskualdaketa edo itzulketako eta erosketa edo harpidetzako eragiketak egiteko erabiltzen dituzten entitateei: inoiz ere ez duela parte hartu eragiketaren aurreko hamabi hilabeteen barruan inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren %5ean baino gehiagotan. Entitate horiek Zerga Administrazioaren esku eduki beharko dituzte zergadunek emandako agiriak zerga-betebeharrak preskribatu edo, hala denean, iraungi arte.

V. KAPITULUA BALORE EDO PARTAIDETZA HOMOGENEOAK

52. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneoen kontzeptua.

Zerga honen ondorio soiletarako, balore edo partaidetza homogeneotzat hartuko dira jaulkitzaile berarengandik eratorri eta eragiketa finantzario berekoak diren edo asmo bakar bati erantzuten dioten balore edo partaidetzak, finantzaketa modu sistematikoa lortzea barne, baldin eta eskualdaketa-izaera eta -arabide berberak badituzte eta funtsean antzekoa den eskubide eta betebeharren edukia ematen badiete beren titularrei.

Dena den, jarraian adieraziko direnak direla-eta hainbat diferentzia egoteak ez dio eragingo haien artean baloreen multzo baten homogeneotasunari; diferentziak honako hauetan egon daitezke: zenbateko unitarioan; zirkulazioan jartzeko datetan; materiala eman edo prezioak finkatzeko datetan; merkatuan jartzeko prozeduretan, barne hartuta inbertsiogileen berariazko kategoriei zuzendutako tarte edo blokeak egotean; edo, izaera osagarria duen beste edozein aspektutan. Partikularki, jaulkipena segidako tartetan zatikatzeak edo jaulkipenaren zabalkuntza aurreikusteak ez du homogeneotasuna aldatuko.

VI. KAPITULUA DENBORAREN ARABERA EGOZTEA

53. artikulua. Etekinak denboraren arabera egoztea

1. Ekonomi jarduerak egiten dituzten zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arauetan etekinak denboraren arabera egozteko ezartzen diren irizpideak aplikatuko dizkiete jarduera horien emaitzako errentei, eta horiei bakarrik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan dauden berezitasunak eta hurrengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe. Era berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 59. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan xedatzen dena ere aplikatuko da bertan aipatzen diren kasuetan egotzi gabeko errentei dagokienez.

2.

1.a. Ekonomi jarduerak egiten dituzten zergadunek etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzen dutenean, kobrantza eta ordainketa irizpidea aukeratu dezakete jarduera horietarako, sarrera eta gastuak denboraren arabera egozte aldera, baldin eta Zergari buruzko Foru Arauko 59. artikuluko 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatzen diren betekizunak betetzen badira..

Irizpide hori Zerga Administrazioak onartutzat joko da dagokion autolikidazioan horrela adierazte hutsagatik eta gutxienez ere hiru urteko epean zehar mantendu behar da.

2.a. Paragrafo honetan jasotzen den aukerak eraginkortasuna galduko du, baldin eta aukera egin ondoren zergadunak etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntari jarraituz zehaztu behar badu.

3. Etekinak hainbat urtetan sortutako egile eskubideen ustiapena lagatzearen ondorioz sortzen badira, eskubideak sortu ahala egotzi ahal izango du zergadunak horien konturako aurrerakina.

4. Denboraren arabera egozteko irizpideak edo etekin garbia zehazteko metodoa aldatuagatik, ez da ezein gastu edo sarrera zenbatu gabe geldituko, ez eta beste ekitaldi baten berriro zenbatu ere; eta behar den erregularizazioa egin beharko da, egozteko irizpidea aldatu baino lehen.
5. Zergadunak egoitza atzerrira aldatuz gero zergadun izateari uzten badio, Zergari buruzko Foru Arauko 59. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen denaren arabera, zerga hori dela-eta aitortu behar den azken zergaldiari dagokion zerga-oinarrian sartu behar dira egotzi gabe dauden errenta guztiak. Gainera, hala badagokio, autolikidazio osagarria egin beharko da, hiru hilabeteko epean, egoitza aldatu duela-eta zergadunak zergadun izateari uzten dionetik zenbatuta, eta ez da zigorrik egongo, ez eta berandutza interesik ez errekarurik ere.

VII. KAPITULUA GAUZAZKO ERRENTAK

54. artikulua. Gauzazko ordainsari ez diren enpresako jantokien ziozko gastuak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzu prestazioaren zuzeneko eta zeharkako formulak, lan legeriak onarturikoak, enpresako jantokietan enplegatuei prezio beheratuarekin egiten zaizkien produktu ematetzat hartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:
 - 1.a. Zerbitzua enplegatu edo langilearen lanegunetan zehar eman behar da.
 - 2.a. Zerbitzua ez ematea enplegatu edo langileak araudi honetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargapetik salbuetsitako mantenu dietak sortarazten dituen egunetan.
2. Zerbitzua zeharkako formulen bidez ematen bada, orduan, aurreko idatz-zatian eskatutako betekizunez gainera, honako hauek ere bete beharko dira:
 - 1.a. Zeharkako formulen zenbatekoa ezin da izan egunean 9 euro baino gehiago. Eguneko zenbatekoa handiagoa bada, gaindikina gauzazko ordainsaria izango da. Zenbateko hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuak aldatu ahal izango du.
 - 2.a. Zerbitzua emateko janari-txartelak edo horien antzeko agiriak ematen bazaizkio enplegatu edo langileari, orduan honako hauek bete beharko dira:
 - a) Zenbatuta egon behar dute, eta bertan hartzailearen izen-deiturek eta jaulkitzen dituen enpresa agertu behar dute eta, paperean ematen direnean, zenbateko nominala ere jaso behar da.
 - b) Ezin dira eskualdatu, eta egun batean kontsumitu gabeko zenbatekoa ezin izango zaio beste egun batekoari metatu.
 - c) Ezin izango zaie lortu enpresari edo gainerakoei haien zenbatekoaren itzulketa.
 - d) Ostalaritzako establezimenduetan bakarrik erabili ahal izango dira.
 - e) Janari-txartel edo agiriok ematen dituen enpresak enplegatu edo langileetarik bakoitzari emandako zerrenda egin eta gorde behar du; eta honako hauek adierazi behar ditu:
 - Janari-txartelak edo antzeko agiriak badira, agiriaren zenbakia, emate eguna eta zenbateko nominala.
 - Txartelak edo ordaintzeko beste edozein bitarteko elektronikoa bada, agiriaren zenbakia eta egun bakoitzean emandako kopurua (egun horiek adierazita).

55. artikulua. Langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko erabilitako kopuruak.

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafo b) idatz-zatian langileen gizarte eta kultur zerbitzuetara zuzendutako ondasunei buruz jasotzen diren zeharkako formulen ondorioetarako, ez da gauzazko ordainsarizat hartuko urteko 1.000 euro gainditzen ez duen kopurua.

56. artikulua. Jarduneko langileei akzioak edo partaidetzak ematea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian ezarritakoari dagokionez, jarduneko langileei akzioak edo partaidetzak ematen bazaizkie, emate hori ez da gauzazko lan etekintzat hartuko, emate hori honako hauetako bat bada:

1.a. Sozietate batek bere jarduneko langileei akzioak edo partaidetzak ematea.

2.a. Era berean, sozietateen taldeetan, baldin eta beraietan Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira, taldeko sozietate baten akzioak edo partaidetzak ematen bazaizkie azpitalde bereko beste sozietate batzuetako jarduneko langileei, eta langileok zerga honen zioz zergadunak badira. Taldeko sozietate menperatzailearen akzioak edo partaidetzak direnean, akzioak edo partaidetzak talde horretako sozietateetako jarduneko langile diren eta zerga honen zergadun diren langileei ematen zaizkienean.

Aurreko kasu bietan, ematea egin ahal izango du bai sozietateak berak, hau da, langilearen zerbitzuak hartzen dituenak, bai taldeko beste sozietate batek, bai eta akzioen titularra den herri izakiak, estatuaren sozietateak edo herri-administrazioak ere.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Eskaintza enpresak edo, egonez gero, sozietate taldeak erabiltzen duen ordainketa politika orokorraren barruan egitea, eta langileen partaidetza bultzatzea enpresan.

2. Langile horiek, beraien ezkontideekin edo bigarren gradurainoko senideekin batera, %5etik gorako partaidetzarik ez izatea zuzenean edo zeharka, zerbitzuak egiten dituzten sozietatean edo taldeko beste ezein sozietatetan.

3. Tituluei gutxienez bost urtez eustea.

Aurreko 3. zenbakian aipaturiko epea betetzen ez bada, kopuru egokia ordaindu beharko da, hari dagozkion berandutza interesekin batera. Horretarako, autolikidazioa aurkeztu beharko da betekizuna betetzen ez den dataren eta ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioaren arauzko epearen amaieraren arteko epean.

57. artikulua. Langileak eguneratu, gaitu eta birziklatzeko erabiltzen diren kopuruak.

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafoko d) idatz-zatian ezarritakoari dagokionez, ikasketak ez dira gauzazko ordainsarizat hartuko, baldin eta ikasketok erakunde, enpresa edo enplegatzaileek agintzen badituzte eta eurek zuzenean finantzatzen badituzte, beren langileak eguneratu, gaitu edota birziklatzeko, eta langileek beren jarduerak egin ahal izateko edo lanpostuen ezaugarriengatik nahitaezkoak badira, nahiz eta ikasketak benetan beste pertsona edo entitate espezializatu batzuek eman. Bestelakoetan, joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruei dagokienez araudi honetako 13. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

58. artikulua. Sozietateen eratzaille edo sustatzaileen eskubideak.

Sozietate baten eratzaille edo sustatzaileek eurentzat gordetzen badituzte ekonomi edukiko eskubide bereziak, euren zerbitzu pertsonalen ordainsari gisa, eta eskubide horiek entitate baten mozkinen gaineko portzentaje bat badira, orduan, eskubide horien balorazioa, gutxienez,

aipatu eskubideei mozkinetan aitortzen zaien partaidetza bera ahalbidetzen duen kapital sozialaren balio baliokidearen %35 izango da.

59. artikulua. Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak.

Ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko enplegatzaileek langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen dituzten kopuruak, Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian jasotakoari dagokionez. Gastu horien artean sartuta daude Interneteko lotura egin, erraztu edo finantzatzeko kopuruak, eta Internetera lotzeko behar diren ekipoak eta terminalak erosteko dohainik edo prezio beheratuez maileguak edo diru laguntzak eskaini edo ematek eratorritako gastuak (software eta lotutako periferikoak barne), bai eta langileek horiek guztiak lantokiz eta ordutegiz kanpo erabili ahal dituztenean ere.

60. artikulua. Heriotza edo elbarritasunerako arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboaren primak.

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. paragrafoko i) idatz-zatian jasotakoaren ondorioetarako, ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko hitzarmen, akordio kolektibo edo xedapen baliokide batean ezartzen denaren ondorioz kontratatzen den heriotza edo elbarritasunerako arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboaren primak.

VIII. KAPITULUA ERRENTEN ESLEIPENA

61. artikulua. Errentak esleitzeko araubideari loturik ez dauden entitateak.

1. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiei, ahalordea erabili bitartean, inoiz ere ez zaie aplikatuko Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan arautu den etekinak esleitzeko araubidea.
2. Errentak esleitzeko araubidea ez zaie aplikatuko testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiekin lotutako etekin, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenei, harik eta ahalordea erabili arte. Azken horiek guztiek Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluan eta araudi honetako hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dituzte zergak.

62. artikulua. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiei, dagozkien etekinak, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenak, ahalordea erabili bitartean.

1. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiekin lotutako etekinak, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenak jarauntsiko ondasunen gozamen-dunari esleituko zaizkio, harik eta ahalordea erabili arte, haien jatorri edo iturriaren arabera, baldin eta aurretiaz, kausatzaileak hala xedatuta, edo Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila araupetzen duen legeria aplikatuta, ondasun eta eskubideen gozamen-eskubidea ezartzen bada pertsona jakin batentzat edo gehiagorentzat.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren ondare-irabazi eta galerak dira, bakar-bakarrik, eskualdaketa baten ondorioz sortu ez diren ondasun-eskubideak kontuan hartzean sortzen diren irabazi-galerak.

Araudi honen 22. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ekonomi jardueren etekinak euren gozamen-dunari egotziko zaizkio beti, halakotzat egotzi ere, eta ez da kontuan hartuko gozamen-dunak berak zuzenean eta bere kabuz parte hartzen duen edo ez jarduerari lotutako produkzio-bide eta giza baliabideen antolamenduan.

2. Ondasun edo eskubideen gaineko gozamen-eskubiderik ezarri ezik, haietatik datozen etekinak, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenak, aurreko paragrafoko bigarren lerroaldean aipatutakoak baino beste batzuk badira, jarauntsiari berari esleituko zaizkio, eta haien ziozko zerga-ordainketari dagokionez, berriz, xedapen hauek beteko dira: urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen duenak, II. tituluan xedatutakoa,

eta abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretuak, urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua - Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen duena- garatu duenak, II. tituluan xedatutakoa.

3. Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legeko 104. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren etekinak, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenak, testamentu-ahalordea erabili gabe badago, erdi bana esleituko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiari, ahalordea erabili bitartean, artikulua honetako aurreko bi paragrafoetan ezarritako arauen arabera.

IX. KAPITULUA AURREZKIAREN ERRENTA

63. artikulua. Aurrezkiaren errenta eta norberaren kapitala entitate lotuei lagaz lortutako etekinak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 65. artikuluko b) zatian xedatzen denerako, zergadunarekin lotuta dauden entitateei norberaren kapitala lagaz lortutako kapital higigarriaren etekinak aurrezkiaren errentan integratuko dira beti, finantza-erakundeetatik jasotako etekinak badira eta entitate ordaintzaileari lotuta dauden pertsonen antzeko ezaugarriak dituzten beste talde batzuei eskaini zaizkien etekinekin alderatuta oso ezberdinak ez badira.

IV. TITULUA OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA

64. artikulua. Aurreikuspen plan aseguratua.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 72. artikuluko 5. paragrafoko b) idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, aseguru kontratu baten estaldura nagusia erretiroa dela pentsatuko da urte bakoitzean erretirorako eta mendekotasunerako hornidura matematikoen kopuruak gutxienez ere planari ekin zaionetik heriotza edo elbarritasunerako kapitala eratzeko ordaindutako sarien batura halako hiru denean.
2. Aurreikuspen plan aseguratuetako kopuruak pentsio planei buruzko arauetan ezarritako balizkoetan soilik baliatu ahal izango dira aldezturik.

Aldezturik baliatzeko eskubidearen balioa hornidura matematikoaren zenbatekoa izango da; kopuru horri ezin izango zaio aplikatu ez zehapenik, ez gasturik, ez deskonturik.

Nolanahi ere, lotutako inbertsiorik badu entitateak, aldezturik baliatzeko eskubidearen balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

3. Aurreikuspen plan aseguratua baten hartzaileak hartzaile den beste aurreikuspen plan aseguratua batera edo batzuetara aldatu dezake bere hornidura matematiko osoa edo horren zati bat, edo, bestela, partaide den sistema indibidualeko edo elkartutako pentsio plan batera edo batzuetara. Behin kontingentzia gertatuta, hornidura bakarrik aldatu ahal izango da planaren baldintzek horretarako aukera ematen badute.

Horretarako, hartzaile edo onuradunak helburuko aseguru-entitate batera edo entitate kudeatzaile batera jo behar du, eta eskaerarekin batera adierazi behar du zein den aldatutako den horniduraren sorburuko aurreikuspen plan aseguratua eta sorburuko aseguru-entitatea eta, hala badagokio, zein zenbateko aldatutako den batetik bestera. Eskaerarekin batera sorburuko aseguru-entitateari zuzendutako jakinarazpena joango da, azken horrek plan batetik bestera aldatzea agindu dezan. Hartzaile edo onuradunak aseguru-entitateari emandako baimena ere jasoko da, entitateak haren izenean eskatu diezaion sorburuko aseguru-entitateari hornidura matematikoa beste planera aldatu dezala, bai eta aldatutako hori egiteko behar den informazio finantzario eta fiskal guztia ere.

Baldin eta hitzarmen edo kontraturik badago arestian aipatutako aldaketa horiek egiteko eskaerak bitartekarien bidez edo beste entitate batzuetako sare komertzialen bidez kudeatzeko, eskaera establezimendu horietako edozeinetan aurkeztea aseguru-entitatean edo entitate kudeatzailean egindakotzat hartuko da.

Gehienez bi asteguneko epean, helburuko aseguru-entitateak edo entitate kudeatzaileak beharrezko dokumentazio osoa daukanetik aurrera, entitate horrek eskaera jakinarazi behar dio sorburuko aseguru-entitateari, planen aldaketa egiteko arauzko baldintzak betetzen direla egiaztatzearekin batera. Eta gutxienez honako hauek adierazi behar dizkio: helburuko aurreikuspen plan aseguratua, helburuko aseguru-entitatea eta transferentziarako kontuaren datuak; edo, bestela, helburuko pentsio plana, hartzailea atxikita dagoen helburuko pentsio fondoa, helburuko fondoaren entitate kudeatzailea eta gordailuzaina, eta transferentziarako kontuaren datuak.

Gehienez ere bost asteguneko epean, sorburuko aseguru-entitateak eskaera eta beharrezko dokumentazioa jasotzen dituenetik aurrera, entitate horrek banku transferentzia agindu behar du eta plan batetik bestera aldatzeko behar den dokumentazio finantzario eta fiskal osoa bidali behar dio helburuko entitate aseguratzaileari edo kudeatzaileari.

Sorburuko aseguru-entitatea aldi berean helburuko aurreikuspen plan aseguruaren entitate aseguratzailea edo helburuko pentsio planaren kudeatzailea bada, hartzaileak eskaeran adierazi behar du zein den plan batetik bestera aldatu nahi duen zenbatekoa, hala denean, bai eta plan batetik bestera aldatutako fondoak hartuko dituen aurreikuspen plan aseguratua zein den ere, edo, bestela, zein den helburuko pentsio plana eta atxikita dagoen helburuko pentsio fondoa. Sorburuko aseguru-entitateak gehienez hiru asteguneko epean eman behar du transferentzia agindua, eskaera aurkezten denetik aurrera.

Hornidura matematikoa baloratzeko, hornidura batetik bestera aldatzen den eguna hartuko da kontuan. Dena den, aseguru kontratuan aldaketa egin aurreko asteguna har daiteke kontuan hornidura baloratzeko.

Baldin eta entitateak atxikitako inbertsioak baditu, batetik bestera aldatuko den hornidura matematikoaren balioa esleitutako aktiboen merkatuko balioa izango da.

Plan batetik bestera aldatuko den kopuruari ezin izango zaio zigorrik, gasturik edo deskonturik aplikatu.

Paragrafo honetan aipatzen diren plan batetik besterako aldaketak egiteko, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuko 49. artikuluko 3. paragrafoaren azken aurreko lerroaldean baimenduta dagoen sistema erabil daiteke; errege dekretu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onartu eta Pentsio Plan eta Fondoaren Araudiari buruzko 2004ko otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretua aldatu zen.

Artikulu honen 1. paragrafoan jasotzen den betekizuna betetzeko, aldaketa aurreikuspen plan aseguratua batetik beste aurreikuspen plan aseguratua batera edo pentsio plan batetik aurreikuspen plan aseguratua batera egiten bada, aseguru kontratu berriaren primak eta hornidura matematikoa bakarrik konputatuko dira. Horretarako, sorburuko aurreikuspen plan aseguratuan, artikulu honen 1. paragrafoan jasotzen den betekizuna ere bete beharko da aldaketa egiten den unean.

65. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak baliatzen direnean autolikidazio osagarria aurkezteko epea.

Zergari buruzko Foru Arauko 72.10. artikuluan, 74.4. artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarriko 3.c) paragrafoan eta 4. paragrafoko azken lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, gizarte-aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak aldeztu aurretik baliatzeagatik bide ez bezala zerga-oinarrian aplikatutako txikipekak berrezartzeko egin beharreko autolikidazio osagarriak eskubideak baliatzen direnetik zergaldiko autolikidazioa aurkezteko epea amaitu bitarteko epealdian aurkeztu behar dira.

66. artikulua. Ekitaldiko zerga-oinarria murrizteko erabili ez diren gizarteurreikuspenetarako sistemetakako ekarpen eta kontribuzioen gairikoen zerga-tratamendua.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 73.3 artikuluan, 74.2 artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarriko 3.b) zenbakian ezarritakoaren arabera, partaideek, mutualitateetako kideek, aseguratuek eta bazkideek eskatu ahal izango dute haiek egindako ekarpen eta kontribuzioetatik zerga-oinarria murrizteko erabili ez diren kopuruak ondoz ondoko bost ekitaldietako zerga-oinarriak murrizteko erabiltzea.
2. Eskaera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egin behar da, hain zuzen ere, egindako ekarpen edo kontribuzioak, mugak gairiditzeetatik edo zerga-oinarri orokorra aski ez izateetatik, zerga-oinarria murrizteko erabili ezin izan diren ekitaldiko autolikidazioan.
3. Gairidikinok egotziko dira, hain zuzen ere, hurrengo bost ekitaldien artean konpentsazio-pentsioen zenbatekoa eta mantenuurtekoak zerga-oinarri orokorrean murriztu ondoren emaitza positiboa daukan lehenengo ekitaldian; nolahi ere, Zergari buruzko Foru Arauko 73.3 artikuluan, 74.2 artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian zehazten diren baldintzak eta mugak beti bete behar dira.
4. Gairidikina gertatzen den zergaldian, Zergari buruzko Foru Arauaren muga gairiditzen dutenen artean zergadunak berak egindako ekarpenak eta sustatzaileak nahiz bazkide babesleak egotzitako kontribuzioak badaude, hurrenkera honen arabera aplikatu behar dira murrizketak:
 1. Aurreko ekitaldietako ekarpenak.
 2. Aurreko ekitaldietako kontribuzioak.
 3. Ekitaldiko kontribuzioak.
 4. Ekitaldiko ekarpenak.

**V. TITULUA
KUOTAREN KENKARIAK**

**I. KAPITULUA
KENKARIA EZINTASUNAGATIK**

67. artikulua. Minusbaliotasun maila frogatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 23. eta 84. artikuluetan aipatutako ezintasuna zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz frogatu ahal izango zaio Zerga Administrazioari. Hala ere, ezintasunaren legezko izaera egiaztatutzat hartuko da, baldin eta:
 - a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo autonomia-erkidegoetako organoak ziurtatua denean.

Zentzu horretan, ziurtagiriek ez dute zertan ondorio horietarako bereziki eginak izan behar, eta aipatutako organoek luzatutako beste edozein agiri ere baliagarria izan daiteke, baldin eta bertan argi eta garbi adierazten bada zein den ezintasun maila eta nolako lotura duen Zergari buruzko Foru Arauko 23. eta 84. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatutako baremoekin.
 - b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Araubide Bereziak ezintasun iraunkorra dela eta aitortutako prestazioa jasotzen denean, baldin eta hura aitortzeko Zergari buruzko Foru Arauko 23. eta 84. artikuluetan aipatzen den minusbaliotasun edo ezintasun maila exijitzen bada.

Bereziki, honako kasu hauetan joko da %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila frogatuta dagoela: ezintasun iraunkor osoagatik, erabatekoagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta lanerako ezintasun iraunkoragatik edo ezgaitasunagatik erretiro edo erretreta pentsio bat aitortua duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

Edozein modutara ere, ezintasunaren aitorten judiziala Kode Zibilean jasotako arrazoiengatik ematen bada, zerga honetan %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duten pertsona ezgaituentzat aurreikusita dauden berariazko xedapenak aplikatuko dira.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 24.3. eta 84. artikuluetan aipatzen dituen kenkariak edo hobariak izateko, ezgaitasuna ekarri duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla frogatu beharko da.

Hala ere, minusbaliotasunek edo ezintasunek beren-beregi adierazita badute iraunkorrak direla, edo zergaren sortzapen data haien kalifikazioaren baliozkotasun epearen barruan badago, orduan ez da agiririk eskatuko sortzapen eguneko minusbaliotasuna edo ezintasuna frogatzeko.

II. KAPITULUA KENKARIA OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEAGATIK

68. artikulua. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua.

1. Oro har, ohiko etxebizitzatzat hartuko da zergadunak gutxienez hiru urteko epe jarraituan egoitza gisa daukan edozein eraikin.

Hala ere, etxebizitza ohiko etxebizitzatzat hartuko da, epe hori igaro ez arren, baldin eta zergaduna hil bada, edo ezinbestez etxebizitza aldatzera behartzen duten zirkunstantziak gertatu badira. Zirkunstantzia horiek honako hauek dira: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren ezintasun- mailara edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaide baten, ezkontidearen edo izatezko bikoteko kidearen ezintasun-mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsona baten ezintasunmailara; senar-emaztegaiak ezkontzea; senar-emazteak banantzea; izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea; lehen enplegua lortzea edo enplegua aldatzea; epe horretan etxebizitza ez ordaindu ezin izatea dakarten zirkunstantzia ekonomikoak, edo arrazoitutako antzeko beste zirkunstantziak gertatzea.

Ez dira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartuko lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak, garajeak, eta, oro har, eranskinak edo beste edozein osagai edo elementu, etxebizitza berez ez dena, salbu eta elementu horiek etxebizitzarekin batera erregistroko finka bakar bat direnean.

Famili unitateko kideak hiri-lurreko ondasun higiezin bat baino gehiagoren titularrak badira, horietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitza legez. Horretarako, famili unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

2. Etxebizitza bat zergadunaren ohiko bizilekua izan dadin, benetan eta iraunkortasunez bizi behar du zergadunak berak hartan, hamabi hilabeteko epean zehar, etxebizitza erosi edo obrak amaitu direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, etxebizitzak ez dio ohikoa izateari uzten honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

- a) Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitzan bizitzea nahitaez eragozten duten bestelako inguruabarrak gertatzen direnean, artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

- b) Zergadunak ohiko etxebizitza duenean kargu edo enpleguaren zioz, eta eskuratutako etxebizitza erabiltzen ez duenean; horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea, lehen aipatutakoa, kargua edo enplegua uzten duen egunetik aurrera zenbatuko da.

Lokalak etxebizitza gisa gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasiko da zenbatzen paragrafo honen lehenengo lerroaldean aipatzen den hamabi hilabeteko epea..

- 3. Aurreko paragrafoetan ezarritako salbuespenak aplikatzekoak direnean, etxebizitza aldatzea nahitaez dakarten edo etxebizitzan bizi eragozten duten inguruabarrak gertatu arte egingo da ohiko etxebizitza erosteko enkaria, salbu eta zergadunak kargu edo enpleguaren zioz erabiltzen duenean ohiko etxebizitza; horrelakoetan, kontzeptu honen ziozko enkariak egin ahal izango ditu, egoera horrek dirauen bitartean, eta etxebizitza erabiltzen ez bada.

Ondorio horietarako, aurrekoarekin parekatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzea eta, gainera, etxebizitza famili unitatetik kanpoko pertsonak ez erabiltzea.

- 4. Zergari buruzko Foru Arauko 44.b) eta 51. artikuluetan jasotzen diren salbuespenak aplikatzeko bakarrik, zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela ulertuko da artikulua honetan jasotakoaren arabera eraikin hori une horretan bere ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetako edozein egunetara arte halakotzat hartu denean.

69. artikulua. Ohiko etxebizitza erostea.

- 1. Honako kasu hauek ohiko etxebizitza erostean parekoak dira:

- a) Etxebizitza handitzea; baldin eta bizi izateko den azalera handitzen bada, bai haize ageriko aldea itxiz, bai beste edozein, modu iraunkorrean eta urtaro guztietan zehar.
- b) Ohiko etxebizitza eraikitzea; zergadunak zuzenean ordaintzen baditu obrak egitearen ondoriozko gastuak, edo konturako kopuruak ematen badizkio obren sustatzaileari, beti ere obra horiek, gehienez, lau urteko epean amaitzen direnean, inbertsioa hasten denetik zenbatuta.
- c) Higiezinaren azalera-eskubidearen erostea; baldin eta higiezin hori ohiko etxebizitza izango bada, betiere herri titulartasuneko lurzoruen gainean eraikitzen denean.
- d) Ohiko etxebizitza egokitzeko egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldarazteko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri-lurreko finkaren eta herriko bidearen artean, berbarako, eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai, eta ezinduek zentzumen-komunikaziorako dauzkaten oztopoak gainditzeko edo pertsona horien segurtasuna hobetzeko balio duten dispositibo elektronikoak ezartzeko egiten direnak ere bai.

Era berean, kontzeptu honen barruan sartuta daude idatz-zati honetako azken lerroaldean aipatzen diren pertsonetako batek errentari, azpierrenerari edo gozamedun gisa okupatutako etxebizitzetan egiten diren egokitze lan eta instalazioak.

Egokitze obra eta instalazioei dagokienez, araudi honetako 67. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatian aipatzen diren organoetako batek ziurtatu behar du beharrezkoak direla ezinduen irisgarritasunerako eta zentzumen-komunikaziorako, hau da, haiek duintasunarekin eta modu egokian bizi izateko.

Aipatu obrak honako hauek eginak behar dute izan: ezgaitua den zergadunak, ezgaitua den aurreko edo ondorengo ahaide batekin, ezgaitua den ezkontidearekin edo izatezko bikoteko kidearekin bizi den zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 84. artikuluan jasotzen den enkaria egiteko eskubidea ematen dion pertsona ezindu batekin bizi den

zergadunak eta, azkenik, beren ohiko etxebizitzaren elementu erkideak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabekideek.

2. Epaileak onartutako konkurtsoaren ondorioz sustatzaileak ez baditu eraikuntza obrak lau urteko epea igaro baino lehen amaitzen, hau da, artikuluko 1. idatz-zatiko b) letrak aipatzen duena igaro aurretik, edo ezin baditu etxebizitzak epe berean eman, orduan epe hori beste lau urterako luzatuko da.

Kasu horietan, hamabi hilabeteko epea, aurreko artikuluko 2. paragrafoko lehenengo erroaldean aipatzen dena, etxebizitza ematen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Paragrafo honetan ezartzen epe luzatzeak ondorioak izan ditzan, zergadunak zergaldiko autolikidazioari, hau da, hasierako epea bete ez den zergaldikoari, etxebizitzan egindako inbertsioak egiaztatzen dituzten frogagiriak eranstean behar dizkio, edo egoera horietarik bat gertatu dela frogatzen duen agiria.

Paragrafo honetako kasuetan, zergadunak ez du ezein sarrerarik egin beharko, eraikuntza obrak amaitzeko lau urteko epe orokorra ez betetzearen zioz.

3. Zergadunari leporatu ezin zaizkion eta obrak eteta dakarten salbuespeneko bestelako inguruabarren bat dela-eta obra horiek ezin badira amaitu artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den lau urteko epea igaro baino lehen, orduan zergadunak epea luzatzeko eskatu ahal izango dio Zerga Administrazioari, lau urteko epea betetzen ez den egunaren ondorengo hilabetearen barruan.

Eskabidean agertu beharko dute epea ez betetzea sortarazi duten zioak, bai eta eraikuntza obrak amaitzeko beharrezkotzat hartzen den denboraldia ere; denboraldi horrek ezin du lau urtetik gorakoa izan.

Aurreko erroaldean adierazitakoari dagokionez, zergadunak frogagiri egokia ekarri beharko du.

Agiriak ekarriko dira eta, horiek ikusita, Zerga administrazioak erabakiko du eskatu den luzapen hori bidezkoa denentz, bai eta zenbatekoa izango den luzatuko den epea ere; eta epe horrek ez du nahitaez zergadunak eskatutakoa izan behar.

Epeak luzatzeko egindako eskaerak ezetsizat joko dira baldin eta eskaerok ez badira hiru hilabeteko epean beren-beregi ebatzen.

Luzapena ematen bada, ez-betetzea gertatzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

4. Honako hauek ez dira etxebizitza erosketatzat hartuko:
 - a) Artapen edota konponketa gastuak, araudi honetako 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - b) Hobekuntzak.
 - c) Garaje-sailak, lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak erostea, eta, oro har, eranskinak edo beste edozein osagai erostea, baldin eta horiek ez badira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barrukoak, araudi honetako 68. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera.
5. Birgaitzetat hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestuzat kalifikatu edo aitortu baditu, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo babesteko jarduketatzat kalifikatu badira, hala badagokio, 2008ko abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo antzekoak diren ordezkio arauak ezarritakoari jarraituz.

Aurreko lerroaldean jasotako ondorioetarako, jabeak ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira zergadunak bere lokal bat etxebizitza gisa gaitzeko asmoz lokal horretan egindako lanak, baldin eta zergadunaren ohiko etxebizitza izango bada araudi honetako 68. artikuluan xedatzen denaren arabera.

70. artikulua. Etxebizitza kontuak.

1. Kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen motatatik bereizitako kontuetan, gordailutatako kopuruak ohiko etxebizitza erostearekin parekatuko dira, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak zergadunaren ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira sei urte baino lehen.

Dena den, gordailutatako kopuruak beste etxebizitza kontu batean ezarri arren ez da betetzat hartuko azken baldintza hori.

2. Kenkaria egiteko eskubidea galduko da honako kasu hauetan:
 - a) Zergadunak etxebizitza kontuan gordailutatako kopuruak, kenkaria egiteko eskubidea sortarazi dutenak, ohiko etxebizitza erosteko ez beste xede baterako erabiltzen baditu eta zergaren sortzapena gertatu aurretik kreditu-erakunde bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik birjartzen ez badira edo kontu horretara aldatzen ez badira. Baldin eta gordailutatako kopuruaren zati bat erabiltzen bada, orduan ulertuko da erabiltzen diren kopuruak zergadunak lehenengo gordailututa zituenak direla.

Kontuan hartu behar da ezen 2012rako eta 2013rako zenbait xedapen iragankor eta zergen arloko beste neurri batzuk onartzen dituen otsailaren 29ko 1/2012 Foru Arauaren [BIZKAIA] (martxoaren 8ko B.A.O.) 2. xedapen iragankorrean ondokoa ezarririk dagoela: "Baldin eta, horrelako kontuen kasuan, 2012ko urtarrilaren 1^a eta 2012ko abenduaren 31 bitartean amaitzen bada (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko) abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89.5.b) artikuluan eta (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen) azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuko 70.1 artikuluan aipatutako epea, orduan 7 urteko epea egongo da gordailutatako kopuruok ohiko etxebizitza erosteko erabiltzeko, kontua ireki zen egunetik zenbatuta. Aurreko lerroaldearen baldintzekin bat etxebizitza-kontuan gordailututa dauden kopuruak eskubidea emango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89. artikuluan ezartzen den kenkaria egiteko.

Ikusi 3/2009 Foru Arauan [BIZKAIA], Bizkaiko Lurralde Historikoko 2010 urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, 1. xedapen gehigarria (abenduaren 28ko BAO), ohiko etxebizitza erosteko bideratzen diren kontuetan sartutako kopuruak gauzatzeko epea luzatzeari buruzkoa.

- b) Sei urte igaro badira kontua ireki zenetik, baina kenkaria egiteko eskubidea sortarazi duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez badira.
 - c) Ondoren egiten den ohiko etxebizitzaren erosketak erosten denean kenkari honetarako eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez baditu.
3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bat bakarrik izan dezake.
 4. Etxebizitza kontuak bereizita identifikatu behar dira Zergaren autolikidazioan; eta, gutxienez, honako datu hauek jarriko dira:
 - Kontuari dagokion entitatea.
 - Kontuaren zenbakia.
 - Kontuaren irekitze data.

Ekitaldian zenbatean gehitu den kontuaren saldoa.

5. Egindako kenkariak egiteko eskubidea galduz gero, zergadunak honako hauek batu beharko dizkio kenkarirako baldintzak bete ez dituen zergaldiko zergaren kuotari: kendutako kopuruak gehi Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluan aipatzen dituen berandutza interesak.

71. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik eta salbuespena berrinbertitzeagatik.

Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatiko salbuespena aukeratzen bada, zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 90. artikuluko 3. paragrafoan jasotzen den 36.000 euroko zifra gutxitu ahal izateko, lehendabizi, ondare-irabazi salbuetsiaren %18 egotzi behar du etxebizitza saldu duen ekitaldian.

72. artikulua. Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita.

1. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitza dela-eta Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren diru kopuruetakoa bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak eskubidea izango du artikuluko horretan aipatutako kenkaria egiteko bere autolikidazioan.

Kasu horretan, kenkari gisa erabilitako kopuruak gutxitu egingo dute zergadun horren Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluan aipatzen den 36.000 euroko zifra.

2. Betebehar hori bi zergaduneri ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 4. paragrafoan zehazten diren ehunekoak eta muga aplikatuta.
3. Zergadun batek, batetik, familiaren etxebizitzarako diren kopuruak ordaintzen baditu, aurreko paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan, eta, bestetik, zergadunaren beraren ohiko etxebizitza eskuratzeko beste zenbateko batzuk ordaintzen baditu, orduan, %23ko portzentajea aplikatuko du, 2.300 euroko mugarekin.

Orobat, zergadunak Zergari buruzko Foru Arauko eta araudi honetan ezarritako gainerako baldintzak eta mugak ere aplikatuko ditu.

III. KAPITULUA KENKARIA EKONOMI JARDUERA BATEN HASIERAN INBERTITZEKO KREDITU- ERAKUNDEETAN EGITEN DIREN GORDAILUENGATIK

73. artikulua. Kenkaria aplikatzeko betekizunak.

1. Zergadunak kenkaria aplikatu ahal izango dute kreditu-erakundeetan, ezarpen mota guztietatik bereizitako kontuetan, ekonomi jarduera bati ekiteko gastuetarako eta inbertsioetarako gordailatzen dituzten kopuruak direla eta, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan ezarritako betekizunen eta inguruabarren arabera.
2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontuaren saldoa kontua zabaldu eta hiru urte igaro baino lehen erabili behar da eta bakarrik erabili daiteke ekonomi jarduera bati ekiteko edo Sozietateen gainerako Zergaren kargapeko entitate sortu berri baten partaidetza harpidetzeko.

Kenkari honi dagokionez, zergadunak ekonomi jarduera berriari ekin diola ulertuko da baldin eta aurretik antzekorik egin ez badu, ez zuzenean ez zeharka.

Ikusi 3/2009 Foru Arauko [BIZKAIA], Bizkaiko Lurralde Historikoko 2010 urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, 3. xedapen gehigarria (abendua 28ko BAO), jardun ekonomiko bat hasteko inbertsiorako kreditu erakundeetan gordetzen diren kopuruak aplikatzeko epea luzatzeari buruzkoa.

3. Kenkaria egiteko eskubidea galduko da honako kasu hauetan:
 - a) Zergadunak artikuluko honetako aipatutako kontuan gordailatutako kopuruak, kenketa egiteko eskubidea sortarazi dutenak, aurreko paragrafoan adierazitako xedeetarako ez beste baterako erabiltzen baditu eta zergaren sortzapena gertatu kreditu-erakunde bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik birjartzen ez badira edo kontu

horretara aldatzen ez badira. Baldin eta gordailatutako kopuruen zati bat erabiltzen bada, orduan ulertuko da erabiltzen diren kopuruak zergadunak lehenengo gordailatuta zituenak direla.

- b) Hiru urte igaro badira kontua ireki zenetik, baina kenkaria egiteko eskubidea sortarazi duten kopuruak artikuluko honetako 2. paragrafoan zehazten den xederako erabili ez badira.
 - c) Hasitako ekonomi jarduerak kenkari honetarako eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez baditu.
4. Zergadun bakoitzak kontu bat bakarrik izan dezake artikuluko honetako 2. paragrafoan zehazten den xederako kopuruak gordailatzeko, eta zergadun bakoitzak behin bakarrik baliatu ahal du kenkarirako eskubidea.
5. Mota honetako kontuak bereizita identifikatu behar dira Zergaren autolikidazioan; eta, gutxienez, honako datu hauek jarriko dira:
- Kontuari dagokion entitatea.
 - Kontuaren zenbakia.
 - Kontuaren irekitze data.
 - Ekitaldian zenbatean gehitu den kontuaren saldoa.
6. Egindako kenkariak egiteko eskubidea galduz gero, zergadunak honako hauek batu beharko dizkio kenkarirako baldintzak bete ez dituen zergaldiko zergaren kuota: kendutako kopuruak gehi Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko aipatzen dituen berandutza interesak.

VI. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOAK

74. artikulua. Autolikidazioa egiteko betebeharra.

1. Zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko autolikidazioa aurkeztu eta sinatu behar dute, Zergari buruzko Foru Arauko 104. artikuluan eta araudi honetan xedatutakoaren arabera.
2. Autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo bereziaz baliatzeko modua Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsiko ditu. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du aitortpena nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta autolikidazioa baliabide telematikoen bidez zein kasutan eta nola aurkez daitekeen ere.

Autolikidazioak aurkezterakoan, zergadunek beraiei buruz eskatzen zaizkien datu guztiak bete behar dituzte, eta haiekin batera dagoeneko ezarrita dauden edo ezarriko diren agiriak eta frogagiriak aurkeztu behar dituzte.

3. Zerga batera ordaintzea hautatuz gero, famili unitateko kide adin nagusiek sinatu eta aurkeztu behar dute aitortpena; kide horiek famili unitateko seme-alaben ordezkari legez jardungo dute, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 44. artikuluan xedatu bezala.
4. Autolikidazioak egiteko, horretarako dauden bitarteko eta prozesu informatikoak edo beste mota batekoak edo horretarako dauden zerbitzuak erabili daitezke, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako baldintzetan.

75. artikulua. Autolikidazioa egiteko betebeharraren salbuespenak.

1. Zergadunek ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko betebeharririk izango, eurek lortutako errenten jatorria honako hau bakarrik denean:
 - a) Lanaren etekin gordinak, urtean 12.000 euroko mugarekin banako zerga-ordainketan, araudi honetako hurrengo artikuluko h) idatz-zatian ezarritako kasuetako batean egon ezean. Muga hori, baterako zerga-ordainketan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.
 - b) 12.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lanaren etekin gordinak urtean, banako zerga-ordainketan, araudi honetako hurrengo artikuluan ezarritako kasuetako batean egon ezean. Muga hori, baterako zerga-ordainketan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.
 - c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak (kasu bietan, salbuesitakoak barne) batuta, haien urteko kopuru gordina 1.600 euro baino gehiago ez bada.
2. Aurreko paragrafoan jasotzen dena eragotzi gabe, konturako ordainketen itzulketa lortzeko derrigorrez aurkeztu behar da autolikidazioa.

76. artikulua. Autolikidazioa egiteko betebeharraren kasu bereziak.

1. Aurreko artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuetan, honako egoera hautakoren batean daudenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar dute:
 - a) Batetik, zergaldian zehar ordaintzaile batek baino gehiagok ordaindutako etekinak jasotzen dituzten zergadunek, edo, etekinak ordaintzaile batengandik bakarrik jasotzen dituzten zergadunek, baldin eta etekinok ordaintzaileak ez baditu metatzen haiei dagokien atxikipena kalkulatzeko, etekin horiek kontzeptu beragatik edo ezberdinengatik ordaindu dizkielako zergadunei. Bestetik, zergaldian zehar lan-kontratu bat baino gehiago edo lan-harreman -administratiboa nahiz bestelakoa- bat baino gehiago sinatu duten zergadunek.
 - b) Kontratu edo harreman baten hasieran hitzartutako epealdia amaitutakoan enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen duten zergadunek, edo zergaldi berean berriro egiten dizkiotenen, bai eta lan-kontratua edo lan-harremana -administratiboa nahiz bestelakoa- luzatu dutenek ere.
 - c) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak emandako konpentsazio-pentsioak edo mantenu-urtekoak jasotzen dituzten zergadunek, gurasoek epai-erabaki bidez jasotzen dituzten mantenu-urtekoak ez badira.
 - d) Foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu diren edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiren batean ordaindu ez diren lanaren atxikipenak edo konturako sarrerak jasan dituzten zergadunek.
 - e) Ordainsariak gizalanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten zergadunek.
 - f) Arrantza-ontzietako langileek, baldin eta ordainsari gisa, ordainsari oso edo partzial gisa, harrapatutako arrantzaren balioaren edo bolumenaren parte bat jasotzen badute.
 - g) Eraitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorak jasotzen dituzten zergadunak, baldin eta ordainsari horiek atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea Zergari buruzko Foru Arauko 109. artikuluan jasotzen den moduan kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.
 - h) Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo inguruabarretako bat betetzen ez duten zergadunek,

baldin eta ez-betetze horrek berarekin badakar Zerga Administrazioari inguruabar hori jakinarazi behar izatea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

2. Aurreko paragrafoko a) idatz-zatitik g) idatz-zatira jasotzen diren egoeretako batean egoteagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztera behartuta dauden pertsonak honako aukera hauek dituzte:
 - zerga Zergaren xedapen orokorren arabera ordaintzea, edo.
 - zerga soilik lanaren etekinak kontuan hartuta ordaintzea, honako erregela hauen arabera:
 - a) Lanaren etekinetarako finkatutako atxikipen-portzentajeen taulak aplikatuko zaizkio sortutako etekin mota horren zenbateko osoari, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden etekinei izan ezik. Ondorio horietarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoak zehazteko zein atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko zergaren sortzapen egunean indarrean dauden erregelak hartuko dira kontuan.
 - b) Aurreko a) idatz-zatian ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari lanaren etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa gutxituko zaio. Hortik ateratzen den kopurua ordaindu behar zaio Foru Aldundiari, eta araudi honetako 77. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen denaren arabera zatikatu daiteke. Zergak ordaintzeko prozedura hau erabiliz gero, inoiz ez da itzulketarik egingo.
 - c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kengarririk, hobaririk, murrizketarik, kenkaririk, baterako zerga-ordainketarako erregelarik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian jasota dagoen beste edozein onurarik.

77. artikulua. Autolikidazioa eta zerga-zorra sartzea.

1. Zergadunek, autolikidazioa aurkezten dutenean, zehaztu egin behar dute zein den euren zerga-zorra, bai eta sartu ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen leku, era eta epeetan.
2. Autolikidazioaren emaitza gisa ateratzen den zenbatekoa zatika sartu ahal izango da, interesik eta errekaririk gabe, zati bitan:
 - a) Lehenengo zatia, zenbatekoaren %60, autolikidazioa aurkezten denean sartuko da;
 - b) Bigarrena, gainerako %40a, autolikidazioa aurkezten den urteko azaroaren 10a baino lehen.

Ordainketa prozedura horri heldu ahal izateko, beharrezkoa izango da autolikidazioa horretarako ezarrita dagoen epearen barruan aurkeztea. Autolikidazio osagarriak ezin dira, aurreko lerroaldean ezarritako prozeduraren arabera, zatika sartu.

3. Autolikidazioa egiteko zerbitzu edo modalitate bereziak erabiltzen badira, autolikidazioaren emaitza gisa ateratzen den zenbatekoa aitortzen aurkeztu eta ondorengo une batean ordaindu daitekeela xedatu ahal izango da.
4. Salbuespeneko kasuetan, Foru Aldundiak, egoki irizten dizkien txostenak egin eta gero, zerga-zorra eta zigorrak, halakorik egonez gero, zeinahi ondasun edo eskubide emanek kitatzea onartu ahal izango du.

78. artikulua. Administrazioaren kabuz egiten diren itzulketak.

Zergari buruzko Foru Arauko 113. artikuluan aipaturiko itzulketak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak egoki irizten dizkien dituen prozeduren bidez egingo dira.

II. KAPITULUA **BETEBEHAR FORMALAK ETA KONTABILITATE ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK**

LEHENENGO ATALA **ZERGADUNEN BETEBEHAR FORMALAK**

79. artikulua. Betebehar formalak, oro har.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek betebeharra dute, preskripzioaren epean edo iraungipenaren epean zehar edo, bestela, horiek biek baino handiagoa denean soilik, beren-beregi adierazitako epean zehar, eragiketa, errenta, gastu, sarrera, txikipen eta kenkarien frogagiri eta egiaztagiriak gordetzeko, baldin eta horiek guztiek agertu behar badute zergadunen autolikidazioetan. Horrez gain, zergadunek agiriok aurkeztu behar dituzte zergaren autolikidazioekin batera, horrela ezartzen denean, eta Zerga Administrazioari erakutsi beharko dizkiote, horretarako agindeia jasotzen dutenean.

BIGARREN ATALA **KONTABILITATE ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK ZUZENENKO** **ZENBATESPENAREN METODOAN**

80. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntari heltzen dioten zergadunen betebeharrak

Zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta ekonomi jarduerak egin eta jardueron etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate arruntean zehazten badute, kontabilitatea Merkataritza Kodean xedaturikoaren arabera egiteko betebeharra dute. Horrekin batera, Sozietateen gaineko Zergaren inguruan ezarritako edo ezar daitezkeen erregistro lagungarriak egiteko betebeharra ere badute.

81. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuari heltzen dioten edo merkataritza izaerarik gabeko ekonomi jarduera egiten duten zergadunen betebeharrak.

Zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta ekonomi jarduerak egin eta jardueron etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztuan zehazten badute edo eurek egindako ekonomi jarduera merkataritza izaerarik ez badu, Merkataritza Kodearen arabera, honako liburu-erregistro hauek egiteko betebeharra dute:

- a) Salmenta eta sarreren liburu-erregistroa; bertan jarriko dira jarduera egitearen ondoriozko salmenta eta sarrerak, eta honako jakingarri hauek adieraziko dira, gutxienez:
 - Idatzoharraren zenbakia.
 - Salmenta edo sarrera bakoitza sortu den data, denboraren arabera ekoizketa egiteko hartu den irizpidearen arabera.
 - Fakturaren edo haren agiri baliokidearen edo ordezkioaren zenbakia; izan ere, agiri horretan agertu behar du salmentak edo sarrerak. Fakturarik edo fakturazioaren agiririk luzatu beharrik ez dagoenean, salmentei eta sarrerei hurrenez hurrenko zenbakiak emango zaizkie, eta liburu-erregistroan idatziko da bakoitzari dagokion zenbakia.
 - Salmenta edo sarrera sortu duen kontzeptua.
 - Zenbatekoa, sortu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa bereiz jarrita.
- b) Erosketa eta gastuen liburu-erregistroa; bertan jarduera egitean sortutakoak agerraraziko dira, eta gutxienez honako jakingarri hauek adierazi behar dira:
 - Idatzoharraren zenbakia.

- Erosketa edo gastu bakoitza egin den eguna, denboraren arabera egozketa egiteko hartu den irizpidearen arabera.
 - Igorlearen izen-abizenak edo bere sozietatearen izena.
 - Gastua sortu duen kontzeptua, behar bezala xehekatua.
 - Erosketa eta gastuen zenbatekoa, jasan duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa bereiz jarrita.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua. Liburu horretan ibilgetu materialeko zein ez-materialeko osagaiak erregistratuko dira, behar bezala bereizirik, baldin eta osagaiok zergadunak egiten duen jarduerari loturik badaude, eta erosketa eta gastuen liburu-erregistroan inskribatuta dauden kontuan hartu gabe. Honako jakingarri hauek adierazi behar dira, gutxienez:

Ibilgetu materialaz denaz bezainbatean, ondasun bakoitzeko, honako jakingarri hauek idatzi behar dira:

- Idatzoharraren zenbakia.
- Ondasunaren deskripzioa, ondasuna behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adieraziz.
- Eskuraketa balioa.
- Ondasuna erabiltzen hasi den eguna.
- Ondasunari dagokion amortizazio kuota eta, hala behar denean, errebertsio fondorako zuzkidura.

Ibilgetu ez-materialaz denaz bezainbatean, osagai bakoitzeko, honako jakingarri hauek idatzi behar dira:

- Idatzoharraren zenbakia.
- Ondasunaren deskripzioa, ondasuna behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adieraziz.
- Eskuraketa balioa.
- Ondasuna eman edo eskuratu den eguna.
- Ondasunari dagokion amortizazio kuota, horrelakorik denean.

Hala ibilgetu materialari dagokionez, nola ibilgetu ez-materialari dagokionez, ondasun edo eskubidearen baja ere agerrarazi behar da, eta baja horren data eta zioa azaldu behar dira.

82. artikulua. Lanbide-jarduerak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.

1. Zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta lanbide-jarduerak egiten badituzte, sarreren liburu-erregistroa egiteko betebeharra dute, bai eta gastuen liburu-erregistroa eta inbertsio ondasunen liburu-erregistroa egitekoa ere, aurreko artikuluan jasotzen diren arauen arabera.
2. Era berean, zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta lanbide-jarduerak egiten badituzte, fondo hornikuntzen eta aurrerakinen liburu-erregistroa egiteko betebeharra dute. Liburu-erregistro horretan, honako jakingarri hauek idatzi behar dituzte:

- Idatzoharraren zenbakia.
- Eragiketaren izaera (hornidura ala aurrerakina).
- Hornidurak edo aurrerakinak sortu edo ordaindu diren eguna.
- Fondo horniduren eta aurrerakinen zenbatekoa.
- Hornidura ordaindu duenaren edo aurrerakina hartu duenaren izen-deiturak edo sozietatearen izena.
- Fakturaren zenbakia edo eragiketa jasotzen duen antzeko edo ordezeko agiriarena. Fakturarik, agiri baliokiderik edo ordezeko agiririk luzatu beharrik ez dagoenean, orduan fondoei eta aurrerakinei hurrenez hurreneko zenbakiak emango zaizkie, eta liburu-erregistroan idatziko da bakoitzari dagokion zenbakia.

HIRUGARREN ATALA KONTABILITATE ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN METODOAN

83. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodoari heltzen dioten zergadunen betebeharrak.

1. Ekonomi jarduerak egin eta jardueron etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaz zehazten duten zergadunek, etekina metodo horren bidez zehazten zaien jarduerengatik, ez dute kontabilitateko liburu edo erregistrorik egiteko betebeharririk, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez.
2. Hala eta guztiz ere, metodo honi heldu dioten zergadunek eurek luzatzen dituzten fakturak gorde beharko dituzte, zenbatuta, eta daten araberako hurrenkeran eta hiru hileka elkarturik, baldin eta faktura horiek enpresari eta profesionaleri faktura luzatu eta emateko dagokien eginbeharrari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera luzatu badituzte. Aurreko faktura horiz gainera, eurek jasotzen dituzten fakturak eta bestelako frogagiriak gorde behar dituzte, bai eta, hala denean, zeinu, indize edo moduluak onesten dituen xedapenak kasuan-kasuan ezartzen duenaren arabera aplikatutako zeinu, indize edo moduluen frogagiriak ere.

LAUGARREN ATALA ARAU ZEHATZAK

84. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.

1. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta ekonomi jarduerak egiten badituzte, nahitaezko liburu bakarrak izango dituzte, egindako jarduerari dagozkionak, entitateok beren bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei esleitu behar dizkieten etekinak gorabehera.
2. Aurreko paragrafoan ezarritako arau bera aplikatuko zaie testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiei, ahalordea erabili bitartean, baldin eta ekonomi jarduerak egiten badituzte, haien etekinen egozpenari buruz araudi honen 62. artikuluan ezarri diren erregelak gorabehera.

85. artikulua. Erregistro-liburuak eramateko betebeharraren salbuespena.

Kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten duten zergadunek ez dute kapitulu honetako aurreko artikuluetan ezarritako erregistro-liburuetakoa bat ere eramane behar.

86. artikulua. Kutzako liburua

Kutzako liburua eramateko betebeharra, Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluan aipatzen dena, bakar-bakarrik dagokie Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen jarduera alorretan sartuta dauden zergadunei.

BOSGARREN ATALA ERREGISTRO-LIBURUAK ERAMATEKO MODUA ETA DILIGENTZIATUA

87. artikulua. Erregistro-liburuak baliabide informatikoez eramatea.

Zergaren ondorioetarako eska daitezkeen liburu, fakturazio edota erregistroak baliabide informatikoez egiten badira, orduan honako fitxategi informatiko hauek ere gorde behar dira:

1. Informatika aplikazioekin sortutako datuen fitxategiak, hala historikoak nola nagusiak, baldin eta haietatik sortzen badira diligentziatu behar diren liburuak.
2. Programen fitxategiak, aurreko datuen fitxategiak prozesatzen dituztenak.

88. artikulua. Idatzoharrak liburuetan.

1. Baliozkoa izango da idatzoharrak edozein prozedura egokiz egitea orrien gainean, eta orri horiek, gero, hurrenkeran azalezkatu behar dira, nahitaezko erregistro-liburuak eratzeko.
2. Idatzoharrak egiten badira kapitulu honetan adierazten diren erregistro-liburuetan, orduan daten hurrenkeran egin behar dira, tarte zuririk laga gabe, bitartean ezer sartu gabe, ezabatzerik eta lardaskatzerik gabe, eta egutegiko hiruhilekoen eta urteen arabera batuko dira beti. Horren ondoren, eta erreparatu bezain laster, egindako idatzoharretan jasandako oker edo ez-aipatzeak zuzendu behar dira.
3. Enpresari eta profesionalek faktura luzatu eta emateko duten eginbeharrari buruzko arategiak ezarritakoaren arabera, ez badago betebeharririk fakturarik, agiri baliokiderik edo ordezkoko agiririk luzatzeko, orduan eguneroko idazpen-laburpena egin ahal izango da, fakturazio-agiririk izan ez duten eragiketa guztiak jasotzeko.
 - Idazpen horretan gutxienez honako datu hauek agerrarazi behar dira:
 - Idatzoharrak liburuetan.
 - Idatzoharraren zenbakia.
 - Idazpenaren eguna.
 - Fakturarik gabeko eragiketen idazpen laburgarria dela aipatzea. - Zenbatekoa, sortu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa alde batera, bereiz, jarrita.
4. Egun berean egindako fakturak, agiri baliokideak edo ordezkoak laburpenerako idazpen orokor batean idatzi ahal izango dira, baldin eta zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontuan hartu gabe, 6.000 eurotik gorakoa ez bada. Idazpen horretan, fakturen data, zenbakia, zerga-oinarri orokorra, zerga tasa eta kuota osoa agertuko dira.
5. Egun berean jasotako fakturak laburpenerako idazpen orokor batean idatzi ahal izango dira, baldin eta, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita, fakturen zenbateko osoa 6.000 eurotik gorakoa ez bada eta faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen banakako zenbatekoa 500 eurotik gorakoa ez bada. Idazpen horretan honako datu hauek adierazi beharko dira: hartzaileak jaso dituen fakturei esleitu dizkien zenbakiak, zerga-oinarrien batura osoa eta jasandako BEZaren zerga kuota osoa.

89. artikulua. Erregistroko idatzoharrak egiteko epea.

Eragiketak erregistroan idatzohartu behar badira, dagokien erregistro-liburuetan idatzi behar dira, zatikako ordainketak aitortu eta sartzeko dagoen epea, araudi honetan aipatutakoa, amaitu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, zergadunak eragiketak egiten baditu, baina horien gainean fakturarik egiten ez badu, edo fakturen agiri baliokideak edo haien ordezkoko agiriak egiten baditu, orduan eragiketa horiek zazpi eguneko epean jaso behar dira erregistro-liburuetan, eragiketak egiten direnetik edo agiriak egiten direnetik aurrera, baldin eta epe hori laburragoa bada aurreko erroaldean adierazitakoa baino.

90. artikulua. Jarduera lokabeak.

Zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek hainbat jarduera egiten badituzte, orduan liburu lokabeak egin behar dituzte jarduera horietako bakoitzarentzat, eta lehenengo orrian agertu beharko dute zein jarduerari dagokion liburu bakoitza.

91. artikulua. Bateragarritasuna beste liburu batzuekin.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek liburu edo erregistro batzuk egin behar dituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zergan erregistro eta kontabilitatearen aldetik ezarrita dauden betebeharrak betetzeko, bada, liburu eta erregistro horiek zerga honetarako erabili ahal izango dira, baldin eta kapitulu honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

SEIGARREN ATALA ERREGISTRO-LIBURUAK DILIGENTZIATZEKO ERAK

92. artikulua. Aurkezteko epea.

1. Kapitulu honetako erregistro-liburu guztiak, behin bete eta gero, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean aurkeztu behar dira, sailak berak diligentzia ditzan, zergaldiaren amaieraren eta zergaldi horretako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epearen amaieraren artean.
2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak epe bereziak ezarri ahal izango ditu, zergadunen talde edo arlo jakin batzuen erregistro-liburuak diligentziazteko.

Epe berezi horiek zergaldia amaitu eta hiru hilabete igarotakoan hasiko dira.

93. artikulua. Aurkezteko tokia.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, baldin eta erregistro-liburuak aurkeztu behar badituzte diligentziazteko, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera, eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, baldin eta enpresa edota lanbide-jarduerak egiten badituzte, orduan, zergadun eta entitate horiek liburuak aurkeztuko dituzte Ogasun eta Finantzen Foru Saileko Errenta eta Ondare Atalean edo, bestela, sail horretako bulego deszentralizatuetan.

94. artikulua. Erregistro-liburuak diligentziazteko organo eskuduna.

Ogasun eta Finantzen Foru Saileko Errenta eta Ondare Atala izango da erregistro-liburuak diligentziazteko eskuduna, edo, bestela, Ogasun eta Finantza Sailaren bulego deszentralizatuetakoa Zergadunarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzua.

95. artikulua. Diligentziazteko betebeharratik salbuestea.

1. Honako zergadun hauek diligentziazteko betebeharratik salbuetsita daude:

- a) Enpresa-jarduerak eginagatik, alokairupeko langilerik ez dutenek.
 - b) Kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten dutenek, baldin eta aurretik diligentziatu badira.
2. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitate hauek ere diligentziazeko betebeharretik salbuetsita daude:
- a) Enpresa-jarduerak eginagatik, alokairupeko langilerik ez dutenek.
 - b) Jabetza Horizontalari buruzko 1960ko uztailaren 21eko Legearen itzalpean eratuta dauden jabeen erkidegoek.

96. artikulua. Erregistro-liburuak diligentziaz

1. Kapitulu honetan aipatzen diren erregistro-liburuak bete eta gero, eta 92. artikuluan ezarritako epearen barruan, liburu horiek bulego eskudunetara aurkeztuko dira, diligentziazeko.
2. Erregistro-liburuak diligentziazean honako hauek adierazi behar dira berariaz:
 - a) Liburuaren titularraren deiturak eta izena edo sozietatearen izena, bai eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia ere.
 - b) Erregistro-liburuak liburuaren titularraren izenean aurkezten dituenaren identifikazio datuak, eta beren-beregi aipatuko dira haren izen-deiturak, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - c) Erregistro-liburuak aurkeztu diren eguna.
 - d) Enpresa edo lanbide-jarduerak, eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergako epigrafea, behar denean.
 - e) Aurkeztutako erregistro-liburuaren mota, eta liburuaren liburuki kopurua, baldin eta bat baino gehiago badago zergaldi bererako.
 - f) Erregistro-liburuko idatzoharrei dagokien zergaldia; zergaldiaren lehen eta azken eguna aipatu behar dira.
 - g) Diligentziaz den erregistro-liburutik zergaldian zehar erabilitako orrien kopurua, zergaldi horretan zehar egindako oharren kopurua eta ohar horietako azkenaren data.
 - h) Diligentzia egiten den eguna eta funtzionario eskudunaren sinadura.

Era berean, diligentzian agertuko da tarte zuririk dagoen, edo ezabatzerik edo lardaskatzerik dagoen, baldin eta horrelakoren bati erreparatzen bazaio. .
3. Aurrekoa gorabehera, zergapekoek kapitulu honetako erregistro-liburuak diligentziazeko aurkeztu behar badituzte, 04 ereduaren bidezko jakinarazpena aurkeztuz bete dezakete betebehar hori; hori eginez gero, ez da beharrezkoa izango erregistro-liburuak Zerga Administrazioaren organoetan aurkeztea. Jakinarazpen horri beti erantsi beharko zaio erregistro-liburu bakoitzaren azken orriaren fotokopia; orri hori behar bezala beteta egongo da, eta guztirako kalkuluak jaso behar ditu.

Jakinarazpen bana aurkeztu behar da araudi honetako 90. artikuluan aipatutako jarduera bakoitzeko.

ZAZPIGARREN ATALA
INFORMAZIOA EMATEKO BESTE BETEBEHAR FORMAL BATZUK

97. artikulua. Informazioa emateko beste betebehar formal batzuk.

1. ...
2. Zerga honen ordainketan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten dohaintzen hartzaile diren entitateek hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean dohaintza horien berri emango duen aitorten informatiboa aurkeztu behar dute. Aitorpenean, hartzailea identifikatzeko datuez gainera, dohaintza-emaleei buruzko honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Izen-abizenak.
 - b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - c) Dohaintzaren zenbatekoa.
 - d) Dohaintza horrek otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan jasotzen diren kenkarietako bat aplikatzeko eskubidea ematen duen adierazi behar da; foru arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da.
 - e) Egutegiko urtean zehar egon diren dohaintza ezeztatzei buruzko informazioa, ezeztatzerik egon bada.
3. ...
4. Kreditu-erakundeek etxebizitza kontuei buruzko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Etxebizitza kontuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.
 - b) Zergadun bakoitzak etxebizitza kontuan duen titulartasun-portzentajea.
 - c) Etxebizitza kontua ireki den eguna.
 - d) Etxebizitza kontuan ekitaldi bakoitzaren hasieran eta amaieran izan den saldoa.
 - e) Berariaz onesten den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.
5. ...
6. ...
7. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren Foru Arauko 72. artikuluko 6. paragrafoan aipatzen diren enpresen gizarte-aurreikuspen planak merkaturatzen dituzten aseguru-entitateek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Aseguruaren hartzaileen eta aseguratuaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Aseguratuak egindako ekarpenen zenbatekoa eta hartzaileek aseguratu bakoitzaren alde egindako ekarpenen zenbatekoa.

8. Mutualitateek eta Gizarte Segurantzaren kudeaketa-organoek edo -erakundeek euren bazkideen edo kideen hileko eta urteko informazioa eman beharko dute Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen epean; bertan, honako datu hauek adierazi behar dituzte.
 - a) Bazkideen edo kideen izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta afiliazio-zenbakia.
 - b) Kotizazio araubidea eta alta-epea.
 - c) Guztira ordaindutako kotizazioak eta kuotak.
9. Erregistro Zibilean jaiotzez, adopzioez eta heriotzez dauden datuak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan, epeetan eta maiztasunarekin eman behar dira; diputatuak honako datu hauek eskatu ahal izango ditu:
 - a) Informazioaren xede den pertsonaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Amaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta behar denean aitarenak ere bai, adingabekoen jaiotza, adopzio eta heriotzak badira.
10. Zergari buruzko abenduaren Foru Arauko 3. xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezpen sistematikorako banakako planak merkaturatzen dituzten aseguru-entitateek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute hurren-hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Hartzailleen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Hartzailleak ordaindutako primen zenbateko osoa, eta lehenengo prima noiz ordaindu zuten adierazi behar da.
 - c) Ekonomi eskubideak, guztiak edo haien zati bat, aurreratzen bada, biziarteko errenta eratu zenean jakinarazitako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.
 - d) Bizitza aseguru bat aurrezpen sistematikoko plan bihurtzen bada, Zergari buruzko Foru Arauko hamabosgarren xedapen iragankorrean xedatzen denaren arabera, aurreko a) eta b) idatz-zatietan jasotzen diren datuak eta prima gisa urtean ordaindutako gehieneko kopurua dela-eta xedapen iragankor horretan ezartzen den muga betetzeari buruzko adierazpena.
11. Langileen sindikatuek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute hurren-hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Afiliatuen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Urtean ordaindutako sindikatu-kuotaren zenbatekoa.

Afiliatuek eurek baimena eman behar dute aitorten informatibo horretan sar ditzaten.

Zergari buruzko Foru Arauko 95. artikuluko 2. paragrafoaren ezartzen denaren arabera, paragrafo honetan aipatzen den aitorten informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik erabil dezakete langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatiko kenkaria.
12. Alderdi politikoek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute hurren-hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:
 - a) Afiliazio-kuotak edo nahitaezko zein borondatezko ekarpenak ordaindu dizkioten pertsona fisikoen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- b) Ordaindutako afiliazio-kuotaren edota ekarpenaren zenbatekoa.

Ekarpen-egileek baimena eman behar dute aitorten informatibo horretan sar ditzaten.

Zergari buruzko Foru Arauaren 22. artikuluko b) zatian eta 95. artikuluan ezartzen denaren arabera, paragrafo honetan aipatzen den aitorten informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik erabil dezakete lanaren etekinei dagokien gastu kengarria edo kuoten kenkaria.

13. Honen aurreko idatz-zatietan adierazi diren informazioa emateko aitortenak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak adieraziko dituen eran eta tokian egingo dira; diputatu horrek aurkezpen horren prozedura eta baldintzak ezar ditzake eta zuzenean ordenadorez irakurtzeko euskarrian egin behar diren edota bitarteko telematikoak erabiliz.

98. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen informazioa emateko betebeharrak.

1. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek, ekonomi jarduera bat egiteko erabiltzen badira edo urteko 3.000 eurotik gorako errentak badituzte, urteko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute. Aitorpenean, entitateon identifikazio-datuak eta, halakorik egonez gero, euren ordezkariak adierazi behar dituzte, eta horiez gainera honako datu hauek ere bai:

- a) Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen (Espainiako lurraldeko egoiliar izan zein ez) identifikazioa, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia; zergaldian zehar entitatearen osaeran izan diren aldaketen berri ere eman behar da.

Baldin eta entitateko kideren bat ez bada Espainiako lurraldeko egoiliarra, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera haren zerga-ordezkaritza duenaren identifikazioa.

Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak atzerrian eratutakoak badira, honako hauek identifikatu behar dira, artikuluko honetan ezartzen diren baldintzetan: batetik, zerga honen zergadunak diren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo diren entitateko kideak; bestetik, entitateak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotuta dauden errentak direla-eta zerga horren zergadunak diren entitateko kideak.

- b) Entitateak lortutako errenta guztien zenbatekoa eta kide bakoitzari esleli dakioken errentarena; honako datu hauek zehaztu behar dira:

1.a. Errenta-iturri bakoitzaren sarrera osoak eta gastu kengarriak.

2.a. Atzerriko errenten zenbatekoa; herrialdea zehaztu behar da eta etekin osoak eta gastuak adierazi.

3.a. Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bateko kideak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira eta entitateak inbertsio kolektiboko erakunde baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen baditu, inbertsio kolektiboko erakundea identifikatu behar du, akzio edo partaidetzen eskuraketa edo harpidetza eguna eta eskuraketa edo harpidetza balioa zehaztu behar ditu, eta norberaren kapitalak laga dituen pertsona edo entitatea (egoiliarra zein ez-egoiliarra) identifikatu behar du.

- c) Kenkariaren oinarriak.

- d) Entitateak jasan beharreko atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa eta kide bakoitzari esleitu beharrekoena.

- e) Negozio bolumenaren zenbateko garbia, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bategineko 191. artikulua araberakoa (testu hori abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), edo eragiketa bolumenaren zenbatekoa.
- 2. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek idatziz jakinarazi behar diete euren kideei aurreko paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatietan aipatutako informazioa. Jakinarazpen hori aitortpena aurkezteko epea amaitu eta hilabete igaro baino lehen heldu behar zaie entitateko kideei.
- 3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko ditu artikulua honetan aipatutako aitortpen informatiboa aurkezteko eredu, epe, tokia eta modua.

99. artikulua. Babespeko ondareen titular diren zergadunen informazioa emateko betebeharrak.

Pertsona ezinduen ondarea babesteko eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia helburu bererako aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak arautzen dituen ondare babestuen titularrak diren zergadunek eta, zergadunok pertsona ezinduak badira, ondare haien administratzaileek, aurreko horiek guztiek, aitortpen informatiboa aurkeztu behar dute, urte natural bakoitzean jasotako ekarpenei eta egindako baliatzeei buruzkoa. Aitortpenean, identifikazio datuekin batera, honako informazio hau jaso behar dute:

- a) Baliatutako zenbatekoen ekarpenak egin zituztenen zein baliatutakoaren onuradunen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Jasotako ekarpenen zein egindako baliatzeen mota, zenbatekoa eta identifikazioa.

Aitortpen informatiboa urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik eta 31ra bitartean aurkeztu behar da, eta aurre-aurreko urtean egindako ekarpenei eta baliatzeei buruzkoa izan behar du.

Aurkezten den lehenengo aitortpen informatiboarekin batera ondare babestua eratzeko eskritura publikoaren kopia soilak aurkeztu behar da. Gainera, ondarea hasieran eratu zuten ondasun-eskubideen zerrenda eta ondare babestua eratu zenetik lehenengo aitortpena aurkezten den arte jasotako ekarpenen eta egindako baliatzeen zerrenda zehatza aurkeztu behar da.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko du artikulua honetan aipatu den aitortpen informatiboa aurkezteko eredu, era eta tokia. Horrekin batera, ezarriko du eredu hori noiz aurkeztu behar den zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarrian eta noiz bitarteko telematikoa erabiliz.

VII. TITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK

I. KAPITULUA ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. ARAU OROKORRAK

100. artikulua. Aplikazio eremua.

- 1. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsonak eta entitateek titulu honetako xedapenak aplikatuko dituzte, baldin eta, hurrengo 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera, atxikipenak eta konturako sarrerak Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu beharrekoak badira.

Nolanahi ere, entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-arautegia aplikatu behar bazaio, orduan, titulu honetan xedatzen dena aplikatu behar zaie ordainsarien eta etekin gainean egiten diren honako atxikipen eta konturako ordainketa hauei:

- Administrazio kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkari-tza organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsariei.
- Edozein entitatearen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinei, eta obligazio eta antzeko tituluen interesei zein bestelako kontraprestazioei.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, autolikidazioak aurkezteko leku, era eta epeari buruzko arauak autolikidaziook ordainarazteko eskumena duen administrazioak ezarritakoak izango dira.

2. Honako etekin hauek direla-eta egiten diren atxikipenak edo konturako sarrerek Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu behar dira:

a) Bizkaian egiten diren lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lan edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Bizkaian edo Bizkaian eta beste edozein lurralde historikotan egiten badira, kontrako frogarik ez badago, zerbitzuak Bizkaian egindakotzat joko dira, baldin eta langilea atxikita dagoen lantokia Bizkaian badago.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik, Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepioetatik, mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik hartutako pentsio, hartzeko pasibo eta prestazioen etekinak, eta enpresa eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboen etekinak ere bai, baldin eta hartzaileak Bizkaian badu ohiko bizilekua.

c) Administrazio kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkari-tza organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsariak, baldin eta entitate ordaintzaileak Bizkaian badu zerga-egoitza.

Entitateak Bizkaian exijitzen den Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Bizkaia-ri dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako azken autolikidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

d) Ekonomi jardueretatik datozen etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerek, baldin eta atxikipenak edo konturako sarrerek egin behar dituenak Bizkaian badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak exijituko ditu berak ordaindutako etekinei dagozkienak.

e) Edozein entitatearen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, bai eta obligazio eta antzeko tituluetako interesak zein bestelako kontraprestazioak ere, etekin horiek ordaintzen dituzten entitateek Sozietateen gaineko Zerga Bizkaian bakarrik ordaintzen dutenean.

Entitateak Bizkaian exijitzen den Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Bizkaia-ri dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako azken autolikidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

f) Bizkaiko Foru Aldundiak, udalek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko lurralde-administrazio eta erakunde-administrazio-ko gainerako izakiek jaulkitako zor eta jesapenetako interesak eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere.

g) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta antzeko entitateetako eragiketa pasiboetako interesak eta gainerako kontraprestazioak, bai eta beste edozein kreditu-etxetan edo finantza-etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren hartzaileak Bizkaian badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.

- h) Kapitalizazio-eragiketetatik eta bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru-hartzaileak, erreskatea denean, Bizkaian badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.
- i) Kapital-ezarpenetik datozen biziarteko errentak eta aldi baterako beste errenta batzuk, onuradunak Bizkaian baldin badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.
- j) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, hartzailea egilea ez bada; eta industri jabetzatik eta laguntza teknikoa ematetik lortutakoak, berriz, beti, etekin horiek ordaintzen dituen pertsonak edo entitateak Bizkaian baldin badu zerga-egoitza.
- k) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoak alokatzetik datozenak, Bizkaian baldin badaude.
- l) Higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen interesak, berme modura erabiltzen diren ondasunak Bizkaian badaude.

Hipotekatutako ondasunak Bizkaian eta lurralde erkidean edo beste edozein lurralde historikotan baldin badaude, Bizkaiko Foru Aldundiak, atxikipena eskatzeko, hainbanatu egingo ditu interesak, hipotekatutako ondasunen balioaren arabera, berme-asignazio berezirik ez badago behinik behin. Halakorik badago, kopuru hori erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

- m) Higigarrien hipoteka bidez edo edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahi bidez bermatutako maileguetako interesak, bermea Bizkaian inskribatzen bada.
 - n) Mailegu soilen interesak, salerosketan geroratu diren prezioak eta kapitalak inon sartzeagatik lortutako beste etekin batzuk, establezimendua Bizkaian badago, edo atxikipena egin behar duen entitate edo pertsonak lurralde horretan badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.
 - o) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare-irabaziei dagozkien atxikipenak, baldin eta akziodun edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.
 - p) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak (sariok ondasun, produktu edo zerbitzu jakinen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon zein ez), baldin eta sarion ordaintzaileak Bizkaiko Lurralde Historikoan badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak exijituko ditu berak ordaindutako sariei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak.
 - q) Ondasun higiezinaren errentamendutik eta azpierrementamendutik lortutako etekinengatik egin behar diren atxikipenak eta konturako sarrerak, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak Bizkaiko Lurralde Historikoan badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.
 - r) Entitateei ordaindutako kopuruaren ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, errentak esleitzeko araubidearen indarrez atxikipen eta konturako sarrera horiek Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu beharra duten zergadunei egotzi behar zaizkienean, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak Bizkaian badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.
3. Ez dagozkio Bizkaiko Foru Aldundiari honako hauek direla-eta egin beharreko atxikipenak:
- a) Estatuko Administrazioak funtzionarioei eta lan-kontratuko nahiz administrazio-kontratuko langileei ordaintzen dizkien ordainsari aktibo eta pasiboak (hartzaileak baino beste batek sortutako pentsioak ere barne direla), salbu eta erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionario eta langileei ematen zaizkienak.

- b) Kapital-ezarpenetik datozen biziarteko errentak eta aldi baterako beste errenta batzuk, baldin eta pentsioaren hartzaileak baino beste pertsona batek sortua bada errenta jasotzeko eskubidea, eta gainera ordaintzailea Estatuko Administrazioa bada.
4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako zatikako ordainketak titulu honetan jasotakoaren arabera exijituko dira, zergadunaren ohiko bizilekua Bizkaian dagoenean.

101. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan sarrerak eta konturako atxikipenak egiteko betebeharra.

1. Araudi honetako 104. artikuluan ageri diren pertsonak edo entitateek 102. artikuluan ezarritako errentak ordaintzen dituztenean, araudi honetako arauen arabera bidezkoa den zenbatekoa atxiki eta Foru Ogasunean sartu behar dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egiten den ordainketa gisa.
2. Errenta horiek gauzaz ordaintzen direnean, araudi honetako 104. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateek konturako sarrera bat egin beharko dute hartzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, araudi honetako arauen arabera.
3. Araudi honetan ezarritakoari dagokionez, atxikitzaileari buruzko aipamenak konturako sarrerak egin behar dituenari ere badagozkiola ulertuko da, baldin eta konturako ordainketa biak batera araupetzen badira.

102. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.

1. Honako errenta hauek daude atxikipenari eta konturako sarrerari lotuta:
 - a) Lanaren etekinak.
 - b) Kapital higigarriaren etekinak.
 - c) Honako ekonomi jarduera hauen etekinak:
 - Lanbide-jardueren etekinak.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren etekinak.
 - Basogintzako jardueren etekinak.
 - Araudi honetako 115. artikuluko 6. paragrafoko 2. zenbakiko enpresa-jardueren etekinak, baldin eta jarduera horiek zenbatespen objektiboaren metodoa erabiltzen badute etekin garbia zehazteko.
 - d) Inbertsio kolektiboko erakundeek kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioen eta partaidetzen eskualdaketen edo itzulketen ondorioz lortzen diren ondare-irabaziak.
2. Era berean, honako errenta hauek ere atxikipenari eta konturako sarrerari lotuta daude, beraien kalifikazioa edozein dela ere:
 - a) Hiri higiezinaren errentamendutik edo azpierrementamendutik datozen etekinak.

Ondorio horietarako, errentamenduari buruzko erreferentziak azpierrementamenduari ere egindakotzat joko dira.
 - b) Honako hauek ematen dituzten etekinak: jabetza intelektualak eta industrialak; laguntza teknikoko zerbitzugintzak; ondasun higigarrien errentamenduak; negozio edo

meategiek; aurreko ondasun horien azpierrementuak eta irudiaren eskubidearen ustiapenaren eskubidearen lagapenak.

- c) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu zehatz batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egon ala ez.

103. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko betebeharraren salbuespenak

Honako errenta hauek ez daude atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharri loturik:

- a) Salbuetsitako errentak, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 25. zenbakian ezartzen dena izan ezik, eta joan-etorrietarako gastuetarako eta ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta kopuruak, kargapean ez daudenak.
- b) Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak, baldin eta diru-merkatuko esku hartzea arautzeko tresna badira, eta Altxorreko Letren etekinak.

Hala ere, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin Altxorraren letren gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu-etxe eta gainerako finantza-erakundeok atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

- c) Obligazioak akzio bihurtzeagatiko primak.
- d) Egoitza Espainian duten finantza-establezimenduek eta kreditu-etxeen atzerriko establezimendu iraunkorrek ordaindutako atzerriko kontuen etekinak.
- e) Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak ondare-sozietateen araubidean ordaindu baditu zergak.
- f) Etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketa edo itzulketatik datozen etekinak, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

1.a. Kontuko oharpenen bitartez adierazita egotea.

2.a. Espainiako bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzea.

Finantza-aktibo horien eskualdaketa, amortizazioan edo itzulketan esku hartzen duten finantza-erakundeek balorearen titularrari egotzi ahal zaion etekina kalkulatu beharko dute, eta horren berri jakinarazi beharko diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Administrazio horri, orobat, lehen aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonen datuak eman beharko dizkiote.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak idatz-zati honetan araupetutako atxikipenak egiteko betebeharraren salbuespena benetan egiteko prozedura ezarri ahalko du.

f) idatz-zati honetan aipatutakoa gorabehera, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin aurreko baloreen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu-etxe eta gainerako finantza-erakundeok atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Era berean, kupoia mugaeguneratu aurre-aurreko 30 egunetan egindako finantza-aktiboen eskualdaketa kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatia ere atxikipenaren menpe geratuko da, honako betekizun hauek betez gero:

- Eskuratzailea egoitza Espainiako lurraldean ez duen pertsona edo entitatea izatea edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa izatea.

- Eskualdatutako baloreen ondoriozko etekin esplizituak eskuratzailari begira atxiki beharretik salbuetsita egotea.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean eta zorizko, eskaintzazko eta apustuzko jokoen zehapen-, administrazio- eta zerga-alderdiak araupetu zituen otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege-Dekretuan ezarritakoaren babesean antolatutako jokoen ondorioz ematen diren sariak eta 300 euroko edo kopuru horretatik beherako atxikipen-oinarria dutenak.
- h) Hiri higiezin errentamendutik edo azpierrementamendutik datozen etekinak, honelakorik gertatuz gero:
 - Etxebizitza enpresek beren enplegatuentzat alokatzen duenean.
 - Errentariak errentatzaileari ordaindutako errentak urteko 900 euro baino gehiago ez direnean.
 - Errentatzailearen jardura apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergako Tarifak onartzen dituenak, jasotako tarifen lehen atalaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrementan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigrafearen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrementan ematen diren ondasun higiezin katastroko balioari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatuzeko arauak aplikatuz zero kuota ateratzen ez denean.

Ondorio horietarako, errentatzaileak betekizun hori betetzen duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen bezala bete ere.

- i) Akzio edo partaidetzen jaulkipen prima banatzearen ondoriozko etekinak eta kapitala ekarpenak itzuliz murriztearen ondoriozkoak, etekin horiek banatu ez diren mozkinen ondoriozkoak direnean izan ezik, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian xedatzen denaren arabera.
- j) Enpresek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan, pentsio planetan, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planetan edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetan egindako ekarpenak, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- k) Talde inbertsioko erakundeen partaidetza edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortutako ondare irabaziak, baldin eta, Zergaren Araudiari buruzko Foru Arauko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, konputatu behar ez badira, eta Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan araupetutako funtsen eta sozietateen partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortutakoak (araudi hori azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuak onetsi zuen).
- l) Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluko 8. idatz-zatian eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuko 8. artikuluan xedatutakoa aplikatuta agerian jartzen diren errentak.
- m) Higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate anonimo kotizatuen araubidea aplikatzea hautatzen duten sozietateek banatzen dituzten dibidenduak.

104. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenak

1. Oro har, honako hauek egin behar dituzte atxikipenak edo konturako sarrerak, betebeharrak horri loturiko errentarik ordaintzen badute:
 - a) Pertsona juridikoek eta gainerako entitateek, are jabeen erkidegoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek ere.

- b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, ekonomi jarduerak egiten dituztenean eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen dituztenean.
- c) Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo eduki eta lurralde horretan establezimendu iraunkorraren bidez diharduten pertsona fisiko eta juridikoak eta gainerako entitateek.
- d) Espainiako lurraldean ez egoitzarik ez establezimendu iraunkorrik eduki gabe lurralde horretan diharduten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako entitateek, ordaintzen dituzten lanaren etekinei dagokienez eta atxikipena edo konturako sarrera dakarten gainerako etekinei dagokienez, baldin eta etekin horiek guztiak kengarriak badira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauko 23. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren errentak lortzeko.

Pertsona edo entitate bat ez da ordaintzailatzat joko, ordainketa egiteko bitartekaritza hutsa baino egiten ez duenean.

Hirugarren baten kontura edo aginduz kopuru bat abonatzea ordainketa-bitartekaritza hustzat hartuko da.

Jarraian zehaztuko diren eragiketak ez dira ordainketa-bitartekaritza hustzat hartuko. Horrenbestez, lehen aipatu diren pertsona eta entitateek atxikipena eta sarrera egin beharko dituzte, honako balizko hauetan:

- Baldin eta Espainiako lurraldeko egoiliarren jabetzakoak diren atzerriko baloreen gordailuzainak badira edo balore horietatik datozen errenten kobrantzaren kudeaketa beren ardurapean badute eta errenta horiek aurrez Espainian atxikipenik jasan ez badute.
- Gizarte Segurantzaren kontura langileei prestazioak ordaintzen badizkiete.
- Pertsona edo entitate horiek hirugarren batek eskupeko gisa zerbitzuaren ziozko ordainsari edo antzekoengatik emandako kopuruak ordaintzen badizkiete beren langileei.
- Nekazarien kooperatiben kasuan, beren bazkideen ustiapenetatik datozen produktuak banatu edo merkaturatzen badituzte.

2. Zehatzago:

a) Entitate egoiliarrek edo establezimendu iraunkorrek euren zerbitzuan ari diren zergadunei atxikipenak egin behar dizkiete, baldin eta zergadunekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluan adierazitako lotura duen beste entitateren batek, egoiliarra izan nahiz ez, zergadun horiei lanaren etekinak ordaintzen badizkie, edo Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimendu iraunkorraren titularra den atzerriko entitateak establezimendu iraunkorreko langileei lanaren etekinak ordaintzen badizkie.

b) Finantza-aktiboen gaineko eragiketetan, honako hauek egin behar dute atxikipena:

1.a. Finantza-aktiboen amortizazioan edo itzulketan lortutako etekinetan, pertsona edo entitate jaulkitzaileak. Hala ere, finantza-erakunde bati eragiketa horiek egiteko aginduz gero, atxikipena egin behar duena eragiketaz arduratzen den finantza-erakundea izango da.

Jaulki ostean finantza-aktibo bihurtutako igorpen-tresnen kasuan, tresnok mugaeguneratutakoan, atxikipena egin beharko duena fede-emaile publikoa edo tresna hori kobratzeko aurkeztean esku hartzen duen finantza-erakundea izango da.

- 2.a. Finantza-aktiboen eskualdaketan lortutako etekinetan (aurreko zenbakian aipatu diren igorpen-tresnak barnean sartuta), eskualdaketa hori finantza-erakunde baten edo batzuen bitartez bideratzen bada, eskualdatzailearen kontura jarduten duen bankuak, kutzak edo finantza-erakundeak egin beharko du atxikipena.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, finantza-aktiboak saltzeko agindua eskualdatzailearengandik jasotzen duen bankuak, kutzak edo finantza-erakundeak eskualdatzailearen kontura jarduten duela ulertuko da.

- 3.a. Aurreko zenbakietan bilduta ez dauden kasuetan, eragiketan derrigorrez esku hartu behar duen fede-emaile publikoak egin behar du atxikipena.
- c) Estatuaren Zorraren baloreen eskualdaketetan, eskualdaketan esku hartzen duen Zor Publiko Anotatuaren Merkaturak kudeatzen duen entitateak egin beharko du atxikipena.
- d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitate hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:
- 1.a. Inbertsio-fondoetako partaidetzak itzuliz gero, sozietate kudeatzaileek.
- 2.a. Kapital aldakorreko inbertsio-sozietate batek, burtsan edo baloreak negoziatzeko bestelako merkatu edo sistema batean akziorik ez duen batek, zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bidez berari eskuratutako akzioak berrerozten baditu, sozietateak berak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera. Salbuespena: sozietate kudeatzaile batek esku hartu badu, orduan, sozietate kudeatzaile horrek egin behar du.
- 3.a. Egoitza atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeak direnean, entitate merkaturatzaileek edo haien akzio nahiz partaidetzak merkaturatzerako ahalmena duten bitartekariak eta, haien ordez, itzulketa egiten dutenean, balizko harpidedunen artean baloreak jarri edo banatzeaz arduratutako entitateak edo entitateek.
- 4.a. Zerbitzuak aske emateko araubidean ari diren entitate kudeatzaileen kasuan, 2004ko Zergen Arloko Neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera izendatutako ordezkariak.
- 5.a. Aurreko zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritik atxikipenik egin behar ez den kasuetan, eskualdaketa burutu edo itzulketa lortzen duen bazkideak edo partaideak egin behar du konturako ordainketa. Konturako ordainketa hori araudi honetako 116, 117 eta 118. artikuluetako arauen arabera egingo da.
- e) Zerbitzuak aske emateko araubidean ari diren aseguru-entitateek Espainian egindako eragiketen kasuan, 2004ko Zergen Arloko Neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera izendatutako ordezkariak egin behar du atxikipena edo konturako ordainketa.
- f) Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duen pentsio fondo batek Espainiako legeriaren menpe dauden enpleguko pentsio planak merkaturatzen baditu, enpleguko pentsio fondoaren jarduerari eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, pentsio fondo horrek Zergari buruzko Foru Arauko 108. artikuluko 1. paragrafoarekin bat izendatu duen ordezkariak egin beharko du atxikipena edo konturako ordainketa.
3. Atxikipena egiteko betebeharra duten subjektuek atxikipen horri dagokion sarrera Bizkaiko Foru Aldundian egiteko betebeharra berenganatuko dute, eta nahiz eta atxikipena egin ez, sarrera, aldiz, beti egin behar dute.

Etekin Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta hari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

105. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa izango da atxikipen-oinarriari dagokion atxikipen-tasa aplikatzean lortzen den emaitza; izan ere, tasa hori hurrengo II. kapituluaren ezarritakoaren arabera izango da. Atxikipen-oinarria ordaindutako guztirako zenbatekoa izango da. Hala ere, kontuan hartuko da bai araudi honetako 108. artikuluan lanaren etekinez xedatzen dena, bai 113. artikuluan kapital higigarriaren etekinez xedatutakoa, bai eta 116. artikuluan inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabaziez xedatutakoa ere.
2. Gauzazko ordainsariengatik egin behar den konturako sarreraren zenbatekoa izango da ordainsarion balioari -araudi honetan dauden arauen arabera zehaztutakoari- III. kapituluaren ezarritakoaren arabera dagokion portzentajea aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

106. artikulua. Atxikitze edo konturako sarrera egiteko betebeharra sortzea.

1. Oro har, atxikitze edo konturako sarrera egiteko betebeharra errentak ordaintzen diren unean sortzen da.
2. Kapital higigarriaren etekin eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketan edo itzulketan sortutako ondare-irabazien kasuan, araudi honetako 114. eta 118. artikuluetan ezarritakoa hartuko da aintzat, hurrenez hurren.

107. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak denboraren arabera egozte.

Atxikipenak edo konturako sarrerak atxikipenaren eta konturako sarreraren menpeko errentak egotzen diren epealdiari egotziko dizkiote zergadunek, atxikipenak edo konturako sarrerak noiz egin diren alde aintzat hartu gabe.

II. KAPITULUA ATXIKIPENEN KALKULUA

LEHENENGO ATALA LANAREN ETEKINAK

108. artikulua. Lanaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Lanaren etekinen gainean egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, lanaren etekinen zenbateko osoari honako portzentaje hauetatik dagokiona aplikatu behar zaio:
 - a) Oro har, zergadunaren etekinak eta inguruabar pertsonalak kontuan harturik hurrengo artikuluko taularen eta jarraibideen arabera aplikatu behar den portzentajea.
 - b) Administrazio kontseiluetako, horien ordezkari batzordeetako eta beste ordezkari organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsarien gaineko atxikipen-portzentajea %35 izango da.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, lanaren errenta jakin batzuei Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluan aipatutako portzentajeak aplikatu behar bazaizkie, errenta horien zenbateko osoa kalkulatzeko aipatu portzentaje horiek erabiliko dira.
3. Hartzaile berberari diruzko eta gauzazko lanaren errentak ordaintzen zaizkionean, ordaindutako kontraprestazio edo erabilgarritasun guztien gainean egingo da atxikipena.
4. Atxikipen-portzentajea kalkulatzeko, aurrez ikus daitezkeen diruzko eta gauzako ordainsariak, finkoak zein aldakorrak, hartuko dira kontuan.

Hala eta guztiz ere, atxikipen-portzentajea kalkulatzeko kontuan hartuko den oinarrian ez dira sartuko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak, ez eta enpresek pentsio planetan, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planetan edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetan egindako ekarpenak ere, baldin eta kontribuzio eta ekarpen horiek zerga-oinarri orokorra murrizten badute ordaindutako ordainsariei Zergari buruzko Foru Arauko 73. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa aplikatuz gehienez ateratzen den mugaraino.

Era berean, atxikipen-oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen araubide berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

Aurreko paragrafoetako portzentajeak ordaintzen diren kontraprestazio eta erabilgarritasun guztiei aplikatuko zaizkie, eta hori eginez lortzen den emaitza ordaindutako diruzko etekinei kenduko zaie.

109. artikulua. Atxikipen-portzentajeen taula eta aplikatzeko erregelak.

1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra.

Urteko etekinaren zenbatekoa (euroak)		Ondorengo kopurua						
Honetatik	Honetara	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,01	11.640,00	0	0	0	0	0	0	0
11.640,01	12.110,00	1	0	0	0	0	0	0
12.110,01	12.610,00	2	0	0	0	0	0	0
12.610,01	13.160,00	3	1	0	0	0	0	0
13.160,01	13.760,00	4	2	0	0	0	0	0
13.760,01	14.420,00	5	3	0	0	0	0	0
14.420,01	15.140,00	6	4	2	0	0	0	0
15.140,01	15.930,00	7	5	3	0	0	0	0
15.930,01	17.110,00	8	6	4	1	0	0	0
17.110,01	18.510,00	9	7	5	2	0	0	0
18.510,01	19.850,00	10	9	7	4	0	0	0
19.850,01	21.350,00	11	10	8	5	2	0	0
21.350,01	22.830,00	12	11	9	6	3	0	0
22.830,01	24.220,00	13	12	10	8	4	1	0
24.220,01	26.460,00	14	13	11	9	6	3	0
26.460,01	28.960,00	15	14	13	10	8	5	0
28.960,01	31.970,00	16	15	14	12	10	6	0
31.970,01	35.660,00	17	16	15	13	11	8	0
35.660,01	38.960,00	18	17	16	15	13	10	3
38.960,01	41.850,00	19	18	17	16	14	12	5
41.850,01	44.830,00	20	19	18	17	15	13	7
44.830,01	48.280,00	21	20	20	18	17	15	9
48.280,01	52.170,00	22	21	21	19	18	16	11

52.170,01	55.540,00	23	22	22	21	19	18	12
55.540,01	59.220,00	24	23	23	22	21	19	14
59.220,01	63.450,00	25	25	24	23	22	20	16
63.450,01	68.290,00	26	26	25	24	23	22	17
68.290,01	73.500,00	27	27	26	25	24	23	19
73.500,01	78.090,00	28	28	27	26	25	24	20
78.090,01	83.270,00	29	29	28	27	27	25	22
83.270,01	89.200,00	30	30	29	29	28	27	23
89.200,01	96.040,00	31	31	30	30	29	28	25
96.040,01	104.010,00	32	32	31	31	30	29	26
104.010,01	113.060,00	33	33	32	32	31	30	28
113.060,01	124.210,00	34	34	33	33	32	32	29
124.210,01	137.810,00	35	35	35	34	33	33	31
137.810,01	154.600,00	36	36	36	35	35	34	32
154.600,01	175.220,00	37	37	37	36	36	35	34
175.220,01	202.170,00	38	38	38	37	37	36	35
202.170,01	238.930,00	39	39	39	38	38	38	36
238.930,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	38

2. Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1. Taula aplikatzeko kontuan hartu behar diren ondorengoak Zergari buruzko Foru Arauko 81. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenak baino ez dira. Horri dagokionez, familiaren egoera izango da, egutegiko urteko lehenengo egunean dagoena, edo harremanen hasierako egunekoa, baldin eta harremanok hasi badira egutegiko urtearen lehenengo egunaren ondoren.

Ez dira kontuan hartuko atxikipena aplikatzen den zergaldian 30 urte baino gehiago beteko dituzten ondorengoak, Zergari buruzko Foru Arauko 84. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenean izan ezik.

2. Taula aplikatzen denean kontuan hartu behar den ordainsari kopurua hartukizun osoaren arabera zehaztuko da, zergadunak, kontratuko arau edo hizpaketa aplikagarriak eta aurreikus daitezkeen gainerako inguruabarrak direla bide, egutegiko urtean hartuko bide dituen diruzko eta gauzazko ordainsariak kontuan harturik.

Urteko hartukizun osoan, hartu bide diren ordainsari finkoetz gain aldakorrak ere sartuko dira.

Ordainsari horietariko bati Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar bazaio, ordainsariaren gaineko atxikipenaren ehunekoa kalkulatzeko, etekina aipatutako artikuluetan adierazitako ehunekoetatik egokia dena aplikatuz sortzen den kopurua izango da.

3. Hala zehaztutako atxikipen ehunekoa ordaindutako ordainsarien guztirako zenbatekoari aplikatuko zaio. Ordainsari horietariko bati Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar bazaio, kalkulaturako atxikipen ehunekoa 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren araberrako ehunekoa aplikatzearen emaitzako etekinari aplikatuko zaio.

Urtean zehar ordainsarien kopurua aldatzen denean, beste ehuneko bat kalkulatu beharko da aldaketak kontuan hartuta. Ehuneko berria aldaketa gertatuz geroztik soilik aplikatuko da.

Urtebetetik beherako kontratu edo harremanenaren hasieran ezarritako iraunaldia amaitutakoan langileak enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen badu, edo egutegiko urtea amaitu aurretik berriro hasten bada haren zerbitzuan lanean, beste atxikipen ehuneko bat kalkulatu beharko da eta horretarako kontuan hartuko dira bai lehenago hartu dituen ordainsariak eta bai aurrerantzean hartuko bide dituenak, beti ere egutegiko urte batean.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren arabera atxikipen ehunekoa ezin da izan %15 baino txikiagoa, etekinak besteren menpeko lan-harreman berezien ondoriozkoak badira, edo %2 baino txikiagoa, urtebetetik beherako kontratu edo harremanen kasuan.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako %15eko gutxieneko atxikipen ehunekoa ezin zaie aplikatu presondegietan zigortuta daudenen etekinei, ez eta pertsona ezinduen lan-harreman berezien etekinei ere.

3. Taula aplikatzeko arau zehatzak.

1. Etekinak pentsioak edo hartzeko pasiboak badira, ondorengo bat duten zergadunen zutabearen ageri diren atxikipen ehunekoa aplikatu behar dira.

Aplikatu beharreko atxikipen ehunekoa zehazteko, ez beste ezertarako, ekitaldian zehar pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular bihurtu direnek jasotako pentsioen edo hartzeko pasiboen urteko kopuruak kalkulatu dira.

Hala ere, zergadunak atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu ahal izango du, bere inguruabar pertsonalen arabera, eta hala egiten badu ez da urteko kopurua kalkulatu beharko.

2. Etekinak enplegatzaileekiko noizean behin eta eguneroko harremanen ondorioz giza lanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten eskulangileen kasuan, taula aplikatzean kontuan eduki beharreko zenbatekoa kalkulatzeko ondoko eragiketa egin behar da: 100ez biderkatu jasotako giza lanaren edo eguneko soldataren zenbatekoa.
3. Arrantzontzietako langileek ordainsari gisa, ordainsari osoa zein partziala, arrantzu-balioaren edo haren bolumenaren parte bat jasotzen badute, atxikipenaren ehunekoa Gizarte Segurantzaren Itsasoko Langileen Araubide Berezian daudenen kotizazio oinarriak finkatzeko urtero Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ematen duen aginduko 2. taldean Bizkairako ezarritako oinarrien arabera kalkulatu da, arrantzontzien erregistro gordineko tona kopurua gorabehera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, erregistro gordinean 150 tona baino gehiago dituzten inguraketa modalitateko arrantzontzietako arrantza teknikarien eta makineriako buruen kasuan, aipatutako oinarriak bikoiztu egingo dira.

Atxikipen ehunekoa inolaz ere ezin da izan %2 baino gutxiago.

4. Lanaren etekinen jasotzaileak, epaile baten ebazpena dela bide, konpentsazio-pentsioa eman behar badio bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, horren zenbatekoari atxikipen ehunekoa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoa kendu ahal zaio.

Horretarako, zergadunak murrizpenaren berri eman behar dio ordaintzaileari, ondoko 128. artikuluan ezarri denari lotuta, bai eta pentsioa ezarri duen epailearen ebazpenaren hitzez hitzezko lekuko-agiria ere.

Erregela honetan ezarritako txikipena aplikatzeko ezinbestekoa da langileak kontratu mugagabea edukitzea. Gainera, epaileak pentsioa emateko agintzen duen zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera soilik aplikatu ahal izango da.

Erregela honetan ezarritako kasuetan, kalkuluaren emaitzako atxikipen ehunekoa %2 baino gutxiago bada, %2 aplikatuko da.

4. Langile aktibo urrituak.

Langile aktibo desgaituei artikuluko honetako 1. zenbakian atxikipen-portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Dena dela, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea honako egoera hauetako batean bada:

- a) . %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa den minusbaliotasun-gradua duten langile aktibo desgaituak.
- b) Minusbaliotasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak. Langileok halakotzat joko dira, baldin eta minusbaliotasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskinen agertzen den baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean badaude, edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen badituzte.
- c) %65ekoa edo handiagoa den minusbaliotasun-gradua duten langile aktibo desgaituak.

Urteko etekinaren zenbatekoa		Minusbaliotasun maila.	
Honetatik	Honetara	4. a) atala	4. b) atala eta 4. c) atala
01	22.830,00	9	12
22.830,01	28.960,00	7	12
28.960,01	41.850,00	6	10
41.850,01	48.280,00	5	10
48.280,01	68.290,00	4	8
68.290,01	104.010,00	3	6
104.010,01	175.220,00	2	5
175.220,01	Hortik gora	1	3

BIGARREN ATALA KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

110. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa

Kapital higigarriaren etekinetan egingo den atxikipena atxikipen-tasari %21eko portzentajea aplikatzearen emaitza izango da.

111. artikulua. Finantza-aktiboen kontzeptua eta sailkapena.

1. Finantza-aktibotzat jotzen ditugu besteren kapitalak bereganatzea eta erabiltzea adierazten duten balore negoziagarriak, haiek dokumentatzen diren era kontuan hartu gabe.
2. Etekin inplizituko finantza-aktiboak dira etekina honela zehazten dutenak: etekina zenbateko biren arteko diferentzia izango da, eta zenbateko horiek biak izango dira, batetik, jaulkipenean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosuan ordaindutako zenbatekoa, eta, bestetik, etekina, osorik edo zati batean, besteren errekurtsuak bereganatzeko erabiltzen

diren edozein balore higarriren bidez zehazten duten eragiketek muga eguneratzean itzultzeko konpromisoa duten zenbatekoa.

Jaulkipen-, amortizazio- eta itzulketa-sariak etekin inplizituen barruan sartuko dira.

Etekin inplizituaren kontzeptutik kanpo daude finantza-aktiboak merkaturatzeko sariak edo hobariak, jaulkipen-prezioaren gainean egindakoak, baldin eta merkaturako praktiken barruan sartzen badira eta beren osoan diru-sarrera badira xedapen honetan araututako finantza-aktiboak jaulki eta zirkulazioan jartzen parte hartzen duen bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Igorpen-tresnak etekin inplizituko finantza-aktibotzat hartuko dira, merkataritzako eragiketetan sortuak barne, aktiboen endosatu edo eskualdatzen diren uneaz geroztik, endosua edo lagapena hornitzaileen kreditu baten ordainketa bezala egin denean izan ezik.

3. Etekin esplizituko finantza-aktibotzat hartuko dira interesak eta norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzearen ordainez itundutako beste ordainsari motak sortzen dituztenak, baldin eta aurreko paragrafoan ezarrita dagoen eran etekin inplizituen kontzeptuan sartuta ez badaude.
4. Etekin mistoko finantza-aktiboek etekin esplizituko finantza-aktiboen araubideari jarraituko diote, baldin eta sortzen duten mota horretako urteko eskudirua jaulkipenaren unean indarrean dagoen erreferentzia-tasaren berdina edo hura baino handiagoa bada, nahiz eta jaulkipen-, amortizazio- edo itzulketa-baldintzetan era inplizituan beste etekin gehigarriren bat finkatu. Erreferentzia-tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bono edo obligazioekin egindako azken enkantean ateratako batez besteko prezioa haztatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren %80. Horretarako, lau urteko edo hortik beherako epea duten finantza-aktiboak badira, hiru urtetarako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; lau eta zazpi urte bitarteko epea duten finantza-aktiboak badira, bost urtetarako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; eta, azkenik, epe handiagoa duten finantza-aktiboak badira, hamar, hamabost edo hogeita hamar urtetarako obligazioen enkanteko prezioa hartuko da. Eperen baterako erreferentzia-tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epetik hurbileneko epea duenaren erreferentzia-tasa aplikatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakor edo mugikorren finantza-aktiboen jaulkipenei begira, eragiketaren barne-errendimenduaren tasa hartuko da eragiketa horren interes efektibotzat, eta etekin esplizituak bakarrik hartuko dira kontuan; gainera, tasa hori, hala denean, sortutako etekinen behin-betiko zenbatekoa aldizka finkatzeko balio duen parametroaren hasierako balorazioaren erreferentziari dagokionez kalkulatu da.

112. artikulua. Finantza-aktiboak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko zerga-betekizunak.

1. Eskualdaketa, amortizazioaren edo itzulketa unean atxikipena egin behar zaien etekin inplizituko eta etekin esplizituko finantza-aktiboak edo tituluak besterenganatzeko edo itzultzea lortzeko, derrigorrez egiaztatu behar da aktibo horiek atxikipena egitera behartuta dauden fede emaile edo finantza entitateek parte hartuz eskuratu direla alde aurretik, eta eragiketa horren prezioa ere frogatu behar da.

Igorpen tresna bat zirkulatzen jarri eta gero finantza-aktibo bihurtzen denetik, lehenengo endosu edo lagapena fede-emaile publikoaren edo finantza-erakundearen bitartez egin behar da, endosu-hartzailea edo eskuratzaila finantza-erakunde bat denean izan ezik. Fede-emaile edo finantza-erakundeak agirian zainpetuko du haren finantza-aktibotasuna, haren lehenengo eskuratzaila edo edukitzailearen identifikazioarekin batera.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, haren kontura jarduten duen finantza-erakundeak, fede-emaile publikoak edo eskuratzailaren edo gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza-

erakundeak, kasu bakoitzean dagokionak, honako hauek egiaztatzen dituen agiria luzatu beharko du:

- a) Eragiketaren eguna eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzaillearen izena.
- c) Eskuratzaillearen edo gordailugilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Eskuraketa prezioa.

Hirukoizturik luzatuko den ziurtagiri horren bi ale eskuratzaileri emango zaizkio, eta bestea, berriz, ziurtatzea egiten duen pertsonaren edo entitatearen eskuetan geratuko da.

3. Finantza-erakundeek edo fede-emaile publikoek ez dute bitartekaritza edo kontuhartzailletza lanik egingo mota honetako aktiboen eskualdaketetan eskualdatzaileak eskuraketa artikuluko honetan xedatutakoaren arabera bidezkoesten ez duenean.
4. Artikulu honetan aipatuta dauden finantza-aktiboen pertsona edo entitate jaulkitzaileek ezin dituzte haiek itzuli, edukitzaileak aurrez eskuratu dituenik frogatzen ez duenean aurreko 2. paragrafoaren arabera egindako ziurtagiriaren bitartez.

Jaulkitzaileak edo eragiketaren arduradun diren finantza-erakundeek, aurreko lerraldiarekin bat etorririk titulua edo aktiboa edukitzaileari itzuli behar ez badiote, kopuru horretako gordailua osatu beharko dute, eta agintari judizialen esku utzi.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, deuseztatu edo aldeztu aurretik amortizatzeko, finantza-erakundearen edo fede-emaile publikoaren bitartekotza edo esku-hartzea behar da. Aktiboaren entitate edo pertsona jaulkitzailea eskuratzaille huts moduan geratuko da, titulua berriro zirkulazioan jarri gero.

5. Tituluaren edukitzaileak, egin duen eskuraketaren egiaztagiria galduz gero, ziurtagiriaren bikoiztua eskatu ahal izango dio ziurtagiria egin zuen pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek agiri hori bikoiztua dela agerraraziko du, baita agiriaren luzapen-data zein den ere.

6. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, dohainezko eskualdaketaren kasuetan, eskuratzailleak eskualdatzailearen erosketako balioa subrogatuko du, kostu hori behar bezala frogatzen duen agiririk tartean bada.

113. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen-oinarria

1. Oro har, kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen-oinarria eskatu ahal den edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da. Ondorio hauetarako ez da inola ere kontuan hartuko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 9. paragrafoan ezartzen den salbuespena.
2. Finantza-aktiboen amortizazioaren, itzulketaren edo eskualdaketaren kasuan, atxikipen-oinarria aktiboen amortizazio-, itzulketa- edo eskualdaketa-balioaren eta eskuraketa balioaren eta harpidetza balioaren arteko diferentzia positiboa izango da. Erosketaren ziurtagirian ageri dena hartuko da eskuraketa baliozat. Ondorio horietarako, ez dira gutxituko eragiketaren inguruko gastuak.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipena gorabehera, entitate jaulkitzaileak berak jaulkitako finantza-aktiborik eskuratzen bada, atxikipena edo sarrera egingo da titulua gero eskualdatzeko edozein eratan lortzen duen etekinaren gainean.

3. Atxikitzeke betebeharra araudi honetako 103. artikuluko f) idatz-zatiko azken lerroaldean ezarritakoan sortzen bada, atxikipen-oinarria eskualdatutako balorearen kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatia izango da.
4. Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluan arautzen diren etekinei Zergari buruzko Foru Arauko 41. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako portzentajeak aplikatu ahal bazaizkie, portzentaje horiek kontuan harturik kalkulatu da atxikipen-oinarria.
5. Aseguru kontratuetatik jasotako zenbatekoetan eta kapitalak ezartzearen ondorioz jasotzen diren biziarteko errentetan eta beste errenta batzuetan, atxikipen-oinarria izango da Zergari buruzko Foru Arauarekin bat etorririk kalkulatuutako zerga-oinarrian integratu beharreko zenbatekoa.
6. ...

114. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen ganean atxikitzeke eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortzea.

1. Oro har, atxikitzeke eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortuko da atxikipenaren edo konturako sarreraren menpean dauden etekinak, diruzkoak eta gauzazkoak, galdagarriak diren unean sortuko da, edo, lehenago bada, etekinok ordaindu edo ematen diren unean.

Zehazki, interesak galdagarriak izango dira interesok likidatzeko edo kobratzeko kontratuan edo eskrituran aipatutako mugaegunetan, edo beste kontuan era batera aintzatesten direnean, nahiz eta hartzaileak haien kobrantza erreklamatu ez arren edo etekinak eragiketaren printzipalari pilatu arren. Dibidenduak, berriz, haiek banatzeko akordioan ezarritako datan izango dira galdagarriak, edo, data hori zehaztu ezean, banaketa erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2. Finantza-aktiboak eskualdatu, amortizatu edo itzultzetik datozen kapital higigarriaren etekinen kasuan, atxiki beharra eskualdaketa, amortizazio edo itzulketaren unean sortuko da.

Atxikipena eskualdaketa formalizatzen den datan egingo da, kobratzeko itundutako baldintzak zein diren berdin dela.

HIRUGARREN ATALA EKONOMI JARDUEREN ETEKINAK

115. artikulua. Ekonomi jardueren etekinen gaineko atxikipenaren zenbatekoa.

1. Etekinak lanbide-jarduera baten kontraprestazioa direnean, ordaindu diren sarrera osoen %19ko atxikipen-tasa aplikatuko da.

Kontuan hartu behar da, 2012ko irailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra, 115. artikuluko 1. zenbaki honetan aurrez ikusitako 100eko 19ko atxikipen-ehunekoa 100eko 21ekoa izango dela, irailaren 4ko 128/2012 Foru Dekretuaren [BIZKAIA] xedapen iragankor bakarraren arabera; horren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia aldatu da, lanbide-jardueren konturako ordainketen arloan (irailaren 6ko BAO).

Hori horrela izanik ere, lanbide-jarduerari ekin dioten zergadunen kasuan, atxikipen-tasa %9 izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baldin eta aurreko urtean beste lanbide- jarduerarik egin ez badute.

Honen aurreko lerroaldean ezarri den atxikipen-tasa aplikatzeko, inguruabar hori gertatu dela jakinarazi behar diote zergadunek etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzaileak era egokian sinatuta egongo den jakinarazpena gorde beharko du.

Atxikipen-tasa %9 izango da honako hauei ordaindutako etekinetan:

- Udal zerga-biltzaileei.

- Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru-bitartekariei.
 - Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen merkataritzako ordezkariari.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek egongo dira lanbide-jardueren etekinen artean:
- a) Oro har, Ekonomi Jardueren gaineko Zergako Tarifen bigarren eta hirugarren ataletan sailkatutako jarduerak burutzetik datozenak. Tarifa horiek apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zituen.
 - b) Zehazki, honako pertsona hauek lortutako etekinak lanbide etekintzat hartuko dira:
 - 1.a. Lan edo liburuaren egileek edo itzultzaileek, lan edo liburuok jabetza intelektual eta industri jabetzakoak badira. Egile edo itzultzaileek beren lanak zuzenean argitaratzen dituztenean, lortzen dituzten etekinak enpresa-jardueren etekinei batuko zaizkie.
 - 2.a. Komisiiodunek. Komisiioduntzat hartuko dira alde interesatuak kontratua egiteko hurbildu besterik egiten ez dutenak.

Aitzitik, komisiioduni dagozkien eragiketak bakarrik egiten ez dituztela usteko da, baldin eta haiek, aurreko lerroaldean deskribatutako funtzioaz aparte, merkataritza-eragiketa horien arriskua eta zoria ere beren gain hartzen badute. Horrelakoetan, lortzen den etekina enpresa-jardueren etekinei batuko zaie.
 - 3.a. Irakasleek, irakaskuntzen izaera edozer delarik ere, jarduera beren egoitzan, norberaren etxeetan edo akademian edo establezimendu irekian burutzen badute. Norbere establezimenduetako edo akademietako irakaskuntza enpresa-jardueratzat hartuko da.
 - 4.a. Hitzaldiak, mintegietako txostenak edo ikastaroak edo antzeko jarduketak, lan-harremanen ondorioz egiten ez direnak.
3. Ez dira lanbide-jardueren etekintzat hartuko enpresa baten soldatapean dauden pertsonak jasotzen dituzten kopuruak, baldin eta enpresan betetzen dituzten eginkizunak direla-eta izena eman behar badute beren elkargoetan, ezta, orokorrean, lan-harremanen edo menpeko harremanen ondoriozkoak ere. Kopuru horiek lanaren etekinen barruan sartuta daude.
4. Etekinak nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduera baten kontraprestazioak badira, honako atxikipen-portzentaje hauek aplikatuko dira:
- Txerria gizentzeko abeltzaintza-jardueran eta hegatzaintzan: %1.
 - Gainerako kasuetan: %2.

Portzentaje horiek ordaindutako sarrera osoen gainean aplikatuko dira, diru-laguntza arruntak eta kapitalekoak eta kalte-ordainak aparte utzita.

Ondorio horietarako, nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueratzat hartuko dira ustiapenetatik produktu naturalak, landare-produktuak edo animalia produktuak zuzenean lortzeko balio duten eta transformazio-, elaborazio- edo manufaktura-prozesuan menpean ez daudenak.

Jarduerak transformazio-, elaborazio- edo manufaktura-prozesutzat hartuko dira, baldin eta, haiek burutzeko derrigorrezkoa bada Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifetan industri jarduerari dagokien epigrafe batean alta ematea.

Honako hauek hartuko dira nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueratzat:

- a) Abeltzaintza lokabea.
 - b) Nekazariak edo abeltzainak nekazaritzako edo abeltzaintzako lan edo zerbitzu osagarriak egitea, beraien ustiapenetan erabili ohi diren bitartekoekin.
 - c) Ganadua hazi, zaindu eta gizontzeko zerbitzuak.
5. Baldin eta etekinak basogintzako jarduera baten kontraprestazio badira, %2ko atxikipen-tasa aplikatuko zaie ordaindu diren sarrera osoei, salbu eta diru-laguntza arruntak eta kapitalekoak eta kalte-ordainetakoak.
- 6.
- 1.a. Etekinak paragrafo honetako 2. zenbakian ezartzen diren ekonomi jardueretako baten kontraprestazio badira eta jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehazten bada, %1eko atxikipen-tasa aplikatuko zaie ordaindu diren sarrera osoei.
 - 2.a. Paragrafo honetan ezarritakoa Ekonomi jardueren gaineko Zergako Tarifen lehenengo ataleko honako talde eta epigrafe hauetan sailkatuta dauden jarduerari aplikatuko zaie:

EJzko taldea edo epigrafea	Ekonomi jarduera
314 eta 315	Metalezko aroztzinta, eta metalezko egituren eta galdaren fabrikazioa.
316.2, 3, 4 eta 9	Burdineria, sarrailagintza eta torlojugintzako gaien eta sukaldeko nahiz etxerako tresneriaren fabrikazioa eta bestelako ataletan bildu ez diren metalezko akabatzen diren gaien fabrikazioa.
453	Janzkiak eta beraien osagarriak seriean egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta egiten direnean.
453	Janzkiak eta beraien osagarriak seriean egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira.
463	Aroztzintzako piezen, parketaren eta eraikuntzarako zurezko egituren serieko fabrikazioa.
468	Zurezko altzarigintza.
474.1	Testuak edo irudiak inprimatzea.
501.3	Igeltserotza eta eraikuntzako orotariko lan txikiak.
504.1	Instalazio eta muntaiak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik).
504.2 eta 3	Iturgintzako instalazioak eta hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak.
504.4, 5, 6, 7 eta 8	Tximistorratzak eta antzekoak ezartzea. Tipo eta mota guztietako sukaldeen muntaia eta ezarketa, osagarri guztiak barne. Edozein tipo eta motatako igogailuen muntaia eta ezarketa. Mota guztietako eraikin eta eraikuntzetan telefonoa, telegrafoa, hariarik gabeko telegrafoa eta telebista ezartzea. Metalezko muntaia eta industri instalazio osoak, makineria

	eta instalazio edo muntaia gai diren elementuak saldu eta ekarri gabe.
505.1, 2, 3 eta 4	Estaldua, zoruak eta zoladurak; eta isolamenduak ezartzea.
505.5	Arozgintza eta sarrailagintza.
505.6	Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko estaldurak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.
505.7	Eraikin eta lokaletako igeltsugintza eta karegintza eta dekorazioa.
722	Merkantzien errepideko garraioa
757	Etxe-aldaketa zerbitzuak.

3.a. Ez da paragrafo honetan zehazten den atxikipena egin behar ekonomia jarduna egiten duen zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 108. 5. paragrafoaren arabera, jakinarazten baldin badio ordaintzaileari zuzeneko zenbatespenaren metodoa -edozein modalitatetan- erabiltzen duela jardueraren etekin garbia zehazteko. Jakinarazpenean honako datu hauek jaso behar dira:

- a) Jakinarazlearen izen-abizenak, zerga-egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Ekonomi jarduera errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate baten bitartez egiten bada, aurrekoaz gainera, honako hau ere jakinarazi behar da: sozietatearen izena edo izendapena eta Identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta entitate zergadunaren ordezkaria dela ere.
- b) Aurreko 2 zenbakiko jardueretatik zein egiten duen; Ekonomi Jardueren gaineko Zergako epigrafea adierazi behar da.
- c) Jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz -edozein modalitatetan- zehazten duela.
- d) Eguna eta jakinarazlearen sinadura.
- e) Jakinarazpenaren hartzailea den pertsona edo entitatearen identifikazioa.

Zergadunak, ondoren, berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoa erabiliko badu jardueraren etekinak zehazteko, horren berri eman behar dio ordaintzaileari, aurreko a), b), d) eta e) idatz-zatietan zehazten diren datuekin batera, atxikipena egiteko betebeharra sortu aurretik betiere.

Ordaintzaileak datuen jakinarazpenak gorde behar ditu beti, behar bezala sinatuta.

4.a. Aurreko 3. zenbakian zehazten diren datuak zuzen ez jakinarazteak Zergari buruzko Foru Arauko 119. artikuluan xedatzen denaren ondoriozko zerga-ondorioak izango ditu.

5.a. Zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiko 33. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen den moduan egiten badio uko zenbatespen objektiboaren metodoari, ulertuko da zergadunak zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztuko duela bere jardueraren etekin garbia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezten duen egunetik aurrera.

LAUGARREN ATALA ONDARE-IRABAZIAK

116. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare irabazien gaineko atxikipen zenbatekoa.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare-irabazien gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, %21eko tasa aplikatu behar zaio atxikipen-oinarriari.

117. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabazien gaineko atxikipen-oinarria.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabazien gaineko atxikipen-oinarria zerga-oinarrian sartu beharreko kuota da; zerga-oinarri hori Zergari buruzko araudiaren arabera kalkulatu behar da.

118. artikulua. Atxikitzeko betebeharra sortzea.

Atxikitzeko betebeharra inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa formalizatzen den unean sortuko da, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

119. artikulua. Sarien gaineko atxikipen zenbatekoa.

Eskudirutako sarien gainean, sarion zenbatekoaren 100eko 21eko atxikipena aplikatuko da, salbu eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko hogeita hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

BOSGARREN ATALA BESTE ERRENTA BATZUK

120. artikulua. Higiezin errentamenduen eta azpierrementamenduen gaineko atxikipen zenbatekoa

Hiri higiezin errentamenduetatik eta azpierrementamenduetatik datozen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, higiezin horien kalifikazioa edozein delarik ere, errentatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztien gainean %21eko portzentajea aplikatuz ateratzen dena izango da; kalkulu horretarako ez da kontuan hartuko Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

121. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipen zenbatekoa.

1. Araudi honetako 102 artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatu den irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatuz datozen etekinen gainean egiten den atxikipena, haren kalifikazioa gorabehera, ordaindu diren sarrera osoei %24ko atxikipen-tasa aplikatzearen emaitza izango da.
2. Araudi honetako 102. artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatzen diren gainerako kontzeptuen etekinen gainean egiten den atxikipena, etekinon kalifikazioa gorabehera, ordaindu diren sarrera guztiei %21eko atxikipen-tasa aplikatzearen emaitza izango da.

III. KAPITULUA KONTURAKO SARRERAK

122. artikulua. Lanaren gauzako ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

1. Gauzaz ordaindutako ordainsarien zioz egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, haien balioari (Zergari buruzko Foru Arauko 62. artikuluko erregelen bidez

zehaztutakoari) araudi honetako II. kapituluan ezarritakoaren arabera dagokion portzentajea aplikatuko zaio.

2. Hala eta guztiz ere, ez da konturako sarrerarik egin behar borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bazkide babesleek, pentsio planen sustatzaileek edo enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen hartzaileek egindako kontribuzioengatik, ez eta enplegatzaileek gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetan ordaindutako kopuruengatik ere, baldin eta kontribuzio eta ordainketa horiek zerga-oinarri orokorra murrizten badute, ordaindutako ordainsariei Zergari buruzko Foru Arauko 73. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa aplikatuz gehienez ateratzen den mugaraino.
3. Era berean, atxikipen-oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen araubide berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

123. artikulua. Kapital higigarriaren gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

1. Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenengo, % 20 gehituko da gauzazko ordainsari horrek ordaintzailearentzat izan zuen eskuratzeko-balioa edo kostua, eta, ondoren, hortik lortzen den emaitzari araudi honetako aurreko kapituluko bigarren atalean ezartzen den portzentajea aplikatuko zaio.
2. ...

124. artikulua. Ekonomi jardueren gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, araudi honetako II. kapituluko hirugarren atalean ezartzen denaren arabera portzentajea aplikatu behar zaio gauzazko ordainsarien merkatuko balioari.

125. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.

Gauzaz ordaindutako sariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, sariok ondare-irabazia eragiten badute, araudi honetako 119. artikuluan ezartzen den portzentajea aplikatuko zaio gauzazko sari horrek ordaintzailearentzat izan duen eskuraketa balioa edo kostua %20 gehituz ateratzen den emaitzari.

126. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.

Araudi honetako 120. eta 121. artikuluetan aipatutako gauzazko errenten gaineko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, errenta horien merkatuko balioari artikuluko horietan ezarritako portzentajea aplikatuko zaio.

IV. KAPITULUA

ATXIKITZAILEAREN, KONTURAKO SARRERA EGIN BEHAR DUENAREN ETA ATXIKIPENA JASATEN DUENAREN BETEBEHARRAK

127. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin duenaren betebeharrak.

1. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren egutegiko lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztu behar du aurre-aurreko egutegiko hiruhilekoarengatik beharrezko diren atxikipenen eta konturako sarreraren aitortpena, eta haien zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundian sartu beharko du.

Hala ere, aurreko lehenengo atalaren aipatzen diren aitortpena eta sarrera, aurre-aurreko hilen atxikitako eta kontura sartutako kopuruak dagozkienak, hilabete bakoitzeko lehenengo hogeita bost egun naturaletan egin behar dira, baldin eta konturako sarrera egin behar duenak edo atxikitzaileak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiari buruzko 71. artikuluko 3. paragrafoko 1. zenbakian eta 1.bis zenbakian aipatutako inguruabarrak

betetzen badituzte. Salbuespen gisa, uztailari dagokion aitordpena eta sarrera abuztuan eta hurrengo iraileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar egingo da.

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak aitordpen negatiboa aurkeztuko du, atxikipenaren menpeko edo konturako sarreraren menpeko errentak ordaindu arren, inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik eginda ez duenean, errenta horien zenbatekoa dela eta. Ez da aitordpen negatiborik aurkeztu behar, aitordpenaren epealdian ez bada ordaindu atxikipenaren menpeko edo konturako sarreraren menpeko errentarik.

Aurreko lerroaldean jasotakoa berdin aplikatuko zaio herri administrazioetara -Gizarte Segurantzaren barne- hartutako atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak direnean ere, baldin eta ekitaldia hasi baino lehen onartuta zuen azken urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, araudi honetako 102. artikuluko 2. apartatuko a) eta c) idatz-zatietan eta 2. paragrafoko c) idatz-zatian aipatzen diren errentei lotutako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez. Etekin Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta hari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

2. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak, urtarilaren 1a eta 31 arteko epean, aurre-aurreko urtean egindako atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar du. Orobat, epe bera izango da zerrenda hori modu telematikoa edo zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian aurkezten den kasurako.

Hala ere, lanaren eta ekonomi jardueren etekinen zein sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena urtarileko lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da, aurkezten den moduan aurkezten dela.

Laburpen horietan, atxikitzailearen edo konturako sarrera egin behar duenaren identifikazio datuez gainera, hartzaileen zerrenda izenduna egon dadin eskatu ahal izango da, honako datu hauek izango dituenak:

- a) Izen-abizenak.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Bazkide, partaide edo onuradunaren zerga-egoitza edo ohiko bizilekua, entitatea edo pertsona fisikoa izatearen arabera.
- d) Lortutako errenta, eta azaldu behar da zein den kontzeptuen identifikazioa, deskribzioa eta izaera, bai eta errenta horiek zein ekitaldian sortu ziren ere. Errenta horien barruan sartuta egongo dira, halaber, zenbatekoa dela-eta atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe ez dauden errentak, kargapetik salbuetsitako dietak eta salbuetsitako errentak.
- e) Zergari buruzko Foru Arauko 19, 20 edo 41.3. artikuluetan ezarrita dagoenaren arabera aplikatutako integrazio-portzentajeak.
- f) Ordaintzaileak atxikipen-portzentajea aplikatzerakoan kontuan hartu dituen inguruabar pertsonal eta familiarak.
- g) Egindako atxikipena edo egindako konturako sarrera.
- h) Ordaintzaileari itzultako kopuruak, aurreko ekitaldietan sortutako errentetatik datozenak.
- i) Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorreari egindako kotizazioei dagozkien gastu kengarriak eta eskubide pasiboen murrizketak eta umezurtzen ikastetxe edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak, bai eta zergadunek erakunde edo instituzioei ordaindutako zenbatekoak ere, erakunde edo instituzio horiek, indarrean dagoen araudiarekin bat, Gizarte Segurantzari dagozkion

zenbait kontingentziaren prestazioak bereganatu badituzte, eta beti ere etekinen ordaintzaileek horiek deduzitu badituzte.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, orobat, egoitza Espainian duten edo Espainian ordezkaturik dauden entitateek, besteren kontura atxikipenaren menpeko errentarik ordaintzen badute edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo gordailuzainak badira.

3. Kontura sartu behar duenak edo atxikitzaileak kontura egindako sarreraren eta atxikipenen ziurtagiria eman behar dio zergadunari, baita zergadunari dagozkion gainerako datuena ere, baldin eta datuok aurreko atalean aipatuta dagoen urteko laburpenean sartu behar badira.

Ziurtagiri hori zergadunaren esku jarri behar da, zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea ireki baino lehen.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, orobat, egoitza Espainian duten edo Espainian ordezkaturik dauden entitateek, besteren kontura atxikipenaren menpeko errentarik ordaintzen badute edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo gordailuzainak badira.

4. Ordaintzaileek, errentak ordaintzen dituzten unean, egin dieten atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi behar diete zergadunari, eta aplikatu dieten portzentajea adierazi.
5. Artikulu honetan aipatutako aitorenak eta ziurtagiriak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak errenta mota bakoitzerako ezartzen dituen ereduetan, eran eta lekuan egingo dira. Era berean, foru diputatu horrek aitorenetan sartu beharreko datuak zehaztu ahalko ditu.
6. Aitorpena eta konturako sarrera Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen bezala egingo dira, eta berak ezartzen dituen lekuan eta epean.

Halaber, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak artikulu honetan aipatutako aitorenak eta ziurtagiriak telematikoki nola, non eta noiz aurkeztu ezar dezake.

128. artikulua. Lan errentak jasotzen dituenak bere datuak jakinaraztea ordaintzaileari.

1. Zergadunek ordaintzaileari jakinarazi beharko diote Zergari buruzko Foru Arauko 81. artikuluan ezarritako kenketarako eskubidea sortzen dioten ondorengoak zenbat diren, eta bai, hala denean, epailearen ebazpenaren ondorioz ezkontideari konpentsazio-pentsioa ordaintzeko betebeharra dutela ere, araudi honetako 109. artikuluko 1. paragrafoan dagoen taula aplikatu dakion.

Era berean, langile aktibo ezinduek Zergari buruzko Foru Arauko 23. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako egoera jakinarazi beharko dute eta egoera hori eskudun organoak emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko dute.

2. Aurreko paragrafoan adierazi diren datuak ordaintzaileari jakinarazten ez bazaizkio, orduan ordaintzaileak dagokion atxikipen-portzentajea aplikatuko du, datuok gogoan hartu gabe; nolahi ere, datuak jakinarazten ez badira, edo datuak zuzen ematen ez badira, zehapenak ezar litezke.
3. Aurreko 1. paragrafoko datuak egutegiko urteko lehenengo eguna baino lehen jakinarazi behar dira, edo harremanak hasten diren unean.

Ez da beharrezkoa izango datuak ekitaldian-ekitaldian jakinaraztea ordaintzaileari, baldin eta datuok aldatu ez badira zergadunak azken jakinarazpena egin zionetik.

4. Zergadunek noiznahi eskatu ahal izango diete ordaintzaileei araudi honetan ezarritakoaren arabera atxikipen-portzentajeak baino handiagoak aplikatzeko, arau hauen arabera, hain zuzen ere:
 - a) Eskaera idatziz egingo zaie ordaintzaileei, eta ordaintzaileok aintzat hartu behar dituzte nominak gertatu baino behar beste denbora lehenago egiten zaizkien eskaerak.
 - b) Eskatzen den atxikipen-portzentaje berria ezin izango da aldatu eskaera egiten denetik urtea amaitu arte, salbu eta araudi honetako 109. artikuluko 3. erregelan aipatutako kasuetako batean. Eta zergadunari hurrengo ekitaldietan ere tasa berri hori aplikatuko zaio, harik eta portzentaje horri idatziz uko egin edo atxikipen-portzentaje handiagoa eskatu arte. Beti ere, inguruabarren aldaketaren baten ondorioz atxikipen-portzentajeen taulen arabera portzentaje handiagoa ezarri beharra badago hala egingo da.
5. Pentsiodunek atxikipen-portzentajeen taula orokorra aukeratu ahal dute, eta horretarako eskaera idatziz aurkeztu behar diote ordaintzaileari edo entitate kudeatzaileari. Eskaera abenduan aurkeztu behar dute, edo bestela pentsiodun zein hartzeko pasiboaren titular izatera igarotzen diren hilaren aurreko hilean.
6. Ordaintzaileak gorde egin behar ditu zergadunak emandako egiaztagiriak edo jakinarazpenak, eta Zerga Administrazioaren esku jarri behar ditu honek eskatuz gero.

129. artikulua. Egoitza aldatzen denean, lanaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak zehazteko prozedura berezia.

1. Besteren konturako langile batek, zerga honen zergaduna ez denak, egoitza Espainiako lurraldera aldatuko bada eta ondorioz Zergaren zergadun geratuko bada, hori guztia jakinarazi ahal izango dio Zerga Administrazioari, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onesten duen jakinarazpen ereduaren bidez; hain zuzen ere, foru diputatu horrek adieraziko du eredu nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta zein agiri aurkeztu behar diren ere.

Jakinarazpenean, langilearen eta lanaren etekinen ordaintzailearen identifikazioak agertu behar dira, adierazi behar da langilea noiz sartu den Espainiako lurraldean eta ordaintzaile horrentzat noiz hasi den lanean. Zehaztu behar da, orobat, lan-harreman horretan ba ote dagoen datu objektiborik pentsarazten duenik harreman horren ondorioz langilearen egoitza-aldaketa gertatzen den egutegiko urtean, edo hurrengoan bestela, Espainiako lurraldean lanean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egongo dela, Espainiako lurraldean lanean hasten denetik zenbatuta.

2. Zerga Administrazioak, jakinarazpena eta harekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zerga honen ziozko atxikipenak zein egunetan hasiko zaizkion egiten adierazten duen frogagiria bidaliko dio langileari, hala badagokio, eta bidali ere jakinarazpena aurkeztu eta hamar astegun igaro baino lehen bidaliko dio.
3. Langileak Zerga Administrazioak emandako agiriaren ale bat emango dio lanaren etekinen ordaintzaileari, atxikipenak aplikatzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan bertan adierazitako egunetik aurrera.
4. Agiri hori jasotakoan, eta bertan adierazitako egunetik aurrera, atxikitzaileak zerga honi buruzko arautegian ezarritakoaren arabera aplikatuko ditu atxikipenak.
5. Interesatua egoitza aldatzen duen urtean zerga honen zergadun bihurtzen ez bada, zerga honen kontura aplikatutako atxikipenak kendu ahal izango ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan.

Halaber, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauko 30 bis artikuluan ezarritakoa aplikatu behar bada eta langilea egoitza atzerrira aldatzen duen urtean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun bihurtzen ez

bada, zerga horren zioz aplikatzen diren atxikipenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

V. KAPITULUA ZATIKAKO ORDAINKETAK

130. artikulua. Zatikako ordainketa egin behar dutenak.

1. Ekonomi jarduerak egiten dituzten zergadunek hurrengo artikuluetan ezarritakotik ateratzen den diru kopurua autolikidatu eta Foru Ogasunean ordaindu behar dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa.
2. Honen aurreko paragrafoan adierazi dena gorabehera, nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduerak egiten dituzten zergadunek ez dute jarduera horiek direla-eta zatikako ordainketarik egin behar, baldin eta zatikako ordainketei dagozkien urtearen aurreko azkenaurreko urteko ustiapeneko sarreraren -diru-laguntza arruntak edo kapitalezkoak edo kalte-ordainak aparte utzita- %70, gutxienez, atxikipenaren edo konturako sarreraren xede izan bada.
3. ...
4. Honen aurreko 2. eta 3. paragrafoetan ezarri denaren ondorioetarako, jarduera hasten den urtean eta hurrengoan, zatikako ordainketari dagokion epean atxikipenaren edo konturako sarreraren xede izan den sarreraren portzentajea hartuko da kontuan.

131. artikulua. Zatikako ordainketaren zenbatekoa, oro har.

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek honako diru-sarrera hauek egingo dituzte araudi honetako 132.artikuluan ezarritako epeetako bakoitzean:
 - a) Oro har, zatikako ordainketak dagozkion urtearen aurreko azken-aurreko urtean lortu dituzten ekonomi jardueraren etekin garbiaren %5, dena delakoa etekin garbia zehazteko metodoa.

Zatikako ordainketak dagozkion ekitaldiaren aurreko azken-aurreko ekitaldian jardueren etekin garbia positibo aizan ez bada, zatikako ordainketa izango da urte horretako sarreraren edo salmenten %0,5 eginez lortzen den emaitza; handizkako saltzaileen kasuan izan ezik, kasu horretan %0,25 izango baita portzentaje hori.

Azken-aurreko urtea jarduera hasten den urtea bada, urte horretako etekin garbiaren zenbatekoa urtekoratu egingo da.

Hala ere, jarduera hasten den urtean eta hurrengo urtean honako kopuru hauek sartu behar dituzte zerga-dunek, zatikako ordainketa legez:

- Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren pean dauden jarduerak direnean, egutegiko hiruhileko bakoitzean sortutako sarrera konputagarrien eta gastu kengarrien arteko aldearen %20.
 - Zenbatespen objektiboaren metodoaren pean dauden jarduerak direnean, zergadunek metodo hori aplikatuz lortzen diren etekin garbien %5 sartu behar dute, zatikako ordainketa bakoitzari dagokion urteko lehenengo eguneko oinarri datuen arabera.
- b) Zehazki, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak direnean, haien etekin garbia zehazteko metodoa dena dela, hiruhilekoan izandako salmen-ten edo sarreraren %2, kapitaleko dirulaguntzak eta kalte ordainak kanpo utzita.

2. Azken-aurreko urteko etekin garbiak kontuan hartu badira, aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzearen ondoriozko kopuruari kendu egingo zaizkio, hala badagokio, urte horretan egindako atxikipen eta konturako sarrera guztiak.

Hiruhilekoan izandako sarrerak eta gastuak kontuan hartu badira, berriz, aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzearen ondoriozko kopuruari kendu egingo zaizkio, hala badagokio, hiruhileko horretan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

3. Ondoko inguruabarretako bat gertatuz gero, aurreko bi idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuta kalkulatutako kopurutik 100 euro kenduko dira:

- a) Aitorpenaren ekitaldia jarduerari ekin zaiona edo hurrengo izatea.
- b) Zatikako ordainketak egin diren ekitaldiaren aurreko ekitaldiaren aurrekoan egindako jardueren etekin garbia ez izatea positiboa edo 15.000 eurotik gorakoa ez izatea. Hori dela eta, baldin eta ekitaldi horretan jarduerari ekin bazitzaion, etekin garbia urte osoa kontuan hartuta kalkulatuko da.

Hala ere, aurreko bi idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuta kalkulatutako kopurua 100 euro baino gutxiago izanez gero, diferentzia ekitaldiko beste zatikako ordainketa batean kendu ahal izango da, zenbatekoak aukera ematen badu eta kopuru hori muga dela.

4. Subjektu pasiboek aukera dute adierazitako portzentajeak baino handiagoak aplikatzeko zatikako ordainketa bakoitzean.
5. Aparteko gorabeherak direla-eta zergadunak irizten badio artikulu honen arabera kalkulatu dituen zatikako ordainketek ez daukatela loturarik ordainketa horiei dagokien zergaldiko etekinekin edo sarrerekin, orduan, zergadun horrek zatikako ordainketok berrikustea eska diezaioke Zuzeneko Zergen Zerbitzuari. Zerbitzu horrek, gorabehera horiek egiaztatu ondoren, eta egoki irizten badio, zati-kako ordainketa kalkulatze erabiliko den oinarria zehaztuko du.

132. artikulua. Aitorpena eta sarrera.

1. Zergadunek aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako kopuruak aitortu eta Foru Ogasunean sartu behar izango dituzte hiru hilerik behin, apiril, uztaile, urri eta urtarrilaren 1etik 25era bitartean.

Aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz sartu beharreko kopururik gertatzen ez bada, zergadunek aitorpen negatiboa aurkeztu beharko dute.

2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak artikulu honetan aipatzen diren epeak luzatu ahal izango ditu, bai eta sarrerak sei hilabeterik behin egiteko aukera ezarri ere. Horretarako, alabaina, beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako portzentajeen arabera egokitzeak egitea.
3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, orobat, zatikako ordainketak Zerga Administrazioaren kabuz likidatzea erabaki dezake. 3. Aitorpena baldintza eta eskakizunen arabera egin behar da, eta diru-sarrera, berriz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak erabakitako eran eta lekuan egingo da.

133. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.

Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek lortzen dituzten ekonomi jardueren etekinei dagokien zatikako ordainketa bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzak egin beharko du, bakoitzak entitatean duen partaidetzaren heinean, baldin eta, araudi honetako 22. artikuluan aurreikusten denaren arabera, etekin horiek ekonomi jardueren etekin lege esleitu bazaizkie bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Izatezko bikoteak.

Araudi honek xedatzen duenerako, izatezko bikoteak aipatzean Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikoteak direla ulertuko da.

Bigarrena. Arrantza suspertzea.

1. Eskuratzailleak gutxienez ere hamar urteko epean lotu behar dio arrantza-ontzia arrantza jarduerari, hori baita abenduaren 23ko 13/1998 Foru Arauko 3. xedapen gehigarriak aipatzen duen epean; bada, betekizun hori betetzeko beharrezkoa izango da eskuratzailleak eskualdaketa formalizatzeko notario-agirian agertzea arrantza-ontzia epe horretan zehar arrantza jarduerari lotuta mantentzeko konpromisoa duela. Horri dagokionez, honako kasu hauetan ontziak jarduerari lotuta jarraituko du:
 - a) Arrantza-ontziaren eskubide onartuak zentsu bereko beste batenekin pilatzen direnean.
 - b) Arrantza-ontziari baja ematen zaionean, beste bat eraikitzeko edo beste batez ordeztzeko.
2. Aurreko paragrafoan aipatu xedapen gehigarri horretan xedatutakoari dagokionez, arrantza-ontzia eskualdatu dela ulertuko da, baldin eta arrantza-ontzi baten jabea den enpresaren sozietate-akzio edo partaidetza guztiak eskualdatzen badira, eta sozietate horren aktiboaren %90 arrantza-ontzietatik osatzen badute.

Hirugarrena. Kotizatutako inbertsio funtsetako partaidetzak eta kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzioak.

Zergari buruzko Foru Arauko 50.1 artikuluan ezarritako geroramendua ezin aplikatu izango da kotizatzen duten inbertsio funtsetako partaidetzak edo mota bereko sozietateen akzioak itzultzen edo eskualdatzen direnean, ez eta harpidetzen edo eskuratzen direnean ere (funtse eta sozietate horiek azaroaren 4ko 1.390/2005 Errege Dekretuak onetsitako Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan araupetu dira).

Laugarrena. Aurrezpen sistematikorako banakako plan batetik bestera mugitzea.

Aurrezpen sistematikorako banakako plan baten hornidura matematiko guztia edo zati bat beste horrelako plan batera aldatuz gero, aldaketa horri dagokionez araudi honetako 64. artikuluko 3. paragrafoan eta laugarren xedapen iragankorrean, aurreikuspen plan aseguratuei buruzkoetan, xedatzen dena jarraituko da, aplikagarria zaion heinean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu eta ekonomi jarduera bati loturik egon diren elementuen ondoriozko ondare-irabaziak.

Ondare-elementuak eskualdatzen badira, baldin eta elementuoi, eskualdatu aurretik, jarduerarekin zuten lotura kendu bazaie, Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta elementuok 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu badira, orduan, ondare-irabaziak murriztu egingo dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 7/1991 Foru Arauko zazpigarren xedapen iragankorreko 2. zenbakiko 2. eta 4. erregeletan ezarritakoaren arabera, elementuok eskuratu ziren eguna kontuan hartuz.

Dena den, aurreko lerroaldean xedatzen dena ez zaie aplikatuko Zergari buruzko Foru Arauko lehenengo xedapen iragankorreko bigarren zenbakian aipatzen diren eskualdaketei.

Bigarrena. Kapital higigarriaren etekinen eta ondare-irabazien gaineko atxikipenak direla-eta sartu diren aldaketan araubide iragankorra

1. Etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketen kasuan, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatu diren eragiketei aplikatuko zaie atxikitzeke betebeharra.

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketa, eskuraketa prezioa kreditatzen ez bada, aktiboaren jaulkipen-balioaren eta eskualdaketa prezioaren arteko diferentziaren gainean egingo da atxikipena.

Ez zaie atxikipenik egingo 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako herri zorreko baloreak eskualdatu, trukatu edo amortizatzen datozen etekinei, baldin eta etekinok data hori baino lehen atxikipenaren menpe egon ez badira.

2. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera etekin esplizituak jaso badira, eta haien likidazioa hamabi hilabetetik gorakoa denez gero konturako sarrerak egin badira, orduan, etekin esplizituak galdagarriak diren unean indarrean dagoen tasaren arabera egingo da behin betiko atxikipena, eta aurretik egin diren konturako sarrerak aintzat hartuz erregularizatuko da.

Hirugarrena. 329/2003 Dekretuko VI. kapituluaren xedatzen denaren babesean emandako laguntza publikoaren salbuespena.

Lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko VI. kapituluaren xedatzen denaren babesean lana eta familia bateragarri egiteko ematen diren laguntzak salbuetsita daude.

Laugarrena. Aurreikuspen plan aseguratutako batetik beste batera aldatzea.

Araudi honetako 64. artikuluko 3. paragrafoa indarrean jarri arte aurreikuspen plan aseguratutako baten hornidura matematikoa beste horrelako plan batera aldatzeko egiten diren eskaerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen uztailaren 29ko 132/2002 Dekretuko 53. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen denaren arabera arautuko dira.

Bosgarrena. Banakako bizitza- edo baliaezintasun-kontratuei aplikatutako zerga-konpentsazioa.

Bat. Xedapen honetan araututako kuota osoa kentzeko eskubidea izango dute 2007ko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietan aurrezkiaren zerga-oinarrian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 38.1.a) artikuluko aipatzen dituen kapital geroratuko hartukizunetatik datozen etekinak sartzen dituzten zergadunek. Hartukizun horiek 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatu diren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluko ezarritako integrazio ehunekoak (% 60 - % 25) eta bederatzigarren xedapen iragankorrak ezarritako % 25 aplikatu zaizkien bizitza- edo baliaezintasun-kontratuetatik etorriko dira.

Bi. Kenketa horren zenbatekoa bi hauen arteko kendura positiboa izango da: aurreko atalean ezarritako etekin garbien zenbateko osoak beren artean integratu eta konpentsatzen datorren saldo positiboari % 18ko karga-tasa aplikatzen datorren kopurua eta etekin horiek, aurreko atalean adierazitako ehunekoak aplikatuta, likidazio-oinarri orokorrean integratu izanetik etorriko zatekeen kuota osoaren zenbateko teorikoa.

Hiru. Aurreko atalean aipatzen den kuota osoaren zenbateko teorikoa honako hau da:

- a) Aurreko "Bat" atalak aipatzen dituen etekinak beren artean integratu eta konpentsatzen datorren saldoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako integrazio ehunekoak aplikatuta eta 2006ko

zergaldian aplika zitekeen testuaren arabera, zero eta negatiboa denean, kuota osoaren zenbateko teorikoa zero izango da.

- b) Aurreko "Bat" atalak aipatzen dituen etekinak beren artean integratu eta konpentsatetik datorren saldoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako integrazio ehunekoak aplikatuta eta 2006ko zergaldian aplika zitekeen testuaren arabera, positiboa denean, kuota osoaren zenbateko teorikoa bi hauen arteko kendura positiboa izango da: likidazio-oinarri orokorraren eta aurretik adierazitako saldo positiboaren arteko baturari 6/2006 Foru Arauaren 77.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuzetik datorren kuota eta likidazio-oinarri orokorrari artikulua horretan adierazitakoa aplikatuzetik datorren kuota.

Lau. Aurreko "Hiru" atalak aipatzen duen saldoa zehazteko, 2006ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako sariei dagokien etekin garbiaren zatiari 10/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako integrazio ehunekoak bakarrik aplikatuko zaizkio. Era berean, 2006ko abenduaren 31ren ondoren ordaindutako sariei ere aplikatuko zaizkie, aseguru-kontratuaren jatorrizko polizan ezarritako sari arruntak direnean. Aseguru-kontratuko kapital geroratuko sari bakoitzari dagokion etekin osoaren zatia zehazteko ondoretarako, etekin oso hori hurrengo zatiduratik datorren haztapen koefizienteaz biderkatuko da:

- Zenbakitzailean, saria biderkatuko da ordainketatik hartukizuna jaso arte igarotako urteen kopuruaz, eta biderkadura hori izango da.
- Izendatzailean, sari bakoitza biderkatuko da ordainketatik hartukizuna kobratu arte igarotako urteen kopuruaz, eta biderkadura horiek batu egingo dira, eta batura hori izango da.

Bost. Aseguru entitateak sari bakoitzari dagozkion bizitza- eta baliaezintasun-aseguruetatik datozen kapital geroratuko hartukizunetatik datozen etekin garbien zenbatekoa jakinaraziko dio zergadunari. Etekin horiek aurreko atalean xedatutakoaren arabera eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako integrazio ehunekoak aplikatuta kalkulatu dira.